

**Levin-ek *English verb classes and alternations* (1993) liburuan
proposatzen dituen ingeleserako alternantziak
euskararekin parekatuz**

Autoreak:

Aldezabal I., Aranzabe M., Atutxa A., Lersundi M.

Laburpena

Lan honetan Beth Levenen *English Verb Classes and Alternations* liburuan (1993) agertzen diren alternantziak euskaraz ageri diren ala ez aztertu dugu. Helburua izan da, euskaraz zein ingelesez topatzen diren alternantziak orokorrakoak izango direlako ustean oinarrituta, haiek agerian jartzea, eta bestelako lanetarako baliagarri izatea. Halako konparaketa-lanak beste hainbat hizkuntzatan ere egin dira; besteak beste, gaztelania eta katalanerako (Taulé, 1995; Vázquez & Fernández, 2000); frantseserako (Saint Dizier, 1995), edota alemana, koreera eta bangalerako (Jones et al., 1994). Hizkuntza hauetan guztietan onartzen diren alternantziek, ezbairik gabe euren orokortasuna jarriko dute agerian.

Alternantziak, Levenen liburuan agertu diren ordena, multzokatze eta zenbaketa bera gordez aztertu dira (egokitasuna alde batera utzita). Alternantzia bakoitzaren hasieran bere azalpena eman dugu, Levenen hitzak oinarri hartuta, eta ondoren, euskaraz ageri dena deskribatu. Azterketa horren ondorio gisa, alternantzia bakoitza onartutzat edo baztertutzat jo dugu.

Abstract

This work compares the alternations proposed by Levin for English in her book *English Verb Classes and Alternations* (1993) in relation with Basque. The aim has been to shed light on them and to offer a starting point to other works, based in the idea that the alternations shared by both languages will be more general. Works of this kind have been made for other languages, such as Spanish and Catalan (Taulé, 1995; Vázquez & Fernández, 2000), French (Saint Dizier, 1995), and German, Corean and Bangla (Jones et al., 1994). Without a doubt, the fact that all this languages share the same alternations make clear the general character of them.

The alternations have been analysed mantaining the same order, grouping and numeration of Levin's book (taken apart their correctness). we first explain each alternation, according to Levin's words; then we describe the phenomena found in Basque; and finally, we consider the alternation as acceptable or unacceptable.

INDIZEA

Sarrera gisa	6
Iruzkina orokorrak	7
Ingeleseko alternantziak euskararekin parekatuz	10
1 Iragankortasunari dagozkion alternantziak (<i>Transitivity Alternations</i>)	10
1.1 Iragankorraren objektua = iragangaitzaren subjektua alternantziak (<i>Object of Transitive = Subject of Intransitive Alternations</i>)	10
1.1.1 “Middle” alternantzia (Middle alternation)	10
1.1.2 Alternantzia kausatiboak (Causative Alternations)	10
1.1.2.1 Alternantzia kausatibo/inkoatiboa (<i>Causative/Inchoative Alternation</i>)	10
1.1.2.2 Eragingandako ekintzazko alternantzia (<i>Induced action alternation</i>)	11
1.1.2.3 Bestelako alternantzia kausatiboak (<i>Other Instances of Causative Alternations</i>)	12
1.1.3 Substantzia/Iturria alternantzia (Substance/Source Alternation)	12
1.2 Objekturik gabeko alternantziak (<i>Unexpressed Object Alternations</i>)	14
1.2.1 Objektu inespezifikoaren alternantzia (Unspecified Object Alternation)	14
1.2.2 Objektu ulertutzat gorputz-atala duen alternantzia (Understood Body-Part Object alternation)	25
1.2.3 Objektu ulertutzat izenordain erreflexiboa duen alternantzia (Understood Reflexive Object Alternation)	26
1.2.4 Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia (Understood Reciprocal Object Alternation)	27
1.2.5 PRO arbitrarioaren alternantzia (PRO-arb Object Alternation)	28
1.2.6 Ezaugarri arruntaren alternantziak (Characteristic Property Alternations)	29
1.2.6.1 Agentearen ezaugarri arruntaren alternantzia (<i>Characteristic Property of Agent Alternation</i>)	29
1.2.6.2 Instrumentuaren ezaugarri arruntaren alternantzia (<i>Characteristic Property of Instrument Alternation</i>)	30
1.2.7 Way-dun objektuaren alternantzia (Way Object Alternation)	30
1.2.8 Instrukziozko inperatiboa (Instructional Imperative)	31
1.3 Alternantzia konatiboa (<i>Conative alternation</i>)	31
1.4 Preposizio-galtze alternantziak (Preposition Drop Alternations)	32
1.4.1 Preposizio lokatiboa galtzearen alternantzia (Locative Preposition Drop Alternation)	32
1.4.2 With preposizioa galtzearen alternantzia (With Preposition Drop Alternation)	34
2 AS barruko argumentuei dagozkien alternantziak (<i>Alternations Involving Arguments Within the VP</i>)	35
2.1 Alternantzia datiboa (<i>Dative alternation</i>)	35
2.2 Onuradunaren alternantzia (<i>Benefactive alternation</i>)	36
2.3 Alternantzia lokatiboak (<i>Locative alternation</i>)	37
2.3.1 Spray/load alternantzia (Spray/load alternation)	37
2.3.2 Clear alternantzia (Clear Alternation) (Iragankorra)	38
2.3.3 Wipe alternantzia (Wipe alternation)	39
2.3.4 Swarm alternantzia (Swarm alternation)	39

2.3.5 Clear alternantzia (Clear alternation) (Iragangaitza).....	39
2.4 Sormen eta transformazio alternantziak (<i>Creation and Transformation Alternations</i>)	40
2.4.1 Materiala/produktua alternantzia (Material/Product Alternation) (Iragankorra).....	40
2.4.2 Materiala/produktua alternantzia (Material/Product Alternation) (Iragangaitza)	41
2.4.3 Erabateko transformazioaren alternantzia (Total Transformation Alternation (iragankorra) ...	41
2.4.4 Erabateko transformazioaren alternantzia (Total Transformation Alternation (iragangaitza) ..	42
2.5 Alternantzia erreziprokoak (<i>Reciprocal Alternations</i>)	42
2.5.1 Alternantzia erreziproko sinplea (SimpleReciprocal Alternation) (iragankorra).....	42
2.5.2 together-dun alternantzia erreziprokoa (Together Reciprocal Alternation) (Iragankorra).....	43
2.5.3 apart-dun alternantzia erreziprokoa (Apart Reciprocal Alternation) (Iragankorra)	43
2.5.4 Alternantzia erreziproko sinplea (SimpleReciprocal Alternation) (iragangaitza)	44
2.5.5 together-dun alternantzia erreziprokoa (Together Reciprocal Alternation) (Iragangaitza).....	44
2.5.6 Apart-dun alternantzia erreziprokoa (Apart Reciprocal Alternation) (Iragangaitza)	45
2.6 <i>Fulfilling</i> alternantzia (<i>Fulfilling Alternation</i>).....	45
2.7 Irudia inprimatze alternantzia (<i>Image Impression Alternation</i>).....	46
2.8 <i>With/against</i> alternantzia (<i>With/Against Alternation</i>).....	46
2.9 <i>Through/with</i> alternantzia (<i>Through/With Alternation</i>)	47
2.10 <i>Blame</i> alternantzia (<i>Blame Alternation</i>).....	47
2.11 <i>Search</i> alternantziak (<i>Search alternations</i>).....	48
2.12 Jabetzako gorputz-atalaren igoera alternantzia (<i>Body-Part Possessor Ascension Alternation</i>).....	48
2.13 Jabe-ezaugarri osagaien alternantziak (<i>Possessor-Attribute Factoring Alternations</i>).....	49
2.13.1 Jabea objektu gisa (Possessor Object)	50
2.13.2 Atributua objektu gisa (Attribute Object)	50
2.13.3 Jabearen eta atributuaren alternantzia (Possessor and Attribute Alternation).....	51
2.13.4 Jabea subjektu gisa (Possessor Subject) (iragankorra).....	51
2.13.5 Jabea subjektu gisa (Possessor Subject) (iragangaitza).....	52
2.14 <i>As</i> alternantzia (<i>As Alternation</i>)	52
3 Subjektu “obliquoko” alternantziak (<i>“Oblique” Subject alternations</i>)	54
3.1 Denborazko subjektuaren alternantzia (<i>Time Subject Alternation</i>)	54
3.2 Naturazko indarreko subjektuaren alternantzia (<i>Natural Force Subject Alternation</i>)	55
3.3 Instrumentuzko subjektuaren alternantzia (<i>Instrument Subject Alternation</i>).....	55
3.4 Kausa abstraktuzko subjektuaren alternantzia (<i>Abstract Cause Subject Alternation</i>)	56
3.5 <i>Locatum</i> subjektuaren alternantzia (<i>Locatum Subject Alternation</i>).....	56
3.6 Lekuzko subjektuaren alternantzia (<i>Location Subject Alternation</i>).....	57
3.7 Edukierazko subjektuaren alternantzia (<i>Container Subject Alternation</i>)	57
3.8 Material gordinezko subjektuaren alternantzia (<i>Row Material Subject Alternation</i>)	58
3.9 Diru-kopuruzko subjektuaren alternantzia (<i>Sum of Money Subject Alternation</i>)	58
3.10 Iturrizko subjektuaren alternantzia (<i>Source Subject Alternation</i>).....	58
4 Diatesi erreflexiboen alternantziak (<i>Reflexive Diathesis Alternations</i>)	59
4.1 Erreflexibo birtualaren alternantzia (<i>Virtual Reflexive Alternation</i>).....	59

4.2 Agerpenezko erreflexiboaren alternantzia (<i>Reflexive of Appearance Alternation</i>)	59
5 Pasiboa (<i>Passive</i>)	60
5.1 Aditzen pasiboak (<i>Verbal Passive</i>).....	60
5.2 Pasibo preposizionalak (<i>Prepositional Passive</i>).....	60
5.3 Pasibo adjektibala (<i>Adjectival Passive</i>) (Aditz iragankorrak)	62
5.4 Partizipio perfektu adjektibalak (<i>Adjectival Perfect Participles</i>) (aditz iragangaitzak)	62
6 Aditz osteko subjektuari dagozkion alternantziak (Alternations Involving Postverbal “Subjects”)	63
6.1 <i>There</i> -sartzea (<i>There-Insertion</i>).....	64
6.2 Lokatiboaren leku-aldatzea (<i>Locative Inversion</i>)	64
7 Bestelako egiturak (<i>Other constructions</i>)	65
7.1 Objektu <i>cognate</i> -dun egitura (<i>Cognate Object Construction</i>).....	65
7.2 Sintagma preposizional <i>cognate</i> -aren egitura (<i>Cognate Prepositional Phrase Construction</i>).....	65
7.3 Erreakziozko objektuaren egitura (<i>Reaction Object Construction</i>).....	66
7.4 <i>X’s way</i> egitura (<i>X’s Way Construction</i>).....	66
7.5 Egitura erretsultatiboa (<i>Resultative Construction</i>)	67
7.6 Objektuak nahigabeko interpretazioa duenean (<i>Unintentional Interpretation of Object</i>)	68
7.6.1 Nahigabezko interpretazioa objektu erreflexiboarekin (Unintentional Interpretation with Reflexive Object)	68
7.6.2 Nahigabezko interpretazioa gorputz-atala den objektuarekin (Unintentional Interpretation with Body-Part Object)	69
7.7 Anafora ez-erreflexibo erreferentziakidea, objektu preposizional gisa (<i>Bound Nonreflexive Anaphoras Prepositional Object</i>).....	69
7.8 Norabidezko sintagma, norabide jakinik ez duen mugimenduzko aditzekin (<i>Directional Phrase with Nondirected Motion Verbs</i>)	70
8 Diatesi bereziak eskatzen dituzten aditzak (<i>Verbs Requiring Special Diathesis</i>)	71
8.1 Derrigorrezko pasiboa (<i>Obligatory Passive</i>).....	71
8.2 Derrigorrezko objektu erreflexiboa (<i>Obligatory Reflexive Object</i>).....	72
8.3 Objektu gisa gauzaten den gorputz-atala norberarena denean derrigorrez (<i>Inalienably Possessed Body-Part Object</i>).....	72
8.4 <i>It</i> espletiboa objektu gisa (<i>Expletive It Object</i>).....	73
8.5 Derrigorrezko adberbioa (<i>Obligatory Adverb</i>)	73
8.6 Ezezko elementu bat hartzen dutenak derrigorrez (<i>Obligatory Negative Polarity Element</i>).....	73
Laburbilduz.....	74
Erreferentziak	80

Sarrera gisa

Hona hemen Beth Levenen *English Verbs Classes and Alternation* liburuan (1993) agertzen diren alternantziak euskaraz ageri diren ala ez aztertzen duen lana. Lan honen helburua izan da, euskaraz zein ingelesez topatzen diren alternantziak orokorragoak izango direlako ustean oinarrituta, haiek agerian jartzea, eta bestelako lanetarako baliagarri izatea. Halako konparaketa-lanak beste hainbat hizkuntzatan ere egin dira; besteak beste, gaztelania eta katalanerako (Taulé, 1995; Vázquez & Fernández, 2000); frantseserako (Saint Dizier, 1995), edota alemana, koreera eta bangalerako (Jones et al., 1994). Hizkuntza hauetan guztietan onartzen diren alternantziek, ezberrik gabe euren orokortasuna jarriko dute agerian.

Alternantziak, Levenen liburuan agertu diren ordena, multzokatze eta zenbaketa bera gordez aztertu dira (egokitasuna alde batera utzita). Alternantzia bakoitzaren hasieran bere azalpena eman dugu, Levenen hitzak oinarri hartuta, eta ondoren, euskaraz ageri dena deskribatu. Azterketa horren ondorio gisa, alternantzia bakoitza onartutzat edo baztertutzat jo dugu. Alternantzien azterketa zehatzera jo aurretik, halere, iruzkin orokor batzuk aipatu ditugu, ikuspegi orokor bat eskainiko dutelakoan.

Esan gabe doa, hemen egiten diren baieztapen edo ezeztapen oro eztabaidagarriak direla, eta horien inguruko edozein iruzkin eskertzekoa izango dela. Bestetik, dauden alternantzia eta aditz-klaseei erreferentzia egiteko sortu behar izan ditugun euskal terminoen egokitasuna ere aztertu beharreko beste alderdi bat da.

Horretaz gain, zabalik geratzen da Levenen lanean agertu ez eta euskarak berak erakusten dituen alternantzien azterketa, hori ez baita izan txosten honen helburua.

Honekin guztiarekin, Levenen alternantziak euskararekin parekatzeaz gain, eztabaidarako atea ere ireki nahi dugu; esan dugun bezala, batetik, esandakoen inguruko iritziak trukatzeko, eta bestetik, euskaraz bakarrik ageri diren alternantziak identifikatzeko bidea urratzen has gaitzen. Horrelako azterketekin, hizkuntza hauen arteko desberdintasunetan eta euskararen berezko ezaugarrietan sakontzeko abiapuntu bat ezarriko genuke; eta, aldi berean, txosten honen bertsio berrituak, eguneratuak izango genituzke.

Aipatutako etorkizuneko zeregin hauetan interesa duena, beraz, jar dadila gurekin harremanetan (jibalroi@si.ehu.es), eta berehala jarriko dugu eztabaidarako eta lankidetzarako bidea abian.


Iruzkin orokorrak

- Levinek 80 alternantzia proposatzen ditu. Alternantzia hauek 8 multzotan bereizten ditu, eta horietatik lehenengo hirurak dira multzorik handienak eta nagusienak. Gainontzekoak mugatuagoak eta anitzagoak dira. Bere hitzetan:

The alternations are subdivided into groups on the basis of the syntactic frames involved. The first group includes transitivity alternations, while the second group covers alternate expressions of arguments (mostly within the verb phrase) that do not affect transitivity. A third group includes alternations that arises when verbs permit “oblique” subjects. These major groups of alternations are followed by a variety of other types.


22.orr.

Ikus sailkako proportzioak honako irudi grafikoan:



- 80 alternantzia hauetatik, 24 topatu ditugu euskaraz. Hain zuzen, horietatik gehienak goian aipatutako multzo nagusietakoak dira; aldiz, autoreak proposatzen dituen 4., 6. eta 8. sailekorik bat ere ez da onartzen; ez eta gainontzeko sailetako zenbait ere.

Hona, grafikoki irudikatua, Levinen sail bakoitzean euskaraz onartzen diren alternantzien kopurua:



- Ingelesez ageri diren alternantzia asko euskaraz ez topatzeko arrazoiak:
 - Gehienetan izan ohi da alternantziako bi aldaerak edota aldaeretako bat ezin delako ezta itzuli ere, edota itzulita ere, ez duelako zentzu handiegirik. Halakoxeak ditugu 1.2.3, 1.2.5, 1.2.7, 2.3.2, 2.3.3, 2.3.4, 2.3.5, 2.4.1, 2.4.2, 2.4.3, 2.4.4, 2.5.2, 2.5.3, 2.5.5, 2.5.6, 2.6, 2.7, 2.8, 2.9, 2.10, 2.11, 3.2, 3.3, 3.5, 3.6, 3.7, 3.8, 3.9, 4.1, 4.2, 5.1eko zenbait, 5.2, 5.3, 6.1, 7.2, 7.3, eta 7.8 alternantzien kasua.
 - Beste gutxi batzuk, euskaraz, esaldiko elementu berberen leku-aldatze huts dira, 2.1 eta 6.2, alegia.
 - Beste batzuek, euskaraz, gure ustez, aldaera batetik bestera elipsia baino ez dute erakusten (1.2.2 eta 1.2.8 kasu).
 - Beste asko, zalantzazkoak gertatzen dira, alde batetik, erdaretako kalkoen mugetan gaudela dirudielako (esaterako, 2.13.5, eta 5.1eko zenbait); eta bestetik, euskaraz antzeko zentzua lortzeko ez delako ingeleseko baliabide eta forma bera erabiltzen (1.1.2.2, 1.1.2.3)
 - Besteren batean, ingelesez lexikoki aditz berarekin adierazten dena, euskaraz aditz diferentziaz adierazten da. Euskaraz, beraz, ezin esan aditz-forma berari dagokion alternantzia denik; horixe da 3.10 alternantziaren kasua.

- Eta azkenik, badira kasu batzuk ezin direnak alternantziatzat hartu —ez euskaraz ez ingelesez—, Levinek defendatzen duen zentzuan bederen, alternantziok ez dituztelako bi egitura bikote zilegi harremanetan jartzen; aditz jakinek onartzen duten egitura bereziak egiaztatu baino ez dira egiten, batzuetan egitura bakarra adieraziz (7.4, 7.5 eta 8.4 kasu) eta beste batzuetan egitura zuzenaren parean egitura okerra jarritz (7.6.1, 7.6.2, 7.7, 8.1, 8.2, 8.3, 8.5 eta 8.6, esaterako).

Ingeleseko alternantziak euskararekin parekatuz

1 Iragankortasunari dagozkion alternantziak (*Transitivity Alternations*)

Alternantzia hauek aditz baten iragankortasunean aldaketak gertatzea adierazten dute.

1.1 Iragankorraren objektua = iragangaitzaren subjektua alternantziak (*Object of Transitive = Subject of Intransitive Alternations*)

1.1.1 “Middle” alternantzia (Middle alternation)

Adib.

Ing. Janet broke the crystal / Crystal breaks at the slightest touch

Eusk. Janetek izpilua puskatu zuen / Izpilua ukiturik leunenarekin hausten da

Ezaugarriak: ez dago denboraren inongo erreferentziarik; agerian ez dagoen agente bat ulertutzat jotzen da; eta askotan, moduzko elementu edo adberbioren batekin batera agertzen da. Hiru ezaugarri hauek, “Middle” alternantzia alternantzia kausatibo/inkoatiboko aldaera inkoatibotik bereizten dute. Honek zalantzan jartzen du bi aldaera hauek benetan bi desberdin diren edota bat bezala hartu behar diren. Kontua da *middle*-a erakusten duten aditz askok ez dutela inkoatiboa onartzen. Honen arrazoia izan daiteke *middle*-a erakusten duten aditzek objektu afektatuak bakarrik adierazten dituztela.

Levinek, alternantzia hau azaltzerakoan, ez dio inongo klase semantikori egiten erreferentzia.

Euskaraz badela dirudi.

1.1.2 Alternantzia kausatiboak (Causative Alternations)

Erabilera iragankor eta iragangaitza duten aditzak biltzen dira hauetan.

Hiru mota daude:

1.1.2.1 Alternantzia kausatibo/inkoatiboa (*Causative/Inchoative Alternation*)

Adib.

Ing. Janet broke the cup / The cup broke

Eusk. Janetek katilua puskatu zuen / Katilua puskatu egin zen

Alternantzia kausatiboa/inkoatiboa deitura desberdinak jaso izan ditu autoreen arabera, hala nola, *alternantzia antikausatiboa* edota *alternantzia ergatiboa* (C.S. Smith-ek (1970)

luze jarduten du honen inguruan)¹. Deiturak gorabehera, alternantzia hau erakusten duten aditzek egoera-aldaketa edota kokapen-aldaketa adierazten dutela diosku Levinek.

Hala ere, alternantzia hau onartzen duten aditz-multzoen artean egoera-aldaketa adierazten dutenak bakarrik sartzen ditu:

- “Break Verbs” (45.1) (‘Puskatze aditzak’: *hautsi, puskatu, apurtu, ezpaldu, zartatu, printzatu, kraskatu, zehatu, txikitu, urratu...*);
- “Bend verbs” (45.2) (‘Okertze aditzak’: *okertu, makurtu, gakotu, konkortu, zimurtu, tolestu, tolestatu...*);
- “Roll Verbs” (51.3.1) (Pirritatze aditzak: *pirrilka/pirritan joan, errodatu*);
- “Other alternating verbs of change of state” (45.4) (‘Egoera-aldaketazko bestelako aditzak’): *arindu, eztitu, lehertu, kamustu, erre...*; adjektibo bat oinarri duten aditz eratorriak; kolore bat oinarri duten aditzak; hainbat atzizkiz eratutakoak: *-ify, -en, -ize, -ate* (euskaraz *-tu* atzizkiz egiten ditugunak, oro har, aurreko guztiak bezalaxe azken batean).
- “Amuse verbs” (31.1) (‘Entretenitze aditzak’): *lotsatu, hunkitu, nahigabetu, atsekabetu, mindu, samindu, sumindu, asaldatu, amorratu, aztoratu, urduritu, larritu, kezkatu, artegatu, harritu, txunditu, entretenitu, haserretu, sumindu, lasaitu, baretu, piztu, esnarazi, harritu...*).

Euskaraz badela argi dago.

1.1.2.2 Eragindako ekintzazko alternantzia (*Induced action alternation*)

Adib.

Ing. Sylvia jumped the horse over the fence/ The horse jumped over the fence

Eusk. *Janetek zaldia hesirantz salto egin zuen / Zaldiak hesirantz salto egin zuen

Kausa batek, normalean biziduna eta borondateduna den entitate bat ekintzara bultzatzen du, askotan entitatearekin batera egiten duelarik ekintza. Aldaera iragankorrean, norabidezko

¹ Guk geuk ere alternantzia hau *kausatibo/inkoatibo* gisa izendatzea ez dugu oso zentzuzko ikusten; izan ere, iragankortasunarekin zerikusia duten alternantziak izendatzerakoan, autoreak ez du erabiltzen *alternantzia kausatiboa/middle-a*, edota *alternantzia kausatiboa/eragindako ekintzazkoa*; alegia, konparagai diren bi egituren izenak. Argi dago alternantziak izendatzeko autorearen joera orokorra egitura nagusizat hartzen duen egiturarekiko konparagai den aldaeraren izena bakarrik erabiltzea dela; horrenbestez, joera orokor honi segituta, *alternantzia inkoatiboa* (edota beste zenbait autorek proposatutakoaren arabera *alternantzia antikausatiboa, alternantzia ergatiboa*) deitzea logikoagoa dela uste dugu. Nolanahi ere, Levinek izendatzeko duen joera orokorra albo batera, alternantzietan bi egitura jartzen direnez parez pare, guztietan bi egituren izenak ezartzea litzateke, gure ustez, zuzenena.

sintagma bat agertzen da, eta agertzen ez denean ulertutzat eman behar da, ezinezkoa baita ekintza lekuan bertan, desplazamendurik gabe interpretatzea.

Euskaraz ez dagoela dirudi.

1.1.2.3 Bestelako alternantzia kausatiboak (*Other Instances of Causative Alternations*)

Adib.

Ing. I burped the baby / The baby burped

Eusk. *Haurra korroskada bota nuen² / Haurrak korroskada bota zuen

Aldaera iragankorrek barnetik kontrolatuta dagoen ekintza bat adierazten du; ekintza hori batzuetan kanpoko kausa batek ere eragin dezake, eta kasu horietan ageri da alternantzia iragankorra. Objektu-mota mugatua hartzen dute alternantzia hau erakusten duten aditzek, nahiz eta printzipioz aditzarekiko erlazio semantikoa berdina den; esaterako, ingelesez esan daiteke *burp a baby*, baina ez *burp a doctor* nahiz eta hurrek zein medikuek, biek, korroskadak bota.

Esan behar dugu ez dugula oso ondo ulertzen “barnetik kontrolatua egote” hori, izan ere, halako ekintzak “nahigabe” suertatzen direnean, ez daude kontrolatuta ez barrutik ez eta kanpotik ere. Beraz, ez zaigu iruditzen oso baieztapen zehatza ez eta baliagarria denik.

Alternantzia hau euskaraz ez dago.

1.1.3 Substantzia/Iturria alternantzia (Substance/Source Alternation)

Adib.

Ing. Heat radiates from the sun / The sun radiates heat

Eusk. Beroa eguzkitik irradiatzen da / Eguzkiak beroa irradiatzen du

Aldaera iragankorra, substantziaren bat igortzea adierazten duten aditzek bakarrik erakusten dute. Aditzaren argumentuetako bat iturria da eta bestea substantzia. Hain zuzen ere, Levinek “Verbs of Substance Emission” (‘Substantzia jariatze aditzak’) aipatzen ditu alternantzia honetan parte hartzen dutenen artean. Levinek alternantzia hau alternantzia kausatiboen artean sailkatzen du, eta haiekiko desberdintasuna bi aldaeretan bi argumentuak ageri direla da.

² Jakin badakigu ingelesez adierazi nahi dena euskaraz beste modu batean adieraz daitekeela, *-arazi* atzizkidun egituraren bidez alegia. Guk, ordea, ez dugu kausatibitate morfologikoa, hau da, eratorpen bidez sorturikoa, kontuan hartu nahi izan, hori ez baita aditz-pieza berak duen berezko gaitasuna, baizik eta *-arazi*-rekin batera lortzen duena. Gainera, ingelesez ere badago horren antzeko prozesurik, *to make* aditza baliatuta, eta Levinek ez du alternantzietan kontuan hartzen. Honenbestez, ez dugu uste hemen Levinek aurkezten duen alternantzia eta *-arazi*-dun egitura parekatu behar direnik.

Euskaraz, erlazio semantiko hori adierazten duten aditzen artean, *irradiatu*-z gain, eta berezkoago gainera, Levinek zerrendatzen dituen beste hauek ditugu: *jariatu*, *isuri*, *izerditu*, *argitu*, *odola jario*, *adurra/lerdea jario*, *tantak isuri/jario*, *malkoak isuri*, *kea jario*, *turrustan isuri*... Ikusten dugunez, *jariatu* eta *isuri* izan ezik, gainontzekoak edo konposatu gisa itzuli behar dira euskaraz ('iz. + *isuri/jario*' segidaz) edo eratorriak dira (*izerditu*, *argitu*). Beraz, lehenengoen ('iz. + *isuri/jario*' modukoak, alegia) jokaera sintaktikoa aztertzea, azken batean *isuri* eta *jario*-ren jokaera sintaktikoa aztertzea da, aditz konposatuak izan arren objektuak objektu sintaktiko gisa jokatzeko duelako (gainera, euretako asko ez dira "kontzeptu eginak" euskaraz); eratorriek, berriz, 1.2.1 puntuan (Objektu inespezifikazioaren alternantzia, alegia) ikusiko dugun bezala, jokaera sintaktiko desberdina erakusten dute aditzaren osagaietako bat aditzaren baitan dagoelako; eta horrexegatik ez dute hemen aurkezten den alternantzia erakusten. Beraz, alde batera uztekoak dira alternantziari begira.

Jariatu eta *isuri* aditzei helduz, hortaz, esan behar dugu bi aditzok ez dutela joera bera erakusten aldaera iragankor eta iragangaitzarekiko. *Jariatu*-ren kasuan arruntagoa dirudi iragangaitza, nahiz eta iragankorra ere ageri den. Izatez, Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-n *jariatu*-ren erabilerekin balio iragangaitza da adibide gehien dituen.

Iragg.: Ahotik odola jariatzen bazaio (*Euskal Hiztegi*-ko adibidea)

Iragk.: Guruin batek jariatzen duen gaia (*Euskal Hiztegi*-ko adibidea)

Bestalde, *Orotariko Euskal Hiztegi*ko (Mitxelena, 1987-) *jario* aditzaren (*jariatu* sarreran *jario*-ra egiten baitu bidalketa) azalpenetan irakur dezakegunez, erabilera iragankorra askoz ere berriagoa da; hau da, iragangaitza da betidaniko erabilera:

En cuanto a su uso trans. o intrans., los testimonios más antiguos, tanto al Norte como al Sur, corresponden a construcciones intransitivas con complemento dativo y es este uso el más frecuente en ambas tradiciones. Hay testimonios de construcciones transitivas desde principios del s. XIX.

100. orr.

Isuri-ren kasuan, berriz, erabilera iragankorra da *Euskal Hiztegi*an agertzen den bakarra; guk eskura dugun *XX. mendeko corpus estatistikoa*-ko laginean³, ordea, bietarikoak ageri zaizkigu, gehienak erabilera iragankorrak diren arren:

³ *XX mendeko euskararen corpus estatistikoa* garai bateko EEBS (Egungo Euskararen Bilketa Sistemakoa) corpusaren izen berria da (jo bedi <http://www.euskaracorpora.net> web-orrira kontsultatu nahi izanez gero). Corpus hau XX. mendeko euskal produkzioaren lagin estatistikoa da, modu sistematikoan antolatua. Nolanahi ere, guk eskuartearen darabilgunak 1900etik 1994ra bitarteko testuak biltzen ditu zehazki, eta horretaz gain, euskara batuzat sailkatua dagoena hartu dugu bakarrik oinarri.

Iragg.: 7) Bertatik argi izpi indartsu batzuk **isurtzen** dira eta elkartzen diren puntuan izar bat osatzen dute. (*XX. mendeko corpus estatistiko*-ko adibidea)

Iragk.: Ahaztuta zeneukan zineman azkeneko ilaran eseri , eta eskutik helduta egote hutsak , parekoari begietatik miresmena dariola ikusteak , edo "egunen batean ez nauzu maiteko" esanez gero malkoak **isurtzen** dituela konturatzeak eragiten duen poza. (*XX. mendeko corpus estatistiko*-ko adibidea)

Horiek gorabehera, gauza bera adierazteko (*iturria*, alegia) ergatiboa (*norbaitek malkoak isuri*; *Guruin batek gaia jariatu*), nahiz ablatiboa (*bertatik argi izpi indartsu batzuk isuri*; *ahotik odola jariatu*) ageri zaizkigula ikusten dugu. Hau da, ohiz ergatiboa agentetasunarekin edo kausarekin lotzen bada ere, hemen zentzu hori ez da hain argi ageri; besterik gabe, aditzak adierazten duen ekintza edo gertaera, berezko gaitasunaz, naturaz, gertatzen dela dirudi. Horregatik darabil, seguruenez, *iturri* –eta ez *kausa*– terminoa.

1.2 Objekturik gabeko alternantziak (*Unexpressed Object Alternations*)

1.2.1 Objektu inespezifikoren alternantzia (*Unspecified Object Alternation*)

Adib.

Ing. Mike ate the cake / Mike ate

Eusk. Mikek opila jan zuen / Mikek jan zuen

Alternantzia honetako objektuak, delako aditzarentzat tipikoa den zerbait adierazten du. Halere, eztabaidak daude objektu honen interpretazioari dagokionez. Eztabaidagai da ere objektu hau esplizituki errepresentatuta dagoen ala ez, maila sintaktikoan edota adierazpide lexikoan. Objektuak aipatutako interpretazioa izaki, *definitugabeko objektuaren (indefinite object) alternantzia* nahiz *IS definitugabearen ezabaketa (indefinite NP deletion) alternantzia* ere deitu izan zaio.

Levinek alternantzia hau onartzen duten aditzen artean, ez du sail semantikorik aipatzen, baizik eta aditz-zerrenda bat ematen du. Aditz horien artean hauexek ditugu: *bake* ('labean egin') (26.1, 26.3); *carve* ('zura/harria landu', 'tailatu') (26.1); *clean* ('arraina, oilaskoa... garbitu') (26.3); *clear* ('bikorrak kendu') (26.3); *cook* ('haragia... prestatu, egin') (26.3); *crochet* ('gakorratzez egin') (26.1); *chop* ('aizkoraz moztu, txikitu, xehatu') (21.2); *churn* ('esnea jo/irabiatu') (26.1); *draw* ('marratzu') (26.7); *drink* ('edan') (39.1); *dust* ('-i hautsa kendu') (10.4.1); *eat* ('jan') (39.1); *embroider* ('brodatu') (26.1); *fish* ('arrantza egin') (35.1); *hum* ('ahopetik kantatu/abestu') (26.7); *hunt* ('ehizatu') (35.1); *iron* ('lisatu', 'plantxatu') (26.3); *knead* ('oratu') (26.5); *knit* ('puntua egin; gakorratz-lana egin') (26.1); *mend* ('pasaratu') (1.2.1); *milk* ('pozoina atera') (10.7); *mine* ('ustiatu', 'atera') (35.1); *mow* ('segatu') (21.2); *nurse* ('-en erizain izan') (29.8); *pack* ('bete') (9.7); *paint* ('margotu',

‘pintatu’) (26.7); *play* (‘musika jo’) (26.7); *plow* (‘goldatu’) (10.4.2); *polish* (‘-i dizdira atera’) (9.9); *read* (‘irakurri’) (14); *recite* (‘errezitatu’, ‘ozen irakurri’) (26.7); *scrounge* (‘besteen lepotik bizi’) (35.1); *sculpt* (‘zizelatu’, ‘harria landu’) (26.1); *sew* (‘artilea/kotoia harildu, harilkatu’) (26.1); *sing* (‘abestu’) (26.7); *sketch* (‘zirriboratu’, ‘zirriborroa egin’) (25.2); *sow* (‘erein’) (9.7); *stitch* (‘josi’, ‘bordatu’) (26.1); *study* (‘ikasi’) (14); *sweep* (‘erratzaz garbitu’, ‘erratzatu’) (10.4.1); *teach* (‘irakatsi’) (37.1); *type* (‘idazmakinez idatzi’) (25.2); *vacuum* (‘xurgagailuz garbitu’) (10.4.2); *wash* (‘ontziak garbitu’, ‘harrikoa egin’) (26.3); *weave* (‘oihala ehun’) (26.1); *whittle* (‘zizelez/labana landu’, ‘tailatu’) (26.1); *write* (‘liburua idatzi’) (26.7)

Euskarari dagokionez, berriz, ohar batzuk egin beharrean aurkitzen gara. Izan ere, Levinek alternantzia azaltzeko erabiltzen duen adibide zehatzari begira jartzen bagara, euskaraz, printzipioz elipsi kasu bat baino ez dugula ematen du. Elipsi kasutzat jotzeko, jakina, esaldiok testuinguru jakin batean ulertzen ditugu, hau da, argi dago hauek halaxe ulertzeko testuinguruari begira jarri garela, eta alde zuzenetik aipatu den erreferente bat ikusten diogula objekturik gabeko aldaerari.

Ingeleseaz argi dago objekturik gabeko egiturek beti esanahi berezia dutela, hizkuntza hau *pro-drop* ez izaki, sintaxi agerian objekturik ez agertzea ez baita arrunta; horrelako kasuetan, elipsi-prozesuz azal ezin daitezkeen bestelako fenomenoak ditugula badakigu.

Euskaraz, ordea, gauzak ez dira hain garbiak. Izatez, elipsi bidezko elementuen desagertzea oso fenomeno arrunta da, eta hori horrela izanik, batzuetan zail gertatzen da elipsi-kasuak elipsi ez direnari bereiztea. Eta horixe gertatzen zaigu, hain zuzen, Levinek inespezifikazio-kasuen artean aipagai dituen aditz batzuekin. Areago, baita Levinek planteatzen dituen alternantzia batzuekin, hain zuzen ere, horregatixe alternantzia ez-onartutzat jo ditugunak barne-txostenean (Objektu ulertutzat gorputz-atala duen alternantzia (1.2.2): *I flosssed my teeth / I flosssed* (‘Hortzak setazko hariz garbitu nituen / setazko hariz garbitu nituen’) eta Instrukziozko inperatiboa (1.2.8): *Bake the cake for 30 minutes / Bake for 30 minutes* (‘Eduki opila labean 30 minutuz / Eduki labean 30 minutuz’). Kasu hauetan, badira erreferente jakineko objektu batzuk (*hortzak* lehenengoan eta *opila* bigarrean) lehenagotik aipatu behar izan direnak gure ustez.

Levinek alternantzia inespezifikorako jartzen duen *jan* aditzaren kasuan ere gauza bera gertatzen dela esango genuke; besterik gabe, objektuaren elipsi horrek, *Mike* aditzaren aurrean suertaturik eta bestelako zeinu testualik gabe, automatikoki foko edo galdegai izatea ekartzen du. Alegia, elementu jakin bat eliditzeak, automatikoki esaldiko beste elementuren bat hanpatua izatea dakar, mintzagai-egituran ekarriz aldaketak, baina ez bere osaera sintaktiko-semantikoan:

Ing. Mike ate the cake / Mike ate

Eusk. Mikek opila jan zuen / Mikek jan zuen

Adibide honetan, “Mikek”, eta ez beste inork, “opila jan zuela” adierazten da. Beraz, argi dago, ingelesez aditzera ematen den inespezifikazio-interpretazioa eta euskarazkoa ez datozela bat hemen.

Gauza bera ikus dezakegu Levinek objektu inespezifikoko alternantzien artean zerrendatzen dituen beste aditz batzuetara jotzen badugu: *edan, irakurri, marraztu, brodatu, pintatu, jokatu, josi...*

Aditz hauek guztiak *jan*-en egitura berean txertatzen baditugu, gauza bera ikusiko dugu:

Mikek ardoa *edan* zuen / Mikek *edan* zuen

Mikek liburua *irakurri* zuen / Mikek *irakurri* zuen

Mikek irudia *marraztu* zuen / Mikek *marraztu* zuen

Mikek letra *brodatu* zuen / Mikek *brodatu* zuen

Mikek pareta *pintatu* zuen / Mikek *pintatu* zuen

Mikek pilota-partidua *jokatu* zuen / Mikek *jokatu* zuen

Mikek botoia *josi* zuen / Mikek *josi* zuen

Euskaraz ingeleseko balioa topatzeko, hau da, aditz hauek objekturik gabe azaldu eta zentzu inespezifikoko bat izateko, aditza, lehenik eta behin ohitura adierazten duen elementuren batekin agertu behar du, gure ustez: partizipio ez-burutua, *ohi, izan, beti...* Eta bestetik, subjektuak mintzagai hanpatua izan behar du. Aditza halako forma ohizko batez agertzen denean eta objektua desagertzen denean, subjektua aditzaren aurrean gertatzen da, eta ondorioz bi mintzagai-egitura suerta daitezke: bata, subjektua mintzagai hanpatua izatea, ondorioz, perpausean geratzen den beste elementua, aditza, galdegai bihurtuz, *egin* indargarria edota aditzaren baieztapena edo ukapena azaltzea oso arrunta izango delarik. Kasu hauetan “jaten duena” lehenagotik aipatua ez egonik ulertutzat eman daitekeela esan daiteke, Levinek dioen “objektu tipiko” eran:

Mikek, jaten du / Mikek, jan egiten du / Mikek, ez du jaten

Bestea, subjektua galdegai izatea, eta aditza mintzagai hanpatua, hanpatzen den hori ohizkotasuna dela. Horrela izango ez balitz, hau da, *Mikek jaten du* izango bagenu bakarrik, aldeztatik aipatua izan den erreferente bat dagoela eta, hortaz, elipsi bat dagoela ematen du. Horregatik diogu subjektuak mintzagai hanpatua behar duela izan inespezifikazioa izateko.

Horrek esan nahi du, inespezifikazio-kasuak esaldiko osagaien mintzaira-egiturarekin zein aspektu kontuekin oso lotuta daudela, euskaraz bederen, eta ezin dugula honetaz hitz egin,

esaldiko antolaketa markatua eta bestelako ezaugarriak, aspektua esaterako, kontuan hartu gabe.

Beraz, inportantea da bereiztea zer den elipsia eta zer inespezifikazioa aditzak bere testuinguruan aztertzen direnean. Lehenengoa bai baita testuala, bestea, berriz, esaldiaren eremuko aditz-ezaugarriei lotuta dago. Hau argitze aldera, geureganatu ditzagun Vázquez et al.-ek (2000) bi kontzeptu hauen inguruan laburbildutakoa:

La característica definitoria de la elipsis según Lyons 1968 es que siempre es posible recuperar el elemento elidido, es decir, se trata de un elemento que ya ha aparecido anteriormente y, por lo tanto tiene un carácter definido. [...]. Frente a la elipsis, en la infraespecificación el contenido no expresado se recupera de forma general, es decir, no se identifica el referente exacto, de manera que se establece un contraste de significado entre dos construcciones en las que se opone un evento específico a otro infraespecificado.

132. orr.

Hitz hauek onarturik, inespezifikazio eta elipsia ondoko modura defini ditzakegu, laburki:

- Inespezifikazioa, aditz balentziako elementuren bat kentzen delarik, egitura espezifiko baten eta egitura orokorrago baten artean oposizio semantiko bat gertatzean datza. Elementu-kentze hau, autonomia da, hau da, ez da aurrekaririk beharrezko elementu-kentzea gertatu ahal izateko Adib.:

Pelloc idatzi egiten du --> badakigu Pellok *prosa, poesia* edo horrelako zerbait idazten duela.

- Elipsia, aditz balentziako elementuren bat kentzean datza, baina elementu hori beti berreskuragarria da, aldeztatik aipatua izan delako; hau da, testuinguru testualari lotuta egonik, beti berreskura daiteke. Eta, era berean, aurrekaria den neurrian, erreferente zehatza da. Ondorioz, elipsidun egiturak eta elipsigabeak esanahi bera dute, eta ez dago inongo aldaketa semantikorik. Adib.:

(Liburua_i mahai gainean dago;) Pellok ekarri du [pro=liburua]_i

Pelloc ekarri du esaldia bakarrik hartuz gero, ezin dugu jakin Pellok zer ekarri duen, baina badakigu testuinguruaren arabera gauza zehatz bat dela eta aditz horren objektua dela. Azken batean *pro-drop* fenomenoaren aurrean gaude.

Elipsiaren harira, bestalde, bada argitu nahi genukeen beste puntu bat: testuinguru estralinguistikoan oinarritutako elipsia edo elipsi pragmatikoa deritzana. Esan dugun bezala, elipsiak beti du erreferente zehatz bat, baina batzuetan erreferente zehatz hori testuan ez

baizik eta testutik kanpo dago. Ekar dezagun, berriz ere, Vázquez et al. (2000) autoreek diotena elipsi-mota honen inguruan:

En ocasiones, para recuperar el contenido del elemento elidido a través de la elipsis, es necesario recurrir a contexto extralingüístico, es decir, al conocimiento pragmático.

133. orr.

Ikus ditzagun autore hauek erabiltzen dituzten zenbait adibide euskarara egokituta:

Nire aitak ez du edaten

Gainditu dut azkenean

Ez dut ikasi / Pasaia Lizeoan ikasi nuen⁴

Irabazi dugu

Kasu hauetan guztietan, jarrera sozial baten ondorioz sortutako ohiturak direla-eta, esaldi hauen azpian dauden objektuak, *alkohola*, *azterketa/proba*, *ikasgaia/batxilergoa*, eta *kirol-probaren bat* direla jakin dezakegu arazo handirik gabe; eta, *ez*, *adibidez*, *ura*, *depresioa*, *josten* edota *dirua*. Hortaz, hasiera batean, objektu tipikoko inespezifikazio-erabilera baten aurrean gaudela dirudien arren, berez, ez da hala, erreferentea zehatza delako.

Kasu hauetan, ordea, objektu tipikoko inespezifikazio kasuetan bezalaxe, testugintzari begira objektu hori errekuperatu nahiko bagenu, ez genuke joan beharko testuko inongo erreferentziaren bila, eta objektu hori nolabait aditz horren erabilera jakin horretan suposatutzat eman behar dela zehaztu beharko genuke. Honenbestez, elipsi pragmatikoak, testu eta esaldi esparruari begira, inespezifikazioa bai baina objektu “jakineko” inespezifikazioa adierazten duela esango dugu. Cano Aguilar-ek (1981), *objeto sobreentendido* izena ematen dio pragmatikari loturiko elipsi-mota honetako objektuari. Eta horixe izango da, azken batean, bereizi beharko dena: objektu orokorreko inespezifikazioa den ala objektu jakineko inespezifikazioa. Nolanahi ere bi hauek elipsi testualetik bereiztea izango da garrantzitsuena.

Hori argituta, honenbestez, jo dezagun alternantzia honetan planteatzen den auzi nagusira: objektu inespezifikokoaren izaera.

Elipsi kasuen aurrean geundela adierazteko erabili ditugun adibideetara itzulita, alegia, ondokoetara:

Mikek ardoa *edan* zuen

Mikek liburua *irakurri* zuen

⁴ Izatez, zenbait hiztunek kasu honetan *ikasi* baino *estudiatu* erabiltzen dute, *estudiatu* beti *estudiatzen* baita *ikasgaia/batxilergoa*. Hau horrela denik ukatu gabe, balio berori *ikasi*-rekin ere ontzat ematen dugu guk.

Mikek irudia *marratzu* zuen
Mikek letra *brodatu* zuen
Mikek pareta *pintatu* zuen
Mikek pilota-partidua *jokatu* zuen
Mikek botoia *josi* zuen

objektu guztiak desberdinak direla ikusten dugu. Izan ere, izatez, aditz hauek objektu mugatuak dituztela nabarmena da. Beste era batera ikusita, aditz hauen semantika, zehatz samarra dela esan dezakegu. Hala, *jan*-ek jangarri den zerbait onartuko du, *edan*-ek edangarri den zerbait, *irakurri*-k irakurgarri den zerbait, *marratzu*-k marrazgarri den zerbait, etab. Esan dugun bezala, objektu horrek aditzaren erabileran tipikoa den zerbait adirazten duela dio Levinek. Ekar ditzagun hona bere hitz zehatzak:

Despite the lack of overt direct object in the intransitive variant, the verb in this variant is understood to have as object something that qualifies as a typical object of verb; however, there is some discussion concerning how best to characterize this interpretation.

33. orr.

Hau da, objektu inespezifikatuaren izaera guztiz definituta ez dagoela onarturik ere, “objektu tipikoa” aipatzen du Levinek. Beraz, gakoa, objektu inespezifikoko tipiko hori zehaztean leutzake. Vázquez et al.-ek (2000) objektu inespezifikoko hori tipikoa baino orokorra dela esaten dute; hala, aditzak onar ditzakeen objektuak edo objektu orokor honen hiponimoak dira, edo zehaztasunen bat ematen duen modifikatzaileraren bat:

Los objetos que participan en la alternancia de infraespecificación se caracterizan por aparecer subespecificados, ya sea porque se ha utilizado un hipónimo (en (155a), *chocolate* es hipónimo de *comida*) o porque van acompañados de un modificador (en (155b), *muy sabrosa*):

- (155) a Julia comía chocolate
b Julia comía una comida muy sabrosa

130. orr.

Autore hauek diotenarekin jarraituz, ez da ohizkoa objektu orokor hiperonimo hau sintaktikoki gauzatzea, semantikoki ez-arrunta gertatzen delako:

Así la aparición del objeto genérico da lugar a oraciones semánticamente anómalas, como es el caso de (156):

- * (156) Julia comía comida

130. orr.

Aditz baten objektu orokor edo hiperonimo hau zein den jakitea izango da gakoa orduan; hori, ordea, ez da lan erraza. Halako erlazio semantikoak dituzte aztergai, besteak beste, hiztegi gintza eta lexikografia lanetan diharduten ikertzaileek. Ixa taldean bertan, Sarasolaren *Euskal Hiztegia* oinarri hartuta, halako harreman semantikoak aztertzen eta definitzen

dihardugu, Wordnet-en (Fellbaum, 1998) moduko euskarazko sare semantikoa eraikitzeke urrats garrantzitsu gisa. Azterketa hauek oso interesgarriak eta lagungarriak izango dira inespezifikazioaren ikuspegi honetatik. Hala, kasu hauetan hiperonimoa edukita, honen azpian leudekeen objektuak aditz horretarako baliagarri izango lirateke; eta era berean, objektu-aukerak murriztuko lituzke.

Halere, aipatu behar dugu, Levinek zerrendatzen dituen aditzen artean kasuistika desberdina dugula, bederen, euskarari gagozkiola. Eta objektu desagertze honetan fenomeno desberdinek hartzen dutela parte (beti ere objekturik desagertzea posible den kasuetan, ikusiko dugun bezala, ez baita kasu guztietan hala).

Hasteko, bada gauza ageri bat: hauetako aditz asko eta asko euskaraz hitz bat baino gehiagoz —hau da, aditza gehi beste osagai sintagmatikoren batez— itzuli beharra dago ingelesezkoaren adiera zehatza emateko.

Osagai sintagmatiko horietatik batzuek *tresna* adierazten dute:

crochet → ‘gakorratzez egin’;
chop → ‘aizkoraz moztu, txikitu, xehatu’;
sweep → ‘erratzaz garbitu’,
type → ‘idazmakinaz idatzi’ (hala ere, ‘pikatu’ ere badugu (Ipar));
vacuum → ‘xurgagailuz garbitu’;
whittle → ‘zizelez/labanaz landu’.

Horien alboan, halere, badira osagai hori aditzaren barruan dutenak:

iron → ‘plantxatu’;
mow → ‘segatu’;
plow → ‘goldatu’;
sculpt → ‘zizelatu’;
sweep → ‘erratzatu’.

Beste osagai sintagmatikoak orotarikoak dira:

bake → ‘labean egin’;
dust → ‘-i hautsa kendu’;
hum → ‘ahopetik kantatu’;
nurse → ‘-en erizain izan’;
polish → ‘-i dizdira atera’.

Beste askok, ingelesez bezala, objektua beharrezkoa dute adiera hori jaso ahal izateko, esate baterako:

clean → ‘arraina, oilaskoa... garbitu’;
clear → ‘bikorrak kendu’;
cook → ‘haragia... prestatu, egin’....

Horrelako askok, ordea, euskaraz ez dirudite adiera “berezia” edo egina dutenik. Baina badira, halere, objektuarekin batera adiera “egina” jaso dutenak; esaterako:

fish → ‘arrantza egin’;
knit → ‘puntua egin; gakorraz-lana egin’;

Azkenik, badira, ingelesez bezala, objektua dirudiena bere baitan dutena:

embroider → ‘brodatu’;
hunt → ‘ehizatu’.

Beste aditz batzuk, ordea, inongo osagairik gabe itzultzen direlarik, ez dirudi beren baitan bestelako osagairik dutenik, behintzat, osagai garbirik; esaterako:

drink (‘edan’);
eat (‘jan’);
read (‘irakurri’);
sow (‘erein’);
study (‘ikasi’, ‘estudiatu’);
knead (‘oratu’);
mend (‘pasaratu’).

Kasuistika hau guztia ikusita, orduan, zera esan genezake “objektuaren izaera” aztertu dugun atal honen laburpen gisa:

- Ingeleserako zerrendatzen diren zenbait aditzek ez dute euskaraz zentzu handirik, euskaraz ez dutelako adiera eginaren maila jaso. Horiek, beraz, ez dira kontuan hartzekoak.
- Adiera egin jakin baterako objektua beharrezkoa duten aditz horiek (adib. *haragia prestatu*) objekturik gabe azaltzea, hau da, hemen planteatzen den alternantzia inespezifikoan agertzea, euskaraz behintzat, ezinezkoa dela dirudi. Bide batez, esan dezagun, kasu berbera genukeela oinarri dugun barne-txostenean euskarazkotzat onartu ez dugun 1.2.2 alternantzian topatzen dugun fenomeno. Alternantzia honetan ageri zaigun adibideko aditzaren euskarazko ordaina lortzeko (*to flosse*, ‘zetazko hariz garbitu’), ingelesez aditzaren baitan ageri den *tresna* osagaia, euskaraz, elementu sintagmatiko independente gisa adierazi behar dugu, eta berez ez du semantika berezirik (*hariz garbitu*-k, *garbitu*-ren beste gauzapean sintaktiko bat baino ez dirudi; eta bestalde,

hortzak objektua du beharrezko adiera horretan). Horrela izanik, euskaraz, horrelako kasuetan, ez dago inespezifikazio-aukerarik.

- Objektua ez den osagai sintagmatiko batez lagunduriko aditzen kasuan, berriz, esan dezakeguna da laguntzen duten aditzaren adiera “zabalagoa” mugatzen dutela, eta horren ondorioz, objektu-aukerak ere beharbada murrizagoak izan daitezkeela.
- Objektua bere baitan duten aditzen kasuan, berriz, ezin izango da objektuaren inespezifikazioaz hitz egin, gure ustez. Alderantziz, delako aditz hori objekturik gabe azaltzea izango da arruntena. Ordea, objekturik onartzen badute, objektu horren espezifikazioa izango da, eta hala izanik ez da edonolakoa.
- Hain zuzen ere, horrelakoak dira (alegia, objektua lexikoki txertatua dutenak), Levinek Objektu *cognate*-dun egituran (7.1) (*Cognate Object Construction*) zerrendatzen dituen aditz gehienak, nahita objektu inespezifikoaeren alternantziatik bereiz aztertu dituenak. Hona alternantzia:

Adib.

Ing. Sarah smiled / Sarah smiled a charming smile /?? Sarah smiled a smile

Eusk. Sarah-k barre egin zuen / * Sarah-k barre xarmagarri bat barre egin zuen /
* Sarah-k barre bat barre egin zuen

Ing. Sarah sang / Sarah sang a ballad / Sarah sang a song

Eusk. Sarah-k abestu zuen / Sarah-k balada bat abestu zuen / Sarah-k abesti bat abestu zuen

Eta ikus bestetik, alternantziaren baitan zerrendatzen dituen zenbait aditz:

bark ‘zaunka egin’, *fish* ‘arrantza egin’, *jeer* ‘iseka egin’, *growl* ‘marmar egin’, *dream* ‘amets egin’, *moan* ‘kexuka/erostaka esan’, *sing* ‘kantatu, abestu’, *laugh* ‘barre egin’, *chortle* ‘gustura barre egin’, *cough* ‘eztul egin’, *cry* ‘negar egin’, *whistle* ‘txistu egin’, *boogie* ‘boogia dantzatu’, *dance* ‘dantzatu’ ‘dantza egin’, *think* ‘pentsatu’...

Ikusten dugun bezala, *cognate*-dun egitura hau planteatzerakoan, objekturik gabeko egituratik abiatzen da, eta gero jarraian jartzen ditu a) objektu *cognate*-dun egitura – alegia, aditzak bere baitan duen izena sintaktikoki gauzatua– eta b) objektu *cognate*-aren modifikazio bat litzatekeen beste egitura bat. Hau da, inespezifikazioan ez bezala, abiapuntuko egitura objekturik gabea da eta bigarren aldaeran objektu bat eransten da. Inespezifikazioan, berriz, objektudun egitura batetik abiatzen da, eta bigarren aldaera objekturik gabea da. Aldiz, aditzak aipatzerakoan, batean eta bestean, objektu *cognate*-dun eta *cognate*-gabeak zerrendatzen ditu (esaterako, inespezifikazio-egituran, *arrantzatu/arantza egin*, edota *gakorratza egin* modukoak sartzen ditu).

Honek, gure ustez, nahaste bat sortzen du. Izan ere, *cognate*-dun egituran argi eta garbi esaten da *cognate* hori aditzak bere baitan duen objektuari erreferentzia egiten diola. Inespezifikazioaren kasuan, berriz, denetarikoak nahasten ditu, eta orduan objektuaren inespezifikazio kasuzat jotzen dituenen artean, objektua aditzaren baitan ageri diren kasuak ere jartzen ditu. Halere, errepara diezaiozun Levinek *cognate* hauek azaltzerakoan erabiltzen duen terminologiari. Ikus daitekeen bezala, Vázquez et al.-ek (2000) inespezifikazio-kasuetarako erabiltzen duten hiperonimo—hiponimo erlazioa aipatzen du:

Some basically intransitive verbs take as their object a noun that is zero-related to the verb—a so-called “cognate object.” Usually, the cognate object itself does not appear to make a contribution to the meaning of the sentence. However, cognate objects are best when they are modified by an adjective or other modifier, and the modifier makes a contribution to the meaning of the sentence: the modifier functions rather like an adverbial. Most verbs that take cognate objects do not take a wide range of objects. Often they only permit a cognate object, although some verbs will take as object anything that is a hyponym of the cognate object.

95–96. orr.

Alegia, alternantzia honetan sartzen ditu izenetiko aditz guztiak, izen hau jotzen duelarik *cognate*-tzat; objektuak posible direnean, berriz, *cognate* horren hiponimoak izan ohi direla dio. Eta hau azken batean, inespezifikazio-kasuetan esan dugunaren antzekoa dugu. Beraz, garrantzitsuena dirudi jakitea, gauzatu daitekeen objektu horrek zein murriztapen dituen aditzarekiko. Jakina, aditzean bertan baldin badago objektua, hiperonimia—homonimia erlazio hori agerikoa izango da; ez badago, horixe da bilatzen saiatu beharko garena. Ikusten dugunez, Levinek *cognate*-dun egituraren barruan zerrendatzen dituen aditzen artean, asko ‘iz. + egin’ modukoak dira euskaraz. Horrelako aditzek, ez dute oro har inolako objekturik onartzen; objektua, aditzarekin batera unitate bat osatzen duen arren, sintaktikoki existitzen da egituran, eta hortaz ez dago beste inongo objektuentzako lekurik⁵. Objektu berori modifikatuta lortzen da esanahiaren aldaketa hori, baldin eta modifikatzerik baden: ? *Sarah-k barre eder bat egin zuen*. ‘iz + egin’ egitura ez dutenak, berriz, jokamolde laxoagoa dute oro har: *dantzatu*, *pentsatu*...

Honekin esan nahi duguna da, hizkuntza desberdinetan, adiera bera, modu desberdinean gauzatzen dela sintaxiari begira: batzuetan objektua bi hizkuntzetan dago pieza lexikalaren barruan (*dance* / *dantzatu*, *sing* / *abestu*, *fish* / *arrantzatu*...); baina beste batzuetan hizkuntza batean pieza lexikal bakarrean dagoena bestean bitan —edo gehiagotan— adierazi behar da, eta ondorioz, egitura sintaktikoak desberdinak dira,

⁵ Lanean aipatua izan den bezala, halere, honelako aditz konposatuak —eta bestelako hitz anitzeko unitate lexikalak— aztergai ditugu, eta beraz, guk ez dugu hauetan gehiegi sakonduko.

hizkuntza batean zehaztasun semantiko horiek dituen aditzik badelako eta bestean ez, eta hain zuzen ere, objektuak agertu behar duelako aditzaren esanahia espezifikatzeko (*kozinatu / janaria prestatu; chortle / gustura barre egin...*); hizkuntza batetik besterako desberdintasun hauek jartzen dituzte agerian, hain zuzen, aditz jakinen zehaztapen semantikoak; *kozinatu* oso zehatza dugu; *prestatu*, aldiz, orokorragoa da, eta *kozinatu*-ren adierara iristeko *janaria* behar du; honek erakutsiko digu, era berean, *kozinatu*-ren “objektu hiperonimoa” *janaria* dela, eta bi aditzok, erabilera zehatz horretan, jakina, hiponimo berak onartu ahal izango dituztela.

Horrelako kontuak aztertzea, dena den, hizkuntza desberdinek gauzak kontzeptualizatzeko dituzten joerak eta baliokidetzak aztertzea litzateke, eta hau ez denez gure eginkizuna, ez dugu honetan gehiago sakonduko. Levinek 1.2.1 sailean planteatzen dizkigun inespezifikazio-kasuak eta objektu *cognate*-dun aditzen egituran ageri zaizkigunak, besterik gabe aditzaren murriztapen semantikoen baitan daudela azpimarratu nahi dugu, *cognate*-en kasuan murriztapenak sintaktikoak ere izan daitezkeelarik (‘iz + egin’ aditzak kasu).

Inespezifikazioaren alternantzia ikusitakoak laburbilduz:

- Levinek planteatzen dituen inespezifikazio-kasuak aztertzeko, lehenik eta behin elipsiaren eta inespezifikazioaren arteko desberdintasuna ikusi dugu. Elipsi pragmatikoa, objektu jakineko inespezifikaziotzat har daitekeela ere aipatu dugu. Horiek guztiak, halere, batzuetan nahasgarri gerta daitezkeela agerian gelditu da.
- Bestetik, objektu orokorreko inespezifikazio-kasuak esaldiko osagaien mintzaira-egiturarekin zein aspektu kontuekin oso lotuta daudela ere azpimarratu dugu.
- Hizkuntzek kontzeptu bera adierazteko gauzapean sintaktiko desberdinak erabiltzen dituela, eta hortaz, alternantziak ezin direla berdin aplikatu ikusi dugu. Areago, batzuetan hizkuntza batean aurkitzen dugun kontzeptua ez dago bestean.
- Inespezifikazioaren aldean, espezifikazioa ere ikusi dugu, aditzak bere baitan duen objektuaren (objektu *cognate*-aren) modifikazio modura.
- Objektu inespezifikazioaren alternantziaren eta objektu *cognate*-aren alternantziaren arteko bereizketa azken honetan objektua lexikoki aditz-piezan txertatua egotean datzala esan dugu (eta horrek, aldi berean, baldintza sintaktikoak gehiago murrizten dituela ere). Baina nolana ere inespezifikazio-egituran ulertutzat ematen den objektu orokorraren eta fonetikoki adierazitako objektuaren artean dagoen harremana, *cognate*-aren eta honen zehaztapena edo modifikatzailea den objektuen artean dagoenaren antzekoa dela ere ikusi dugu: hiperonimia-hiponimia mailakoa alegia. Hala ere, izenetiko aditza den (alegia,

cognate batez osatua) edo ez jakitea kontu irristakorra izan daitekeela ere argitan jarri dugu.

- Oro har, objektu orokorreko inespezifikazio nahiz objektu *cognate*-aren alternantzietan parte hartzen duten aditzek objektu mugatuak onartzen dituztela ikusi dugu, horrek semantikoki mugatuagoak bihurtzen dituelarik. Leinen (1993) nahiz Vázquez et al.-en (2000) lanetan adierazten denez, eta oro har ere onartzen denez, jarduerazko aditzekin ageri ohi dira alternantziok.

1.2.2 Objektu ulertutzat gorputz-atala duen alternantzia (Understood Body-Part Object alternation)

Adib.

Ing. I flossed my teeth / I flossed

Eusk. Hortzak setazko hariz garbitu nituen / setazko hariz garbitu nituen

Alternantzia hau erakusten duten aditzek, gorputz-atal jakin batekin egiten den konbentziozko keinu bat deskribatzen dute. Aldaera iragankorraren objektua, gorputz-atal hori da, hain zuzen. Iragangaitzean, berriz, gorputz-atal hori ulertutzat ematen da eta ez da sintagmatikoki gauzatzen. Zenbait aditzek gorputz-atal bat baino gehiago onartzen dute, baina gehienak bakarrera mugatzen dira.

Euskarari dagokionez, goiko alternantzia azaltzerakoan egin diogu erreferentzia eskuarteko honi, eta esan dugun bezala, adibidean ezarrita dagoen aditza hartuta aztergai bederen, euskararen eta ingelesaren joerak desberdinak dira. Alde batetik, euskarazko ordain iragankor nahiz iragangaitzean, ingelesezko aditzean barruan dagoen osagai semantikoa, euskaraz sintaktikoki gauzatua ageri zaigu; hau da, ingelesezko aditzak, adierazten den ekintzarako baliatu den *tresna* barruan du, euskarazkoak, berriz, ez. Bestetik, euskaraz gorputz-atal bati dagokion ekintza erreflexiboa adierazteko, ez du inongo adierazpide morfologikorik erabiltzen (ingelesez hortxe dugu izenordain posesiboaren presentzia), baizik eta aldaera iragankor arruntaren egitura bera jarraitzen du, objektua beti ere gorputz-atala delarik. Orduan, alde batetik, *tresna* aditzaren baitan ez egoteak, eta bestetik, erreflexibotasuna adierazteko egitura iragankor arruntaren eta gorputz-atalaren presentziaren bidez egin behar izateak, ezinezkoa bihurtzen du inespezifikazioaren aukera. Kasu hauetan, objekturik ezean, elipsi arruntaren aurrean geundeke.

Aldiz, talde honetan zerrendatuta dauden beste aditz batzuk hartzen baditugu, fenomeno gehiago ageri zaizkigu. Esaterako, *txalotu* eta *kliskatu* aditzak hartuz gero, ingelesarekin parekatuz, biak ere desberdin jokatzen dutela ikusten dugu:

Adib.

Ing. I clapped my hands / I clapped

Eusk. *Eskuak txalotu nituen / txalotu nuen

Adib.

Ing. I blinked my eyes / I blinked

Eusk. Begiak kliskatu nituen / *kliskatu nuen

Txalotu-ren kasuan, aldaera iragankorrean, *eskuak* ez da beharrezkoa, eta areago, okerra dela esango genuke. Hau da, dirudienez, *txalotu*-k ezin du adiera erreflexiborik onartu eta besterik gabe, ‘eskuen bitartez egindako mugimendu baten ondoriozko hotsa egitea’ adierazten du, hots hori adierazten duen hitza dela aditzak bere baitan hartu duen objektua (*txalo*)⁶. *Kliskatu*-k, aldiz, *begiak* behar du alboan derrigor, eta ‘klisk moduko “hotsa” eginez norbere begiak mugitzea’ adierazten duela dirudi. Alegia, aldaera objektuduna da erakusten duen bakarra. Hala, objekturik gabeko aldaera zehaztugabea ezinezkoa da. Esan dezagun, bidez batez, objektu bakar hau hartzeak Hitz Anitzeko Unitate Lexikalaren (HAUL) izaerara hurbilarazten duela, *kliskatu* ordez, azken batean, *begiak kliskatu* modura zehazten baitugu aditz osoa. Hain zuzen ere, hau izan ohi da hitz anitzeko unitate lexikalak halakoxetzat hartzeko arrazoietako bat.

Beraz, adibide hauek erakutsi digutenez, euskaraz ezinezkoa da gorputz-atala objektu jakintzat emandako aldaera iragangaitza eratzea, hain juxtu, ezin baitira objektu gabe azaldu. Beraz, atal honi dagokionez, alternantzia hau euskaraz ez zaigula ageri esango dugu.

1.2.3 Objektu ulertutzat izenordain erreflexiboa duen alternantzia (Understood Reflexive Object Alternation)

Adib.

Ing. Jill dressed herself hurried / Jill dressed hurried

Eusk. *Jillek bere burua azkar jantzi zuen / Jill azkar jantzi zen

Alternantzia hau onartzen duten aditzen aldaera iragangaitzak, aditzaren subjektuari zuzenduta dagoen ekintza bat adierazten du; alegia, aditzak adierazten duen ekintzaren egilea eta jasalea argumentu berbera da; bi hitzetan esanda, ekintza erreflexibo bat adierazten du. Hala, erabilera iragankorra, izenordain erreflexibo bat erantsiz osatzen da besterik gabe.

Euskararaz, zentzu erreflexiboa, adizki iragangaitzaren bidez adierazten da, eta hala izanik, egitura iragangaitza berez balio erreflexibokoa bada, izenordain erreflexibodun

⁶ Ohartarazi behar dugu, *txalotu*-k Sarasolaren *Euskal Hiztegia*-n ‘zerbait ospatzea’ren balioa duela bakarrik. Kasu honetan ez genuke ‘hotsa egitea’ren ekintza soila izango, baizik eta ekintza horren bidez zerbait ospatzearena; hau da, oinarritzko esanahia ez litzateke hotsa adieraztea, baizik eta ospatzea. Dena den, Levinek alternantzia honetan aztertzen duenera mugatuko garenez, alde batera utziko dugu erabilera hau.

aldaera iragankorra ez da oso naturala gertatzen. Hortaz, alternantzia hau euskaraz ez dagoela esango dugu.

1.2.4 *Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia* (Understood Reciprocal Object Alternation)

Adib.

Ing. Anne met Cathy / Anne and Cathy met

Eusk. Annek Cathy topatu zuen/ Anne eta Cathy topatu ziren

Alternantzia iragangaitzak ekintza erreziproko bat adierazten du hemen, eta hala izanik, *each other* ('bata eta bestea', 'elkar') izenordain erreziprokoak erabiliz eta aditza modu iragankorrean jarrita parafrasea litekeela diosku Levinek. Ekintza erreziprokoa denez, aldaera iragangaitzaren subjektua plurala da, hain zuzen ere aldaera iragankorrean subjektua eta objektua diren biak; eta bestetik, estatus berekoak izan behar dira. Adib. *meet* ('topatu') aditzeko bi argumentuak bizidunak izan behar dira, eta ekintza egiteko gaitasuna izan behar dute.

Levinek aldaera erreziproko iragangaitz hori 'bata eta bestea' izenordain erreziprokoak erabiliz eta aditza modu iragankorrean jarrita parafrasea litekeela dio. Euskaraz, ordea, hau ez da hain erregularra eta ziurra, badirelako aditz batzuk erreziprokotasuna bakarrik baliabide batez —aditz iragangaitzez edo izenordain erreziproko eta aditz iragankorrez— onartzen dutenak, eta beste batzuek bietara. Alternantzia hau, hortaz, euskarari dagokionez, erreziprokotasuna aditz iragangaitzez egin dezaketan aditzetara mugatuko litzateke, lehenik eta behin.

Horregatik, gure ustez, alternantzia honetan balio erreziprokoa duen egitura sintaktiko iragangaitz bat, egitura iragankor arrunt batekin jartzen da parez pare, egitura iragankor horretako osagaiak egitura erreziproko osagaien baliokide direla (hau da, estatus berekoak eta ekintza egiteko gaitasuna dutenak). Honenbestez, alternantziarako erabiltzen duen izena ez zaigu iruditzen egokia denik.

Hemen, azken batean, interesgarriena da aztertzea zein aditzek erakusten dituzten alternantziako bi aldaerak.

Levinek alternantzia honetan parte hartzen duten aditzen artean, *dibortziatu*, *ezkondu*, *borrokatu*, *eztabaidatu*, *bisitatu*, *aurkitu*, *topatu*, *jokatu*, *jolastu*, *besarkatu*, *lausengatu*, *atera*, *musukatu*, *laztandu*, *nagusitu*, *jarraitu*, *zeharkatu*, *gurutzatu*... modukoak zerrendatzen ditu. Euskaraz, ordea, guztiek ez dute tratatzen ari garen alternantzia onartzen; *borrokatu*, *topatu*, *besarkatu*, *musukatu*, *laztandu* dira, gure ustez, bi egiturak onartzen dituztenak; gainontzekoek bakarrik aldaeretako bat onartzen dute. Esaterako, *gurutzatu*-k aldaera iragangaitza bakarrik onartzen du; *lausengatu*-k bakarrik aldaera iragankorra.

Ezkondu eta *dibortziatu*-ren kasuan argi dago, aldaera iragangaitzeko partaideak izan arren “elkarren artean” “ezkontzen” edo “dibortziazten” direnak, ekintza bera burutzen duena hirugarren pertsona bat dela; horrexegatik, aditz hauen egitura iragankorra irudikatuko bagenu, batetik, subjektu bat izango genuke, eta bestetik objektu plural bat, ekintza bi partaideengan —eta ez bakarrarengan— egiten den seinale; baina beti ere objektu plural horrek erakutsiko luke ekintza erreziprokoa (adib. *Osaba apaizak nire lagunak ezkondu ditu*).

Beraz, esan genezake, euskaraz, alternantzia hau onartzen duten aditzek ingelesez baino murriztapen gehiago jartzen dituztela. Alternantzia honetan parte hartzeak aditzaren semantikak dakartzan inplikazioak, ordea, ez ditu Levinek aipatzen; ez dituelako beharbada. Arrazoiak argiak eta sendoak ez diren bitartean, hortaz, aditz batzuen kasuan kontuan izan beharreko aukerazko egitura sintaktiko gisa hartu behar ditugu, besterik gabe.

1.2.5 *PRO* arbitrarioaren alternantzia (PRO-arb Object Alternation)

Adib.

Ing. That movie always shocks people / That movie always shocks

Eusk. Film horrek beti harritzen du jendea / Film horrek beti harritzen du

Aldaera iragankorra, objektuaren lekuan *one* (‘bat’), *us* (‘gu’) edo *people* (‘jendea’) ezarrita lortzen da, interpretazio arbitrario horren lekuko. Berezitasuna, *objektu afektatua* duten aditzek bakarrik onartzen dutela da. Hala izanik, beste atal batean aterako zaizkigun aditz psikologiko ia gehienek onartzen dutela dirudi.

Hemen abiapuntutzat hartzen den egiturak, elementu orokor bat (‘jendea’) izanik objektu modura, zentzu orokor bat ematen dio aditzaren ekintzari, ekintza bera nabarmenarazten duelarik. Horretarako, inespezifikazio-kasuetan ikusi dugun bezala, subjektua mintzagai hanpatu gisa dago, eta aditza bera galdegai bihurtzen da; eta horretaz gain, ohizkotasuna adierazten duten bestelako elementuak ageri dira (*beti, ohi, izan*). Horrela, *jende*-dun egitura *jende*-rik gabeko egituratik desberdina ez dela esan genezake; hau da, batean eta bestean nolabaiteko inespezifikazioa adierazten da, batean objektu afektatu inespezifikoa lexikoki agertzen dela eta bestean ez.

Hori dela eta, alternantzia hau ez dugu kontuan hartuko.

1.2.6 Ezaugarri arrunten alternantziak (Characteristic Property Alternations)

Bi azpimultzo egiten ditu hemen. Biotan, subjektuak aditzak adierazten duen ekintzarekiko joera du edo horretarako egokia da. Batean subjektu hori agentea da, eta bestean instrumentua.

1.2.6.1 Agentearen ezaugarri arruntaren alternantzia (*Characteristic Property of Agent Alternation*)

Adib.

Ing. That dog bites people / That dog bites

Eusk. Zakur horrek jendeari hozka egiten dio / Zakur horrek hozka egiten du

Aldaera iragankorrean zein iragangaitzean subjektuak aditzak erakusten duen ekintzarekiko joera duela adierazten da; hau da, ekintza bera subjektuaren ezaugarri bat izan ohi da; adibideari jarraiki, “hozka egitea” “txakurraren” ezaugarri bat da nolabait. Subjektuak, halere, ez du biziduna izan behar. Levinek dioenaren arabera, aldaera iragangaitzean ulertutzat ematen den objektua *people* (‘jendea’) gisa interpreta daiteke.

Levinek alternantzia honetan parte hartzen duten aditzen artean zerrendatzen dituen asko eta asko konposatuak dira euskaraz; esaterako, *azkura eman, ostikoa eman, atximur egin, atzamar egin, talka egin...* Hau da, ulertutzat ematen den “objektu” hori euskaraz kasu datiboan (*jendeari*) agertzen da (normalean; izan ere *talka egin-ek -en kontra*-edo hartuko luke datiboaren orde), eta berezko objektua, berriz, aditzaren baitan topatzen dugu. Hala izanik, osagai honek objektuaren eitea baino datiboak adierazi ohi dituen hartzaile edo helburuarena du. Aditzak konposatuak ez direnean, eratorriak izan ohi dira: *ostikatu, atximurkatu, atzamaratu, eztenkatu, haginkatu, ziztatu*. Eta hauetan, hain zuzen ere, objektuaren lekuan ageri denak du helburu edo hartzailearen balioa “objektua” aditzaren baitan dagoelako. Bada, azkenik, zerrendatutakoen artean *itsatsi* aditza. Honetan, aurrekoetan ez bezala, objektua (hartzaile ez dena) da aldaera batetik bestera desagertzen dena, *zelo honek ez du itsasten* adibideak erakusten digunez. Joera beroni jarraituz, Levinek zerrendatzen ez dituen beste aditz batzuek ere izan lezakete lekua hemen, hartzen den subjektuaren arabera: *mahai honek ez du eusten, altzairu honek markatu egiten du...*

Objektu orokorraren inespezifikazio-kasuetan ikusi dugun bezala, lehenik eta behin egitura markatu batean agertzen da subjektua, mintzagai funtzioan, alegia. Eta ondoren, subjektu horren gaitasunaz egiten da “iruzkina”, horretarako aditza ohiko forma batean agertzen delarik. Hortaz, alternantzia honetan goikoetan ikusi ditugunekin alderatuta, subjektuak aditzarekiko duen izaera da aldatzen dena, ez egitura bera. Bestetik, alternantzia honek erakusten digu “inespezifikazioa”, euskaraz, “objektu hartzaileekin” nahiz “zehir-objektu hartzaileekin” gerta daitekeela.

1.2.6.2 Instrumentuaren ezaugarri arruntaren alternantzia (*Characteristic Property of Instrument Alternation*)

Adib.

Ing. This knife cuts the bread / This knife doesn't cut

Eusk. ?Labana honek ogia mozten du / Labana honek ez du mozten

Alternantzia iragangaitzak ekintza jakin baterako instrumentu batek duen egokitasuna adierazten du. Autoreak ez du 1.2.6.1arekin batu, alternantzia honetan derrigorrezkoa izan ohi delako instrumentua eragiten duen agente bat. Hori dela eta, instrumentua beharrezkoa duten mota askoko aditzekin ageri da, eta horregatik ez da erraza multzoa mugatzea.

Euskaraz, hain zuzen ere, arrunki ekintza jakin baterako erabiltzen den instrumentua subjektua deneko aldaera, bitxi samarra gertatzen da; askozaz ohikoagoa da instrumentua egitura iragangaitz inpersonal batean kasu sozietibo edo instrumentalaz agertzea (adib. *ogia laban honekin mozten da*), edota egitura iragankor batean baina tresnaren balioa bera deskribatuz (adib. *labana honek ogia mozteko balio du*).

Hala ere, gure ustez hemen aurkezten den egitura eta arestian aztertu denaren artean ez dago berez alderik, eta desberdintasuna subjektuaren izaeran datza. Izatez, Levinek hemen zerrendatzen dituen aditz asko, goiko sailean ere aipatzen ditu, hala nola, *atximurkatu*, *ziztatu*, *atzamarkatu* eta *eztenkatu*. Gainontzekoak, hauexek: *triskilatu*, *kozinatu*, *moztu*, *mailukatu*, *grabatu*, *ogia zatitu*, *idatzi*; hauetako batzuek, euskaraz, ez dute, gainera, inespezifikazio-egitura onartzen.

Desberdintasunik egotekotan, desagertzen den osagaien legoke: subjektua tresna denean, desagertzen dena beti objektu arrunta da; goikoan, berriz, objektuak helburuaren eitea du; aditzak ere desberdinak diren seinale. Guztiarekin ere, egitura hau euskaraz ere agertzen dela esan daiteke.

1.2.7 Way-dun objektuaren alternantzia (*Way Object Alternation*)

Adib.

Ing. They pushed their way through the crowd / They pushed through the crowd

Eusk. *Haiek euren bidea jendearen artean bultzatu zuten / ?Haiek jendearen artean bultzatu zuten

Antza, ingelesez asko dira, norabidezko sintagma batez lagunduta, *way-dun* objektua onartzen duten aditzak. Halere, dirudienez erabilera iragangaitza da normalena, hain zuzen ere *way-dun* objektua erantsiz iragankor gisa beti parafrasea daitekeena.

Euskaraz, argi dagoenez, ez dago horrelako alternantziarik.

1.2.8 Instrukziozko inperatiboa (Instructional Imperative)

Adib.

Ing. Bake the cake for 30 minutes / Bake for 30 minutes

Eusk. Eduki opila labean 30 minutuz / Eduki labean 30 minutuz

Alternantzia hau, ikusten denez, modu inperatiboari dagokio; hortaz, ez da agertuko inperatiboa onartzen ez duen inongo aditzekin. Autoreak dioskunez, alternantzia hau objektu afektatua/jasalea duten aditz askorekin topatzen da. Alternantzia hau onartzen duten aditzek, normalean objektu inespezifiko erreziproko nahiz erreflexiboko alternantziak ere onartzen dituzte. Agerian ez den objektu horren interpretazioa testuinguruak zehazten du, eta, normalean, interpretazioa zehatza da, hau da, elipsi arrunt batena.

Elipsia eta inespezifikazioa azaldu ditugunean ikusi dugun bezala, eta alternantziaren beraren azalpenean adierazten denez, egitura honek ez duela elipsi arrunt bat baino adierazten; alegia, bere osagai semantikoen aldetik ez du berezitasunik erakusten, bi aldaerak berdinak baitira.

Hemen aurkezten den alternantziak, beraz, ez du aparteko zentzurik, beste elipsi kasu bat baino ez baita, eta horrexegatik ez dugu kontuan hartuko.

1.3 Alternantzia konatiboa (*Conative alternation*)

Adib.

Ing. Paula hit at the fence / Paula hit the fence

Eusk. Paulak hesian/-ren kontra jo zuen / Paulak hesia jo zuen

Alternantzia konatiboaren aldaera iragankorreko objektua, aldaera iragangaitzean agertzen den preposizio-sintagmaren objektua bihurtzen da; preposizio hau *at* izan ohi da, baina zenbait aditzekin *on*. Aldaera iragangaitzeko erabilerak, ekintza bat egiteko saiakera adierazten du, ekintza burutzen den ala ez zehaztu gabe geratzen delarik. Badirudi, alternantzia hau erakusten duten aditzek, mugimendu eta kontaktu osagaiak dituztela beren esanahian.

Euskaraz ikusten dugunez, alternantziako lehenengo aldaera ez da morfologikoki iragangaitza. Bestetik, zehazki, adibideko *jo*-ren kasuan, ez dirudi ekintza batekiko “saiakera”rik dagoenik; alderantziz, nahi gabe gertatzen den zerbait dela dirudi. Ordea, zerrendatuen arteko beste batzuk aztertzen baditugu, fenomeno desberdinak topatzen ditugu:

Adib.

Ing. Margaret cut at the bread / Margaret cut the bread

Eusk. *Margaretek ogian moztu zuen/ Margaretek ogia moztu zuen

Adib.

Ing. Paula pushed at/on/against the table / Paula pushed the table

Eusk. Paulak mahaiaren kontra bultzatu zuen / Paulak mahaia bultzatu zuen

Adib.

Ing. The mouse nibbled at/on the cheese / The mouse nibbled the cheese

Eusk. Saguak gazta hozkatu zuen / ?? Saguak gaztan hozkatu zuen (literal)

Saguak gaztari hozka egin zion (ordaina)

Hasteko, *moztu*-ren kasuan postposiziodun sintagmako aldaera ezinezkoa dela dirudi; *hozkatu*-ri dagokionez, berriz, alde batetik erabiltzen den kasua datiboa dela ikusten dugu, eta bestetik, aditza, forma konposatuan erabili beharra dagoela, bestela, ez baita ongi geratzen. *Bultzatu*-k, azkenik, *jo*-k bezalaxe jokatzen duela dirudi.

Semantikari erreparatzen badiogu, egia dirudi ekintzak mugimendua eta mugimendu horretan ukipena egotea adierazten duela; baina horretaz gain, objektu-entitatearen izaeraren berri ere ematen digu: tope bat suposatzen duen azalera minimoko entitate solidoa; hain zuzen ere, entitatea ez bada solidoa, ez zaigu alternantzia ageri (**ura/uraren kontra bultzatu/jo*). Ohar gaitezen, bestalde, euskaraz *borrokatu* aditzak ere ageri duela antzeko zerbait, *Orotariko Euskal Hiztegiko* adibideak lekuko: *Norbait jo, borrokatu edo arramaskatu dezu?* (Argi DL27) / *Moruen aurka borrokatzera joateko asmoa artu zun* (Etxde Alost 66).

Beraz, alternantzia hau erakusten duten aditzek mugimendua, ukipena eta entitatea azalera minimodun izakia izatea eskatzen dute. Eta euskaraz, dirudienez, askoz ere mugatuagoa da.

1.4 Preposizio-galtze alternantziak (Preposition Drop Alternations)

Hemen aurkezten diren alternantziaketako aldaera iragankorra, aldaera iragangaitzean osagarri den preposizio sintagmako preposizioa galdua osatzen da.

1.4.1 Preposizio lokatiboa galtzearen alternantzia (Locative Preposition Drop Alternation).

Adib.

Ing. Martha climbed up the mountain / Martha climbed the mountain

Eusk. Paula mendira igo zen / Paulak mendia igo zuen

Alternantzia hau, norabidezko preposizio-sintagma bat hartzen duten mugimenduzko zenbait aditzek erakusten dute. Hala izanik, aldaera iragangaitza norabidezko sintagma batez osatzen da, eta aldaera iragankorra, berriz, bidea, helburua edota batzuetan iturria adierazten duen objektu batez. Objektu honek, alternantzia lokatiboarekin (gero aztertuko dugunarekin)

lotuta dagoen efektu holistiko/partitibo deritzona duela esaten da; hau da, aditzak adierazten duena guztiz bete delako interpretazioa da ulertzen dena, batez ere objektua bidea eta helburua denean (“mendia igotzea” mendira igo eta jaistea esan nahiko luke, ez bakarrik igotzea).

Euskaraz agertzen dela esango dugu. Hala ere, Levinek zerrendatzen dituen aditz guztiek ez dute joera bera erakusten: *igo, jaitsi, zeharkatu, saltatu, hegan egin, korri egin, eskiatu, bizikletaz ibili...*

Aditzok, mugimenduzkoak izan arren, bere baitan duten informazioaren arabera, hartzen duen objektuak mugimendu horren zeharkaldia (bidea, Levinek dioen bezala) edo objektu arrunta adieraz dezake; eta horren arabera, preposiziodun sintagmak, edo besterik gabe helburua adieraziko du edota baita bide moduko zerbait ere. Ikus ditzagun kasuok:

Igo eta *jaitsi* aditzetan, oinarrian den izenaren arabera, objektua bidea izan daiteke. Levinek jarritako adibidean, mendia “zeharkagarria” da eta, ondorioz, aldaera iragangaitzean, *mendia*, bide gisa ulertzen da seguruenez, Levinek aipatzen duen zentzu holistikoan, hau da, mendia igo eta jaitsi egin delakoan. Aldaera iragangaitzean, postposizio-sintagma adlatiboduna denean, helburu gisa nahiz bide bezala uler daiteke, baina postposizio-sintagma ablatiboduna denean, bide gisa ulertzen da soilik:

Paulak mendia igo zuen / Paula mendira igo zen / Paula menditik igo zen

Jaitsi-ren kasuan, ordea, bidean etorria bakarrik ulertzen da, eta postposizio-sintagma ablatiboduna denean, bidea nahiz iturria adieraz dezake; adlatiboduna denean, berriz, helburu soila (bitxi samarra suertatzen delarik gainera, beti ere *mendi*-ren kasura mugatuta):

mendia jaitsi dut / menditik jaitsi naiz / mendira jaitsi naiz

Har dezagun, orain, *mendia* ez den beste objektu bat, bidea adierazten duena ere:

bidea igo dut / bidera igo naiz / bidetik igo naiz

bidea jaitsi dut / bidera jaitsi naiz / bidetik jaitsi naiz

Adibide hauetan ikusten dugunez, ablatibodun sintagmak beti bidea adierazten du, eta adlatibodunak, berriz, helburu soila, azken batean, *bidea* arrunki zeharkaldia izaten baita.

Jarri dezagun, azkenik, bidea izan ez daitekeen objektu bat, *mahaia* esaterako:

mahaia igo dut / mahaira igo naiz / mahaitik igo naiz

mahaia jaitsi dut / mahaira jaitsi naiz / mahaitik jaitsi naiz

Adibideotan *mahaia* objektu arrunt gisa ageri da, ‘mahaia norabait igo/jaitsi dudala’ adierazi nahi baita; hala, aldaera iragangaitzetan, adlatibodunak helburu hutsa eta ablatibodunak iturria (baldin eta ez den ageri testuinguru oso jakin batean, non *mahaia* jaisteko edo igotzeko baliabide gisa erabiltzen den) adierazten dute, eta ekintza gertatu ondoren “subjektua mahai gainean dagoela” edo “jada mahaian ez dagoela” aditzera ematen da.

Honen ondorioz, esan dezakegu *igo* eta *jaitsi* aditzekin objektuak bidea izateko gaitasuna duenean, adlatibodunak beti adieraziko duela zeharkaldia; objektua arrunta denean, berriz, helburuaren adierazle izango da (baldin eta ez den testuinguru zehatz batzuetan agertzen).

Levinek zerrendatzen dituen gainontzeko aditzek, ordea, ez dute alternantzia erakusten; eta areago, batzuk aldaeretako iragankorra bakarrik onartzen dute. Honela, esaterako, *zeharkatu*-k egitura iragankorra bakarrik onartzen du eta hartzen duen objektuaren interpretazioa beti da bide modukoa, *zeharkatu*-k berez ‘espazio bat alde batetik bestera – alegia, zeharka– pasatzea’ esan nahi baitu. Honenbestez, bide honen mugak zehaztuta daude, eta objektuak bidea mugatzen du; horren ondorioz, iturri eta helburuzko sitagmarik ez dirudi zilegi. *Saltatu*-k berriz, bi aldaerak onartzen ditu, baina hauen arteko erlazioa ez da alternantzia honetan planteatzen dena. Izan ere, objektudun aldaeran objektuak beti adierazten du bidea (*hesia/putzua saltatu*), baina hori bera kasu adlatiboarekin jarritz gero (hau da, aldaera iragangaitz gisa jarrita (*hasira/putzura saltatu*), helburua baino ezin du adierazi.

Hortaz, alternantzia honek mugimenduzko aditz hauetan bidea izan daitezkeen sintagmak jartzen dizkigu agerian. Baina, jakina, hauek halakoxeak izatea objektu gisa dagoen izenaren baitan eta hartzen dugun aditzaren ezaugarrien baitan dago.

1.4.2 With preposizioa galtzearen alternantzia (With Preposition Drop Alternation)

Adib.

Ing. Jill met with Sarah / Jill met Sarah

Eusk. Jill Sarahekin topatu zen / Jillek Sarah topatu zuen

Alternantzia hau, potentzialki erreziproko diren aditz-multzo txiki batek erakusten du. Aldaera iragankorraren esanahia eta *with*-dun sintagma preposizionaleko aldaera iragangaitzaren esanahia bertsua dela esan ohi da. Goiko alternantzian ez bezala, alternantzia hau ez dute erakusten mugimendua eta modua adierazten duten aditzek, baizik eta elkarrekintza sozial moduko bat adierazten dutenek. *With* preposizioa hartzen duten aditz gutxik onartzen dute preposizio galera hau (*battle*, ‘borrokatu’; *box* ‘boxeatu’, *consult*, ‘kontsultatu’; *debate*, ‘eztabaidatu’; *fight*, ‘borrokatu’; *meet*, ‘topo egin’, ‘topatu’; *play*, ‘jokatu’, ‘jolastu’; *visit*, ‘bisitatu’, ‘bisita egin’)

Euskaraz alternantzia hau badela esango dugu, baina Levinek zerrendatzen dituen aditzetako batzuek baino ez dute erakusten egitura-bikotea: *topatu* eta *borrokatu*-k. Honenbestez, ez dirudi elkarrekintza soziala adierazten duten aditzek erakusten dutela esatearekin nahikoa denik. 1.2.4 puntuan aztertu dugun alternantzian (Objektu ulertuzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia) ikusi dugunaren antzera, euskaraz, alternantzia hau onartzen duten aditzek murriztapen gehiago jartzen dituztela dirudi; arrazoiak, ordea, sakonago aztertu beharko lirateke.

2 AS barruko argumentuei dagozkien alternantziak (*Alternations Involving Arguments Within the VP*)

Bigarren sail nagusi honetan, ez da iragankortasunari lotutako aldaketarik aztertzen, alternantzia hauek erakusten dituztenak AS barruan argumentu bat baino gehiago duten aditz iragankorrak baitira berez. Alternantzia hauetan, orduan, AS barruko argumentu hauek modu desberdinetan gauzatzea onartzen duten aditzak topatuko ditugu.

Autoreak, ordea, horrelako aldaketak erakusten dituzten aditz iragangaitz gutxi batzuk ere badirela diosku. Aditz iragangaitz hauen subjektuak iragankorraren objektuaren rol bera duenean, orduan, erabilera iragankorraren egitura paralelo gisa ikus daitezke alternantziok. Aditz iragangaitz hauen azaleko subjektua sakoneko objektua dela onartzen badugu, hau da, azken batean aditz inakusatiboak direla, aldaera iragankor nahiz iragangaitzean ASren barruko argumentuen aldaketak gertatzen direla esan daiteke.

2.1 Alternantzia datiboa (*Dative alternation*)

Adib.

Ing. Bill sold a car to Tom / Bill sold Tom a car

Eusk. Billek auto bat saldu zion Tomi / Billek Tomi auto bat saldu zion

Ingelesez alternantzia hau oso aztertua dago, eta ezaugarria da aldaera batean *to* preposiziodun sintagma dena, bigarren objektua alegia, beste aldaeran preposizio gabeko lehen objektua dela.

Dirudienez, aditz gehienek, baina ez guztiek, jabetza-aldaketa adierazten dute, “jabetza”, modu zabal batean ulertuta. Antza, NP V IS *to* NP egituraren ageri diren latinetiko aditzek ez dute beste aldaera onartzen, eta jatorri hori jarri ohi dute zenbait autorek aldaera ez onartzearen arrazoi gisa, nahiz eta, salbuespenak direla eta, bestelako argudioen bila ere jo duten. Hori albo batera utzita, dena den, bada beste murriztapen bat: helburuaren rola betetzen duen sintagmaren izaera: dirudienez, izaki bizidun bat izan behar du, biziduntasun hau entitate edo elkarte izaera dutenetara hedatzen delarik.

Ingelesez hain aztertua den alternantzia honek, ordea, euskaraz ez du berezitasunik adierazten, sintagma baten posizio-aldaketa bat baino ez baita gertatzen, euskaraz perpauseko sintagmen artean fenomeno arrunta dena, jakina denez. Guk, hortaz, hau ez dugu alternantzia esanguratsu gisa hartuko, ikerketa hauek azpikategorizazioaz gaindiko beste plano bati baitagozkio.

2.2 Onuradunaren alternantzia (*Benefactive alternation*)

Adib.

Ing. Martha carved a toy for the baby / Martha carved the baby a toy

Eusk. Marthak jostailu bat zizelatu zuen haurarentzat / Marthak haurrari jostailu bat zizelatu zion.

Alternantzia hau alternantzia datiboaren oso antzekoa da. Diferentzia da onuradunaren adierazle den *for* preposizioa hartzen duela helburuaren adierazle den *to* beharrean. Alternantzia hau erakusten duten aditzak lortze eta sormenezkoak izaten dira, sorkuntza zentzu zabalean ulertuta. Esaten denez, onuradunaren alternantziako lehen objektua, ez da alternantzia datibokoa bezain “objektua” batzuetan.

Euskaraz badela esan dezakegu, nahiz eta Levinek jartzen duen adibidea ez den euskararako garbiena. Berak sormenezko edo lortzezko aditz deitzen dituenetako beste aditz (bakun) bat hartuz gero, are garbiago ikus daiteke. Adib:

Anderrek Asierri baloi bat lortu zion / Anderrek Asierrentzat baloi bat lortu zuen

Alternantzia honek euskarazko datiboaren izaera semantikoetako bat jartzen digu agerian, helburuzkoa.

2.3 Alternantzia lokatiboak (*Locative alternation*)

Alternantzia-sorta hau, alternantzia datiboa bezalaxe, autore askok aztertu izan dute. Substantziak azaleraren batean edota gauzak edukiontziren batean jartzea nahiz substantziak azaleraren batetik edota gauzak edukiontziren batetik kentzea adierazten duten aditzek erakusten dute. Clark & Clark-en (1979) terminologia segituz, alternantzia hauetako bi aldaeretan *locatum* argumentua eta *location* argumentua daudela dio Levinek; hau da, leku batetik bestera mugitzen den substantzia edo entitatea batetik, eta lekua bera bestetik. Ikusiko dugun alternantzia desberdinetan, aldaera batean objektu gisa gauzatzen dena, bestean preposizio baten objektu bihurtzen da. Erabilera iragangaitzen aurrean gaudenean, berriz, objektu gisa ez baizik eta subjektu gauzatuko da. Halere, lehen ere aipatu dugun bezala, aditz ez-akusatibotzat joz gero, berez, sakoneko objektua genukeela dio Levinek.

Alternantzia hauen beste ezaugarri bat, 1.4.1 alternantzian azaldu dugun zentzu holistiko/partitiboa izatea da. Lekuzko argumentua objektu gisa gauzatzen denean, interpretazio holistikoa jasotzen da; hau da, delako lekuak aditzak adierazten duen ekintza “guztiz” jasaten du. Preposizio baten objektua denean, berriz, interpretazio hau ez da derrigorrezkoa. Dena den, interpretazio holistikoaren izaera gehiago zehaztu beharra dagoela aipatzen du Levinek.

2.3.1 Spray/load alternantzia (*Spray/load alternation*)

Adib.

Ing. Jack sprayed paint on the wall / Jack sprayed the wall of paint

Eusk. *Jackek horman pintura ihinzatu zuen/ Jackek horma pinturaz ihinzatu zuen

Spray/Load alternantzian, aldaera batean preposizio-sintagma batez gauzatzen dena (*location* argumentua), beste aldaeran objektu gisa ageri da, eta bestetik, objektu gisa gauzatzen dena (*locatum* argumentua), beste aldaeran preposizio-sintagma batez gauzatzen da. Horretaz gain, substantziaren bat azaleraren batean “jartzea”ren esanahia da aditzera ematen dutena. Levinek dioskunez alternantzia hau, *Jartze* eta *Estaltze* aditz iragankorrek erakusten dute, eta azaldu dugun zentzu holistiko/partitiboa dute. Berak zerrendatzen dituenen arteko batzuk hauexek ditugu: *eskuilatu*, *pilatu*, *erein*, (*oihalez*) *estali*, *azukreztatu*, *kargatu*, *zamat*, *bete*, *igeltsuz estali*, *jendeztatu*, *zipriztindu*, *lainoztatu*, *ihinzatu*, *hornitu*, *apaindu*, *zikindu*... Horiexek euskaraz aztertzen baditugu, gutxi topatzen ditugu hemen aurkezten den alternantziaren parte hartzaile; *kargatu* eta *erein* hain zuzen. Horren erakusgarri dira, batetik, *Euskal Hiztegi*-ko adibideetan *kargatu* aditzerako ematen diren adibideak, eta bestetik, Etxeparek *A grammar of Basque* (2001) liburuan *erein*-entzat emandakoak:

Abrahamek egurraz kargatu zuen Isaak / Bi zaku sagar gurdian kargatu (*Euskal Hiztegiko* adibideak)

Baserritarrak soroan garia *erein* du / Baserritarrak soroa gariz *erein* du. (Etxepareren adibideak, *A Grammar of Basque* liburuan)

Beste zenbait, hala nola, *jendeztatu*, *zipriztindu*, *lainoztatu*, *ihinztatu*, aditz eratorriak direla ikusten dugu, eta eratorpen-prozesu horretan *locatum* argumentua aditzaren baitan geratu da, *location* argumentua izanik objektu gisa gauzatzen dena; ondorioz, ez dago beste aldaerarako lekurik. Beste batzuk aldaeretako bat erakusten dute bakarrik: *estali*, *bete*, *hornitu*, *apaindu*, *zikindu*. Eta beste zenbaitek ez dute ez bata ez bestea erakusten: *eskuilatu*, *pilatu*.

Euskaraz, beraz, mugatua da oso alternantzia honen hedadura; ordea, *location* delakoa objektu deneko egitura, aditzetako askok onartzen dute, eta haien adiera *kargatu* eta *erein* aditzenarekin pareka daiteke, hemen darabilgun ‘*locatum*-a *location* batean jartze’ zentzuan. Beraz, ez dirudi alternantzia honek semantika jakineko sailak biltzen dituenik, baizik eta delako semantika hori duten aditzetako batzuk biltzen dituela; euskararen kasuan, gutxi gainera. Honen zergatia topatzea ere ez da gure helburua hemen.

2.3.2 Clear alternantzia (Clear Alternation) (Iragankorra)

Adib.

Ing. Henry cleared dishes from the table / Henry cleared the table of dishes

Eusk. *Henryk platerak mahaitik garbitu/hustu zituen/ Henryk mahaia plateraz *garbitu/hustu zuen

Alternantzia hau onartzen duten aditzak, lehendabiziko hurbilpen batean *Spray/load* aditzei kontrajartzen zaizkio semantikoki. Honetan ere, lekuzko objektuak interpretazio holistikoa jasotzen du. Dirudienez, *of* preposizioa gehiago erabiltzen da lekua abstraktua denean.

Euskaraz ez dagoela ikus dezakegu. Kasu honetan, gainera, adibideko aditza hartuta aztergai, aldaeretako bat bera ere posible ez dela esango genuke. Aldiz, zerrendatutakoen arteko *empty* (‘hustu’) hartuz gero, aldaeretako bat behintzat zilegi dela ikusten dugu; *Euskal Hiztegiko* adibide batera joz:

Bazterrak oro euskaldunez husten eta gaskoiez betetzen

Baina esan bezala, alternantzia gisa ez dugu euskaraz.

2.3.3 Wipe *alternantzia* (*Wipe alternation*)

Adib.

Ing. Helen wiped the fingerprints off the wall / Helen wiped the wall (*of fingerprints)

Eusk. *Henryk hatz-arrastoak paretatik garbitu zituen/ Henryk paretatik garbitu zuen (*hatz-arrastoz)

Alternantzia hau onartzen duten aditzak ere *Spray/load* aditzei kontrajartzen zaizkie semantikoki. *Clear* alternantzian ez bezala, honetan lekuz aldatzen den argumentua ezin da azaleratu lekuzko argumentua objektu gisa azaleratzen denean. Lekuzko argumentuak interpretazio holistikoa jasotzen du hemen ere.

Euskaraz ez dugu alternantzia hau topatzen; goian gertatzen zen bezala, aldaeretako bat, besterik gabe, egitura arrunt bat da, bigarren aldaeran ageri zaiguna, kasu honetan. Lehenengo aldaeran ageri den balioa lortzeko, euskaraz izenlagun bat erabiltzea da ohizkoena; alegia, *locatum*-a izenlagun gisa jarri eta *locatum*-a objektu gisa: *paretako hatz-arrastoak*. Gainera, alternantzia honek ez dugu uste berez Levinek azaltzen duen alternantziaren izaera duenik; izan ere, alternantziako aldaera bat okerra da.

2.3.4 Swarm *alternantzia* (*Swarm alternation*)

Adib.

Ing. Bees are swarming in the garden / The garden is swarming with bees

Eusk. ??*Erleak lorategian betetzen ari dira / Lorategia erlez beterik dago.

Alternantzia hau aditz iragangaitzek erakusten dute, baina *Spray/load* aditzek aldaera iragankorrean eta iragangaitzean erakusten duten harremanean oinarrituz, alegia, iragangaitzeko subjektua berez iragankorreko objektuaren rol bera duelakoan, hau horren fenomeno paralelo gisa ikus dezakegu; haiekiko desberdintasuna hauek agente edo egilerik ez dutela genuke. Lekuzko subjektu honek ere interpretazio holistikoa jasotzen du.

Euskaraz, argi dagoenez, ez dugu horrelakorik topatzen; goikoetan gertatzen den bezala, hemen ere aldaeretako bat egitura arrunta da, besterik gabe.

2.3.5 Clear *alternantzia* (*Clear alternation*) (*Iragangaitza*)

Adib.

Ing. Clouds cleared from the sky / The sky cleared (?of clouds)

Eusk. ??*Hodeiak zerutik garbitu ziren / Zeruak garbitu zuen (*hodeiez).

Clear alternantzia iragankorraren pareko iragangaitza da hau; hau da, *swarm* alternantzian ikusi dugun paralelismo berari lotuz, iragankorraren objektuak eta iragangaitzaren

subjektuak rol bera betetzen dute. Iragankorrekiko diferentzia bakarra da honek ez duela agenterik erakusten. Honenbestez, esan daiteke *Clear* aditzek alternantzia lokatiboaren erabilera iragankorra eta iragangaitza dutela. Erabilera iragangaitz honetan ere interpretazio holistikoa jasotzen da, eta jakina, kasu honetan subjektuak jasotzen du interpretazio hori. Erabilera iragankorrean ez bezala, hemen *of*-dun sintagma gabeko egiturak egokiago dirudi.

Euskaraz ez dugu alternantzia hau topatzen. Besterik gabe, bigarren aldaera (postposiziodun sintagma gabekoa) egitura arrunta da; gainera, egitura arrunt hori eguraldiarekin loturiko aditzek erakusten dutena da: subjekturik gabeko aditz iragankorra.

2.4 Sormen eta transformazio alternantziak (*Creation and Transformation Alternations*)

Alternantzia-sorta honetako azpimultzo bakoitzak bi erabilera erakusten ditu: bata iragankorra eta bestea iragangaitza. Alternantzia lokatiboetan ikusi dugun bezala, iragangaitzaren subjektuak iragankorraren objektuaren rol bera du; alde horretatik, erabilera iragangaitzeko aditzak inakusatibotzat jotzen baditugu, azaleko subjektu hori berez sakoneko objektua dela esan dezakegu, eta horrenbestez, bi erabilerak bakartzat jo; diferentzia, batek agentea izatean eta besteak ez izatean datza.

2.4.1 *Materiala/produktua alternantzia* (Material/Product Alternation) (*Iragankorra*)

Adib.

Ing. Martha carved a toy out of the piece of wood / Martha carved the piece of wood into a toy

Eusk. *Marthak egurrezko piezatik jostailu bat landu zuen / *Marthak egurrezko pieza jostailu(an) landu zuen

Alternantzia honetan, material gordina eta produktua adierazten duten argumentuak, objektu zuzen gisa nahiz preposizio baten objektu gisa gauza daitezke. Material gordinak normalean *out of* edo *from* preposizioa hartzen du (Dixon-ek (1991) *with* ere izan daitekeela dio) eta produktuak *into*. Hauetako aditz batzuek, alternantzia kausatibo/inkoatiboa erakusten dute.

Euskaraz, ikusten dugunez, alternantzia gisa ez zaigu ageri. Gainera, ingelesezko aldaeretan aditzera ematen dena esateko bestelako egiturak erabiltzen dira: *Marthak egurrezko pieza jostailu bilakatu zuen; Marthak egurrezko piezarekin jostailu bat egin zuen; ; Marthak egurrezko piezatik jostailu bat atera zuen...*

2.4.2 *Materiala/produktua alternantzia* (Material/Product Alternation) (*Iragangaitza*)

Adib.

Ing. That acorn will grow into an oak tree / An oak tree will grow from that acorn

Eusk. *Ezkur hori haritz(ean) haziko da / ?Haritza ezkur horretatik haziko da

Goikoaren pareko iragankorra da, hau da, goikoak ez bezala, honek subjektu agente edo egile bat du. Alternantzia sorta honen sarreran esan dugunari jarraiki, hemen aurkezten den egitura, alternantzia kausatibo/inkoatiboaren aldaera kasuatiboa litzateke.

Euskaraz, goikoarekin bezalaxe, ez zaigu alternantzia hau ageri.

2.4.3 *Erabateko transformazioaren alternantzia* (Total Transformation Alternation) (*iragankorra*)

Adib.

Ing. The witch turned him into a frog / The witch turned him from prince into a frog

Eusk. Sorginak bera igel bihurtu zuen / *Sorginak bera printzetik igel bihurtu zuen

Alternantzia honek ASren barruan bi ez baizik eta hiru argumentu ditu: transformazioa jasaten duen entitatea, entitate horren hasierako egoera (*iturria*) eta egoera berria (*helburua*). Transformazioa jasaten duen entitatea beti objektu gisa gauzatzen da; gainontzeko argumentuak, berriz, preposizio bidezko sintagmez. Egoera berria adierazten duen argumentua beti azaleratu behar da, hasierako egoera, berriz, ez da derrigorrez agertu behar. Hain zuzen ere horixe da aldaera batetik bestera aldatzen dena. Ohar gaitezen, fenomeno hau, hau da, egitura batetik bestera elementu bat eranstea, bi alternantzian baino ez duela planteatu Levinek: honakoan, eta 7.1 Objektu *cognate*-aren alternantzian.

Hemen aztergai dugun egitura materiala/produktua alternantzia iragangaitzaren forma inkoatiboa genuke.

Euskaraz, *bihurtu* aditzaren kasuan, bederen, aldaeretako bat bakarrik da zilegi, hasierako egoera eta objektua aldi berean agertzen deneko egiturak ez baitirudi oso zuzena. Aldiz, Levinek zerrendatzen dituen aditzen artetik esan genezake *aldatu*-k baduela gaitasun hori, nahiz eta ez den arruntena:

Zuzendaritzakoek hirugarren mailara aldatu dute haurra

Zuzendaritzakoek bigarren mailatik hirugarren mailara aldatu dute haurra

Aditz bakarrean topatu dugunez alternantzia (eta ez gainera oso ohizko bezala) ez dugu alternantzia orokor gisa onartuko. Hala ere, gehiago aztertu beharreko kontua da (beharbada, Levinek zerrendatu ez dituen beste aditz batzuekin).

Honenbestez, ez dugu hartuko alternantzia orokor gisa.

2.4.4 Erabateko transformazioaren alternantzia (Total Transformation Alternation) (*iragangaitza*)

Adib.

Ing. He turned into a frog / He turned from a prince into a frog

Eusk. Bera igel bihurtu zen / *Bera printzetik igel bihurtu zen

Goikoaren pareko iragangaitza dugu hau; alegia, aldaera hauetako subjektuak goiko aldaeretako objektuaren rola betetzen du; hortaz, haren aldaera inkoatiboa dugu. Hemen ere goian esan dugunak balio du.

2.5 Alternantzia erreziprokoak (*Reciprocal Alternations*)

Beste sorta batean aztertu ditugun interpretazio erreziproko 1.2.4 (Understood Reciprocal Object Alternation) eta 1.4.2 (*With* preposizioa galtzearen alternantzia (*With Preposition Drop Alternation*)) alternantzietan ez bezala, hauetan ez dago iragankortasunari dagokion aldaketarik. Hemen topatzen ditugun alternantzietan, preposizio desberdineko PS bat ager daiteke perpausean. PS hau ez denean agertzen, subjektua –aditza iragangaitza denean– edota objektua –aditza iragankorra denean– IS kolektiboa izan behar da. Sormen eta transformazio alternantzietan ikusi dugun bezala, erabilera iragangaitzeko aditzak ez-akusatibotzat jo eta azaleko subjektua sakoneko objektua dela onartzen badugu, alternantzia iragankorra nahiz iragangaitza alternantzia bakartzat jo ditzakegu, desberdintasun bakarra agentea edo egilea izatean edo ez izatean datzala. Interpretazio ez-akusatibo hau, ordea, ez dirudi bidezkoa elkarrekintza soziala adierazten duten aditzekin ez eta *talk* ('hitz egin') eta *chitchat* ('berriketan aritu') aditzekin, hauetan subjektua arrunki biziduna eta boluntarioa izan ohi baita, eta ez-akusatiboetakoa, aldiz, bestelakoa; gainera, aipatutako aditz hauek ez dute pareko kausatiborik, *marry* ('ezkondu') eta *divorce* ('dibortziatu') aditzek salbu.

Bestetik, PSrik gabeko egiturako IS osatzen duten partaide guztiak, estatus konparagarrikoak izan behar dira, 1.2.4 alternantzian ikusi dugun bezala.

2.5.1 Alternantzia erreziproko sinplea (Simple Reciprocal Alternation) (*iragankorra*)

Adib.

Ing. I separated the yolk from the white / I separated the yolk and the white

Eusk. Goringoa zuringotik bereizi nuen / Goringoa eta zuringoa bereizi nituen

Ing. I mixed the sugar into the butter / I mixed the sugar and the butter

Eusk. Azukrea gurinarekin nahastu nuen / Azukrea eta gurina nahastu nituen

Ing. I confused Maria with Anna / I confused Maria and Anna

Eusk. Maria Anarekin nahastu nuen / Maria eta Ana nahastu nituen

Hauexek dira bi aldaeretan topatzen ditugun egiturak: NP₁ V NP₂ [_{pp} P NP₃] eta NP₁ V [_{NP} NP₂ and NP₃]. Alternantzia hau erakusten duten aditz gehienak, Levinek *amalgamate* ('elkartu'), *mix* ('nahastu') eta *separate* ('bereiztu') aditz gisa izendatu dituenetakoak dira. Hauetako batzuek, segidan ikusiko ditugun *together* edota *apart* bidezko alternantzia erreziprokoak (*together* Reciprocal alternation, *Apert* Reciprocal alternation) ere onartzen dituzte, baina beste batzuek ez. Aditz hauen arteko desberdintasuna PS egiteko hartzen duten postposizioan datza, adibideetan ikus daitekeen bezala.

Euskaraz ere agertzen zaigula esango dugu.

2.5.2 together-dun alternantzia erreziprokoa (*Together* Reciprocal Alternation) (*Iragankorra*)

Adib.

Ing. I creamed the sugar into the butter / I creamed the sugar and the butter together

Eusk. ? / ?Azukrea eta gurina elkarrekin krematan irabiatu nituen

Aurreko alternantziaren egitura aldaketa bera ageri zaigu, baina bigarren aldaeran *together* erantsita: NP₁ V NP₂ [_{pp} P NP₃] eta NP₁ V [_{NP} NP₂ and NP₃] *together*. *Together*-dun egitura honek zer inplikatzan duen, ordea, ez dago argi. Levinek dioskunez, egitura erretsultatibo-mota bat bezala aztertu izan da, baina dirudienez, egitura hau onartzen duten *Konbinatze* aditzek, emaitzazkoa baino, moduzko osagai bat dute bere esanahiaren baitan.

Euskaraz, alternantzia gisa ez dugu topatzen. *Together* bidezko egitura ere zuzena ote den ez dago argi; *azukrea eta gurina krematan irabiatu nituen* esanda, besterik gabe, ulertzen delako. Euskaraz zerbait jartzekotan, *azukrea eta gurina, biak, nahastu nituen krematan* jarriko genuke segur aski.

2.5.3 apart-dun alternantzia erreziprokoa (*Apart* Reciprocal Alternation) (*Iragankorra*)

Adib.

Ing. I broke the twig off (of) the branch / I broke the twig and the branch apart

Eusk. * Adarretik adaska hautsi nuen / *Adarra eta adaska bereiz hautsi nituen

Alternantzia hau goikoaren parekoa da baina *together*-en ordez *apart* jarrita: NP₁ V NP₂ [_{pp} P NP₃] eta NP₁ V [_{NP} NP₂ and NP₃] *apart*. Alternantzia hau onartzen duten aditzak, *Split* ('banandu') deiturikoen artekoak dira, eta PS, *iturria* adierazten duten preposizioz osatzen da. *Together* bidezko egiturari buruz genioenaren pare, *apart*-dun egiturak ere egitura erretsultatibo-mota bat osatzen duela esaten da.

Euskaraz, ez dago ez alternantzia ez eta alternantzia honetan parte hartzen duen aldaeretako bat ere.

2.5.4 Alternantzia erreziproko sinplea (Simple Reciprocal Alternation) (*iragangaitza*)

Adib.

Ing. Brenda agreed with Molly / Brenda and Molly agreed

Eusk. Brenda Mollyrekin ados zegoen / Brenda eta Molly ados zeuden

Ing. The oil separated from the vinegar / The oil and vinegar separated

Eusk. Olioia ozpinetik banandu zen / Olioia eta ozpina banandu egin ziren

Alternantzia erreziproko sinple iragankorreko egituraren parekoak ditugu hemen, diferentzia bakarra agente edo egilea ez izatea delarik: NP₁ V [_{pp} P NP₂] eta [_{NP} NP₁ and NP₂] V. Alternantzia hau erakusten duten aditz gehienak, erreziproko iragankorreko *amalgamate* ('elkartu'), *mix* ('nahastu') eta *separate* ('bereiztu') aditzez gain, Levinek *correspond* ('egokitu'), *meet* ('topatu'), *talk* ('hiz egin'), *chitchat* ('berriketan aritu') eta *differ* ('desberdindu') gisa izendatu dituenetakoak dira.

Ikus daitekeenez, zerrendatutakoen artean, "bereizketa" adierazten dutenek *from* (kasu ablatiboa, euskaraz) preposizioa hartzen dute lehenengo aldaeran, eta "batzea" adierazten dutenek *with* (kasu sozietiboa, euskaraz).

Levinek ez du inongo aipamenik egiten alternantzia honek aditzera ematen duen ñabardura semantikoei buruz.

Euskaraz ere badela esan genezake.

2.5.5 together-dun alternantzia erreziprokoa (Together Reciprocal Alternation) (*iragangaitza*)

Adib.

Ing. The eggs mixed with the cream / The eggs and the cream mixed together

Eusk. Arrautzak kremarekin nahastu ziren / ?Arrautzak eta krema nahastu ziren
elkarrekin/elkarren artean

2.5.2 alternantziako aldaerak topatzen ditugu hemen, baina agente edo egilerik ez dugula: NP₁ V [_{pp} P NP₂] eta [_{NP} NP₁ and NP₂] V *together*. Alternantzia hau onartzen duten aditz gehienak Levinek *mix* ('nahastu') eta *talk* ('hiz egin') deitu dituenetakoak dira; aldiz, *amalgamate* ('elkartu') deiturikoek ez dute onartzen, eta *correspond* ('egokitu') eta *chitchat* ('berriketan aritu') deiturikoetan kontua ez dago hain argi. Alternantzia iragankorrean bezalaxe, emaitzako egitura-motatzat hartzeko bidean dela dirudi.

2.5.2 alternantzia esan dugun bezalaxe, euskaraz *together*-en ordainaren (*elkarrekin* edota *elkarren artean*, alegia) beharrik ez dagoela dirudi, eta honenbestez, alternantzia honek lekurik ez duela esan genezake.

2.5.6 Apart-dun alternantzia erreziprokoa (*Apart Reciprocal Alternation*) (*Iragangaitza*)

Adib.

Ing. The twig broke off (of) the branch / The twig and the branch broke apart

Eusk. * Adarretik adaska hautsi zen / *Adarra eta adaska bereiz hautsi ziren

2.5.3-ren pareko iragangaitza dugu hau, baina agente edo egilerik gabekoa: NP₁ V [_{pp} P NP₂] eta [_{NP} NP₁ *and* NP₂] V *apart*. Alternantzia hau onartzen duten aditz gehienak, pareko iragankorrean bezalaxe, Split ('banandu') deiturikoen artekoak dira; aldiz, ez dago bat ere ez *differ* ('desberdindu') ez *separate* ('banandu') deiturikoetakorik. 2.5.3 alternantzia esan ditugunak baliagarri dira hemen ere: PS, *iturria* adierazten duten preposizioz osatzen da, eta *apart-dun* egiturak ere egitura erretsultatibo-mota bat osatzen duela esaten da.

Euskaraz, iragankorra bezalaxe, ez da alternantzia hau existitzen.

2.6 Fulfilling alternantzia (*Fulfilling Alternation*)

Adib.

Ing. The judge presented a prize to the winner / The judge presented the winner with a prize

Eusk. Epaimahaiak irabazleari sari bat oparitu zion / *Epaimahaiak irabazlea sari batekin oparitu zuen

Levinek dioskunez, alternantzia honek azalean antzekotasunen bat ageri du alternantzia datiboa nahiz lokatiboarekin; izan ere, aldaeretako batek alternantzia datiboarekin lotuta dagoen egitura bera du: (NP V NP *to* NP), eta beste aldaerak, alternantzia lokatiboan ageri zaigunarekin, *with* postposizioa hartzen dutenekin –*Spray/load* aditzak deritzenekin– (NP V NP *with* NP). *Fulfilling* alternantzia onartzen duten aditz batzuek, alternantzia lokatiboa ere onartzen dute. Azkenik, ez du pareko iragangaitzik.

Euskaraz ez da alternantzia hau existitzen.

2.7 Irudia inprimatze alternantzia (*Image Impression Alternation*)

Adib.

Ing. The jeweller inscribed the name on the ring / The jeweller inscribed the ring with the name

Eusk. Bitxi-egileak izena inskribatu/grabatu zuen eraztunean / *Bitxi-egileak eraztuna izenarekin inskribatu/grabatu zuen

Alternantzia honek *Spray/load* deiturikoen alternantzia lokatiboaren antza du; izatez, zenbaitzuek honen azpimultzotzat jo izan dute alternantzia hau. Levinek dioenez, ordea, bada desberdintasun semantiko bat bi alternantzion artean, eta gainera, *Irudia inprimatze alternantzia*-k ez du alternantzia lokatiboarekin lotuta dagoen zentzu “holistiko/partitiboa”. Dena den, zentzu “holistiko/partitiboa” beste arrazoi batzuen bidez azaltzen bada, beharbada ez da argudio nahikoa aparteko alternantziatzat hartzeko. Azkenik, honek ere ez du pareko iragangaitzik.

Euskaraz, ikus dezakegunez, ez zaigu alternantzia hau ageri; aldaeretako bat, besterik gabe, egitura arrunta da euskaraz, hain zuzen ere, aldaera lokatibo eta datiboan esan dugunaren pareko.

2.8 *With/against* alternantzia (*With/Against Alternation*)

Adib.

Ing. Brian hit the stick against the fence / Brian hit the fence with the stick

Eusk. *Brianek makila hesiaren kontra jo zuen / Brianek hesia makilaz jo zuen

Alternantzia hau erakusten duten aditzak hiru argumentukoak dira, hasiera batean tresna, leku eta agente edo egiletzat har daitezkeenak. Agenteak, tresna, leku batera mugitzen du, leku horrekin kontaktua sortuz. Hala, instrumentua, Gruber (1965) eta Jackendoff-en (1990) ildotik, gaitzat ere har daiteke. Agentea beti subjektu bezala gauzatzen da; lekua nahiz instrumentua/gaia, alternantziako aldaeraren arabera, objektu gisa; eta objektu gisa gauzatzen ez den beste argumentua preposizio-sintagma batez, *against* dena halabeharrez. Alternantzia honek ere ez du pareko iragangaitzik. Levinek zerrendatu dituen aditz asko Dowty-ren (1991) lanetik atereak dira.

Euskaraz ez zaigu alternantzia gisa agertzen, bigarren aldaera erabiltzea baita ohizkoena aditzera eman nahi dena ulertarazteko. Egia da azken honetan objektua lekua dela, edota gaia, aipatutako autoreen zentzuan, baina ez du alternantzia bat osatzeko beharrezkoa duen pareko aldaerarik.

2.9 *Through/with* alternantzia (Through/With *Alternation*)

Adib.

Ing. Alice pierced the needle through the cloth / Alice pierced the cloth with the needle

Eusk. ?Alicek orratza indarka sartu zuen oihaletik/oihalean zehar / *Alicek oihala orratzaz sartu zuen indarka

Aurreko alternantzian ikusi dugun bezala, alternantzia hau erakusten duten aditzak hiru argumentukoak dira, hasiera batean tresna, leku eta agente edo egiletzat har daitezkeenak. Agenteak, tresna, leku batera mugitzen du, leku horrekin kontaktua sortuz. Hala, kasu honetan ere, instrumentua, gaitzat har daiteke, Gruber (1965) eta Jackendoff-en (1990) ildotik. Instrumentuak, ordea, zorrotza behar du izan, lekuarekin kontaktua izateaz gain, hura zeharkatu edo bertan sartzen baita. Gainontzekoan goiko alternantziaren pareko da egitura aldetik: agentea beti subjektu bezala gauzatzen da; lekua nahiz instrumentua/gaia, alternantziako aldaeraren arabera, objektu gisa; eta objektu gisa gauzatzen ez den beste argumentua preposizio-sintagma batez, *through* dena halabeharrez. Alternantzia honek ere ez du pareko iragangaitzik.

Euskaraz ez dirudi alternantzia hau ageri zaigunik, ezin baitaiteke esan aldaera bata ez bestea ohizko egiturak direnik esan nahi dena ulertarazteko; euskaraz naturalagoa da *orratza oihalean indarrez sartu zuen* edota *oihala orratzez zeharkatu/zulatu zuen*. *Through/with* alternantzian esan dugun bezala, egia da azken honetan objektua lekua dela, edota gaia, aipatutako autoreen zentzuan, baina pareko aldaerarik ez duenez, ez dago alternantzia gisa hartzerik.

2.10 *Blame* alternantzia (Blame *Alternation*)

Adib.

Ing. Mira blamed the accident on Terry / Mira blamed Terry for the accident

Eusk.: *Mirak istripua Terrygan errua egotzi zuen / *Mirak Terry errua egotzi zuen istripuagatik

Levinek dioenez, *blame* ('errua/kulpa egotzi/bota/leporatu') aditza da alternantzia honetan egiaztatu den bakarra, baina ba omen dira beste hainbat aditz NP V NP *for* NP aldaerako egitura onartzen dutenak.

Euskaraz, ikusi dugun bezala, ez dago alternantziarik, eta bestelako egitura batera, bakarrera, jo beharra dago esanahi hori aditzera emateko: *Mirak istripuaren errua Terryri egotzi/leporatu zion*, ingelesekoarekin antz handirik ez duena gainera.

2.11 Search alternantziak (Search alternations)

Search (Bilatze) aditzek, argumentuak adierazteko hiru aukera dituzte: NP1 V NP2 *in* NP3; NP1 V NP3 *for* NP2; NP1 V *for* NP2 *in* NP3. Egitura hauen barruan, azpimota desberdinak onartzen dituzte *Bilatze* aditz desberdinek, baina oro har hauxe da argumentuen izaera: alde batetik, beti subjektu gisa gauzatzen den agente edo egile bat dago, bestetik bilatzen den gaia, eta azkenik, bilaketa egiten den lekua. Azkeneko bi argumentu hauek, objektu zuzen nahiz preposizio sintagma gisa gauza daitezke (bilatzen den gaia gauzatzen denean preposizio sintagma gisa, *for* preposizioa da buru; lekua denean, berriz, preposizio lokatiboren bat). Aldaera batean, aipatutako argumentuak preposizio sintagma bidez gauzatzen dira; beste aldaera batean, gaia da preposizio bidez gauzatzen dena, lekua objektu zuzena delarik; hirugarren aldaeran, azkenik, lekua da preposizio bidez gauzatzen dena, gaia objektu zuzena delarik. *ferret* ('usainean/zokomiran ibili/ari izan') aditza izan ezik, denek onartzen dute *for* preposizioa gaia preposizio sintagma denean

Adib.

Ing. Ida hunted the woods for deer / Ida hunted for deer in the woods / Ida hunted deer in the woods

Eusk. *Idak oihanak ehizatu zituen orein bila / * Idak oihanetan ehizatu zuen orein bila / Idak oreinak ehizatu zituen oihanetan

Euskaraz ez dugu horrelako alternantziarik topatzen. Besterik gabe hirugarren aldaera egitura arrunta da.

2.12 Jabetzazko gorputz-atalaren igoera alternantzia (*Body-Part Possessor Ascension Alternation*)

Adib.

Ing. Selina touched the horse on the back / Selina touched the horse's back

Eusk. (Lit.) Selinak zaldia ukitu zuen bizkarrean; (libr.) Selinak zaldiari bizkarra ukitu zion / Selinak zaldiaren bizkarra ukitu zuen

Alternantzia honetako aldaera batean, gorputz-atala ISren buru bezala gauzatzen da, eta gorputz-atal horren jabea, IS horren barruko izenlagun gisa. Beste aldaeran, berriz, bi aparteko osagai daude: bata, gorputz-atalaren jabea, IS gisa gauzatzen dena, eta bestea, gorputz-atala bera, lekuzko preposizio bat buru duen preposizio-sintagma gisa gauzatzen dena; alegia, gorputz-atala errepresentatzen duen osagaia ISTik kanpo ateratzen da; hortik, alternantziaren izena. Alternantzia hau segidan ikusiko dugun 2.13 alternantzien (Possessor-Attribute Factoring Alternations) oso antzekoa da; desberdintasuna da, hemen, jabea eta bere gorputz-atal bat harremanetan jartzen direla, eta, hurrengoetan, jabea eta bere ezaugarriak. Horretaz gain, bi alternantziatan preposizio desberdinak erabiltzen dira (lekuzkoak edo *for*),

eta aditz desberdinek erakusten dute. Levinek zerrendatzen dituenen artean ondokoak ditugu: *ukitu, laztandu, ferekatu, igurtzi, milikatu, atximurkatu, jo/kolpatu, mailukatu, kosk egin, tiro egin, zanpatu, ziztatu, astindu, zulatu/zuloa egin, iltzatu/iltzea sartu, moztu, ebaki, urratu...*

Euskaraz, adibideko *touch* ('ukitu') hartzen badugu, ikusten dugu, gorputz-atala adierazten duen osagaiak (*bizkarra*) ez duela lekuzko kasurik agertzen, baizik eta jabetza-erlazioa adierazteko baliatu ohi den kasu datiboa; erlazio horixe bera da bigarren aldaeraren genitiboak adierazten diguna. Orobat gertatzen da *lasztandu, ferekatu, balakatu, igurtzi, milikatu, atximurkatu, astindu, zanpatu, iltzatu, zulatu, moztu, ebaki, urratu* aditzekin.

Beste zenbaitek, ordea, leku-kasudun sintagma erakusten dute: *jo, kosk egin, tiro egin, iltzea sartu, zuloa egin*. Kasuotan pentsa dezakegu, objektuaren lekua dagoeneko "hartuta" dagoenez, gorputz-atalak ezin duela objektu gisa ageri; *jo*-ren kasuan ere azpian 'buruan [kolpe bat] jo dit' moduko zerbait dagoela ontzat ematen badugu, arrazoiketa bera baliagarria litzateke. Ohar bedi, halere, *iltzatu* eta *zulatu* aditzek fenomeno bertsua erakusten dutelarik, ez dela gauza bera gertatzen. Besteekiko diferentziei erreparatzen badiegu, argi dago bata formala dela: hauek eratorriak dira eta haiek konposatuak. Esana dugun bezala, konposizioan dauden aditzek, nahiz eta unitate lexikal bat osatu, sintaxiari begira osagaiek esaldiko elementu banako gisa jokatzeko dute. Bestetik, aditz eratorri hauek entitate bat "zeharkatzea" adierazten dute (*zuloa egin, iltzea sartu*); inesiboak, dirudienek, ez du adiera hau onartzen; badirudi beti ere gainazal baten gainean egiten den ekintza batera mugatzen dela.

Beste zenbait, ordea, zalantzazkoak dira: *musukatu, ziztatu*, esaterako: *masailean musukatu dit/nau* edota *masaila musukatu dit; besoa ziztatu didate* edo *besoan ziztatu didate*? *Musukatu*-ren kasuan, segur aski, aditz hauen azpian egon daitekeenak sorrarazten digu zalantza; zer dago horren azpian? 'musu eman', 'musu asko eman' edota 'musuka aritu'? Lehenengoa dela iruditzen bazaigu, objektua dagoeneko aditzean legoke eta segur aski *masailan musukatu dit* onargarriago egingo zaigu; aldiz, bigarrenak ulertzen baditugu, bertan objektua baino ekintza bat egiteko modua-edo dirudi adierazten dela, eta hala, beste objektu bat onartzea (*masaila musukatu dit*) posible izatea errazago onartuko dugu; eta gure ustez, azken hau da arruntena. *Ziztatu*-ren kasuan, ordea, esandakoen arabera *besoa ziztatu didate* litzateke espero izatekoa (objektua aditzaren barruan dago, baina azalera bat zeharkatzea adierazten du). Hortaz, baieztapenetara iristeko, sakonkiago aztertu behar lirateke horrelako fenomenoak.

2.13 Jabe-ezaugarri osagaien alternantziak (*Possessor-Attribute Factoring Alternations*)

Alternantzia hauek erabilera iragankorra nahiz iragangaitza hartzen dute bere baitan. Hemen, goian bezalaxe, bi aukera ditugu: jabearen ezaugarria ISren buru bezala gauzatzen da, eta jabea, IS horren barruko izenlagun gisa; eta bestea, aparteko bi sintagma bidez: lekuzko preposizio bat buru duen preposizio-sintagma gisa bata eta objektu zuzen edo

subjektu (iragankortasunaren arabera) gisa bestea; alternantziaren arabera, ezaugarria edo jabea izango dena. Aditza iragangaitza denean, ordea, jabea beti izango da subjektua. Esandakoaren arabera, hiru multzo bereizten ditu Levinek.

2.13.1 *Jabea objektu gisa* (Possessor Object)

Adib.

Ing. I admired his courage / I admired him for his courage

Eusk. Bere kemena miresten nuen / Bere kemenagatik miresten nuen

Ing. They praised the volunteers' dedication / They praised the volunteers for their dedication

Eusk. Boluntarioen dedikazioa goraiatzan zuten / Boluntarioak bere dedikazioagatik goraiatzan zituzten

Alternantzia honetan aldaerak hauexek dira: bata IS bakarraz osatutakoa, eta bestea, ezaugarria *for* preposiziodun sintagma gisa eta jabea objektu gisa gauzatzen direnekoa. Esan dugun bezala, 2.12ren oso antzekoa da egitura, baina erlazionatzen diren elementuak eta alternantzietan parte hartzen duten aditzak desberdinak dira. Deane eta Wheeler-ek (1984) diote alternantzia hau onartzen duten aditzek “entitateren batekiko arretaren norabidea” adierazten dutela.

Euskaraz ere badugu alternantzia hau.

2.13.2 *Atributua objektu gisa* (Attribute Object)

Adib.

Ing. I admired his honesty / I admired the honesty in him

Eusk. Bere zintzotasuna miresten nuen / Beregan zintzotasuna miresten nuen

Alternantzia honetan ere bi aukera ditugu: IS bakarraz osatutakoa bata, eta atributu edo ezaugarria objektu gisa eta jabea *in* preposizio bidezko preposizio-sintagma gisa gauzatzen direnekoa bestea.

Levinek zerrendatzen dituen aditz-moten artean, badira batzuk goikoan ere ageri direnak: *Miretsi* motako aditz psikologiko positiboak, eta *Miretsi* motako aditz psikologiko negatiboak. Horretaz gain, *Ikuste* aditzek ere onartzen dutela dio.

Euskaraz ere alternantzia hau badugula esan daiteke.

2.13.3 *Jabearen eta atributuaren alternantzia* (Possessor and Attribute Alternation)

Adib.

Ing. I admired him for his honesty / I admired the honesty in him

Eusk. Bere zintzotasunagatik miresten nuen / Beregan zintzotasuna miresten nuen / Bere zintzotasuna miresten nuen

Levinek dioenez, alternantzia hau ez litzateke segur aski apartekotzat jo beharko, izan ere aurreko bi alternantziak onartzetik eratortzen baita. Hala izanik, *mireste* aditzek eta aditz psikologikoez onartzen dute.

Euskaraz ere agertzen dela esango dugu.

2.13.4 *Jabea subjektu gisa* (Possessor Subject) (*iragankorra*)

Adib.

Ing. The clown amused the children with his antics / The clown's antics amused the children

Eusk. Pailazoak bere bihurrikeriekin haurrak entretenitu zituen / Pailazoaren bihurrikeriek haurrak entretenitu zituzten

Alternantzia hau *Amuse (Entretenitu)* motako aditz psikologikoez onartzen dute. Aditz hauek erakusten duten osagaietako bat atributua baino, askotan, jarduera bat izan ohi da. Jabearen atributu/jarduera hori aditzak adierazten duen egoeraren kausa da. Goiko alternantziatan bezala, argumentuak gauzatzeko bi modu daude, bata IS bakarraren bidez, eta bestea bi aparteko sintagmaz; honakoan, preposizio-sintagmak *with* postposizioa du buru eta jabearen atributua adierazten du; jabea, berriz, subjektu gisa gauzatzen da. Kasu honetan, hortaz, harremana subjektuarekikoa da, objektuarekikoa beharrean.

Alternantzia hau, Levinek dioskunez, berak 3. alternantzia multzoan sailkatzen dituen *Subjektu obliquoko alternantzien* artekotzat jo zitekeen, zehazki 3.3 alternantziaren (Instrumentuzko subjektuaren alternantzia) barrukotzat, hau da, *with* bidezko sintagma instrumentudun egitura gisa.

Euskaraz kasu hau badugula esan liteke (ez, aldiz, 3.3koa, baina bai kausa abstraktuzko subjektuaren alternantzia (3.4), gure ustez, mintzagai dugun alternantziaren parekotzat jo daitekeena). Alternantzia hauek haiekiko duten desberdintasuna izan daiteke, hauetan agentea beti agertu behar izatea, agentearen beraren ezaugarri bat baita ekintzaren eragilea. 3. sailekoetan, berriz, jabe-atributu harremana izan dezaketen osagaiez gain bestelakoak ere badira, eta hortaz ez dago agentearen presentziaren beharrik derrigorrez.

2.13.5 *Jabea subjektu gisa (Possessor Subject) (iragangaitza)*

Adib.

Ing. Meat fell in price / The price of meat fell

Eusk. ? Haragiak behera egin du prezioan / Haragiaren prezioak behera egin du

Alternantzia hau 2.13.1en pareko iragangaitza da, eta zentzu horretan, erabilera iragankorra eta iragangaitza erakusten duten aditzen kasuan, alternantzia bakartzat har daitezke hura eta hau, baldin eta bere erabilera iragangaitzean aditz inakusatibo modura ikusirik, sakoneko objektu gisa hartzen badugu. Orain arteko alternantziak bezalaxe, bi aukera dituzte gauzatzeko: IS bakarren bidez, edota aparteko bi osagai gisa, horietako bat *in* bidezko preposizio sintagma bat delarik.

Euskarari dagokionez, IS bakarreko egitura zuzena dela ez dago zalantzarik; bestea ere zuzena dela dirudi hasiera batean, baina ez dago oso argi euskararen beraren egitura delako den, edota erdaratikoaren mimetismoz normala iruditzen zaigun. Euskararen beraren egitura ez bada, alternantziarik ez dagoela esango dugu, besterik gabe aldaeretako bat egitura arrunta dela euskaraz.

2.14 *As alternantzia (As Alternation)*

Adib.

Ing. The president appointed Smith press secretary / The president appointed Smith as press secretary

Eusk. Lehendakariak Smith idazkari izendatu/hautatu zuen / *Lehendakariak Smith idazkaritzat izendatu/hautatu zuen

Alternantzia hau erakusten duten aditzek osagarri predikatibo bat hartzen dute objektu zuzen bezala. Osagarri predikatibo hau, bi modutara ager daiteke, eta horiexek osatzen dituzte alternantzia honen bi aldaerak: NP V NP NP; NP V NP *as* NP. Lehenengo egiturak, azalean, alternantzia datibokoaren aldaeretako baten antza du, baina berez beste egitura sintaktiko baten bidez azaltzen da, perpaus txiki deiturikoaz, hain zuzen ere.

Euskaraz, Levinek zerrendatzen dituen aditz askoren kasuan, ez da alternantzia gisa agertzen; aldaeretako bat, besterik gabe, egitura arrunt eta zuzena da. Esaterako, prolatiborik gabeko aldaera da, gure ustez, *izendatu*, *aukeratu*, *hautatu*, *ordenatu*, *koroatu*, *imajinatu* aditzek onartzen dutena. *Nahi*-k, berriz, bakarrik prolatibodun aldaera onartzen duela dirudi.

Beste aditz batzuek, ez dute ez bata ez bestea onartzen: *iritzi*, *adoptatu*, *markatu*, *aurkeztu*, *agertu*, *azaldu*. Eta *proposatu*, esaterako, zalantzarria da, batarekin zein bestearekin zilegi den ala ez, ez baita argia.

Azkenik, asko, *eduki/hartu/jo* aditzen bidez itzuli behar dira, *jo-k*, *-tzat* prolatiboa behar duela, eta besteen kasuan bata nahiz bestea izan daitezkeela.

Euskal Gramatika laburra. Perpaus bakuna liburukian (Euskaltzaindia, 1993) prolatiboari buruz esaten denera jotzen badugu, ikusten dugu hiru jokaera desberdin hauek ageri direla; alegia, zenbait aditzek egitura prolatibogabea onartzen dute, beste batzuek prolatiboduna, eta gutxi batzuek bata nahiz bestea. Hona bertan aipatzen dituzten adibideak:

- (115) *Oparitzat* erloju bat eman genion
- (116) *Euskalduntzat* jo nuen gizon hura hasieran
- (117) Udalak Pello *alkate* izendatu zuen
- (118) Andoni daukagu aurten *irakasle*
- (119) Andoni *irakasle zintzotzat* daukagu
- (120) *Neskame* hartu dute Inixi
- (121) *Neskametzat* hartu dute Inixi

Baina horren azpian prolatiboaren adiera desberdinak izkutatzen direla aipatzen dute.

Ohart gaitezen prolatiboak bi balio izkutatzen dituela zenbait kasutan:

- (123) Erregetzat hartu ninduten gizon haiek

Eta horrek esan nahi du errege izateko hartu nindutela (1.º balioa) edo errege nintzela pentsatu zutela (2.º balioa). Nolabaiteko xedea adierazten du batzuetan eta ustezko kutsua ere beste batzuetan, beti ere aditza zein den kontuan hartu behar dela: horrela ustezko kutsua *hartu*, *eduki* eta *jo* aditzekin gertatzen da, baina ez *eman* edo *eskaini* aditzekin, hauekin xedea adierazten baita normalean, non eta ez duten benetako zentzua galtzen:

- (124) zorotzat eman nuen

Eta hemen zoroa zela “kontsideratu” zuela adierazten du hiztunak”

491–493. orr.

Halere, *hartu* eta *eduki* aditzen kasuan gauzak nahasixeagoak direla azpimarratzen dute:

Baina badira aditz batzuk (*eduki* eta *hartu*, esate baterako) bi aldeko jokia erakusten dutenak, ondoko adibideetan ikusten den moduan

- (118) Andoni daukagu aurten *irakasle*
- (119) Andoni *irakasle zintzotzat* daukagu
- (120) *Neskame* hartu dute Inixi
- (121) *Neskametzat* hartu dute Inixi

Gauzak, ikusten denez, nahasi samar daude. Areago, kontuan hartzen badugu goiko aditz horietan ere bikoiztasun hori ez dela beti zilegi. Zenbait kasutan nahitaezkoa dugu prolatiboaren marka jartzea (erkatu 120 eta 121 adibideak):

- (122) **seme* hartu dute Iñaki

Badirudi arazo semantiko baten aurrean gaudela hor (“semetzat hartu” diogunean “seme egin” edo halako zenbait esan nahiko bagenu bezala).

492. orr.

Alegia, *eduki*-k bi egiturak onar ditzake, baina bi egiturotan adiera desberdina dela dirudi (adibide hauei erreparatzen badiegu bederen): prolatibodunak ustea, iritzia adierazten du, eta prolatibogabeak helburua. *hartu*-k, ordea, prolatibogabeak helburua adierazten du, baina prolatibodunak biak, helburua eta ustea/iritzia, adieraz dezake. Areago, zenbait izenen kasuan prolatiboz adierazi beharra dago helburuzko adiera hori, **seme hartu dute Iñaki* adibideak adierazten duen modura.

Hauek guztiak kontuan hartuta, prolatibodunak eta prolatibogabeak aditz berarekin adiera bera (helburuzkoa) adierazten duten kasuak *hartu*-ra mugatzen direla esan dezakegu: *Neskame* hartu dute Inixi = *Neskametzat* hartu dute Inixi. Eta baita beharbada, *proposatu* aditza, baldin eta bi aldaerak ontzat ematen ditugun.

Beraz, esango duguna da *-tzat*-dun aldaerak, xedezko aditzekin, predikatzen duen objektu horren xedea adierazten duela oro har, eta ustezko edo iritzizko aditzekin, berriz, predikatzen den objektuari buruzko ustezko atribuzioak ezartzen direla. Alternantzia, berriz, *hartu* aditzaren kasua izango genuke bakarrik.

3 Subjektu “obliquoko” alternantziak (“*Oblique*” *Subject alternations*)

Atal honetako alternantziek ez diote eragiten iragankortasunari, aditzari laguntzen doan IS kopuruari baizik: aldaera batean bestean baino IS bat gutxiago dago. Alternantzia hau subjektu *agentea* duten aditzek erakutsi ohi dute. IS kopuru txikiagoko aldaeran, beste aldaeran preposizio sintagma azpikategorizatu gabe batez gauzatzen dena, subjektu gisa ageri da; hain zuzen subjektu horixe izendatzeko erabiltzen da “oblikuo” adjektiboa; subjektu oblikuoa ageri denean, subjektu kanonikoa ez da beste inola ere gauzatzen.

3.1 Denborazko subjektuaren alternantzia (*Time Subject Alternation*)

Adib.

Ing. The world saw the beginning of a new era in 1492 / 1492 saw the beginning of a new era

Eusk. Munduak aro berri baten hasiera ikusi zuen 1492an / 1492k aro berri baten hasiera ikusi zuen

Euskaraz ere modu honetako erabilerarik topatzen dugu, baina beharbada erabilera hedatu bati dagokiola esan genezake. Izatez, gutxi dira Levinek alternantzia hau onartzen duten aditzen artean zerrendatzen dituenak: *see* (‘ikusi’), *find* (‘aurkitu’), *mark* (‘markatu’), *catch*

(‘ulertu’ ‘harrapatu’). Zentzu hedatu hau modu abstraktu batean ulertu beharko litzateke, “ikusi” izaki bizidunek ikus dezaketela jakina baita; “1992. urtea”, seguruenez, garai horren atzean zegoen gizartea adierazteko espresabide bat litzateke.

3.2 Naturazko indarreko subjektuaren alternantzia (*Natural Force Subject Alternation*)

Adib.

Ing. I dried the clothes in the sun / The sun dried the clothes

Eusk. ?Arropa eguzkitan lehortu nuen / Eguzkiak arropa lehortu zuen

Goikoaren egitura berak ditugu, baina subjektu oblikua naturazko indarren bat delarik. Zenbaitetan ez da argia agentearen, naturazko indarraren edota instrumentuaren arteko muga; Kasu Gramatikan, horren inguruan eztabaidatu izan da. Levinen lanean hiru kontzeptuak bereizi nahi izan dira, izan ere, naturazko indarrak ez dira agertzen –edo behintzat, ez lukete ageri behar– *with* bidezko preposizio sintagma batez gauzatuak. Horretaz gainera, ez dute onartzen *use* (‘erabili’) bidezko parafrasisirik (**I used the sun to dry the clothes vs I used the hair drier to dry clothes*).

Euskarari dagokionez, lehenengo aldaera, arruntena ez dela esango genuke, naturalagoa baita *Arropa eguzkitan lehortzen jarri nuen* edota *Arropa eguzkitan lehortu zen* esatea. Bigarrenak, berriz, arruntagoa dirudi. Hori dela eta, alternantzia gisa agertzeak ez du ematen zentzu handirik duenik. Nolanahi ere, guri ere lausoa iruditzen zaigu agentearen, naturazko indarraren eta instrumentuaren arteko muga.

3.3 Instrumentuzko subjektuaren alternantzia (*Instrument Subject Alternation*)

Adib.

Ing. David broke the window with the hammer / The hammer broke the window
(instrumentu bitartekaria)

Eusk. Davidek leihoa mailuaz hautsi zuen / ? Mailuak leihoa hautsi zuen

Alternantzia honetako subjektu oblikua *instrumentu* gisa hartu izan da. Zenbait azterketatan, instrumentuen izaeran bereizketa egin da: batetik, instrumentu erraztaileak deitu genitzakeenak (*enabling instruments* edota *facilitating instruments* ingelesez), eta bestetik instrumentu bitartekariak (*intermediary instruments* ingelesez); izan ere, lehendabizikoak ezin dira subjektu gisa gauzatu (*Doug ate the ice cream with the spoon --> *The spoon ate the ice cream*). Hortaz, instrumentu bat subjektu gisa gauzatzea, azken batean, aditzaren baitan egongo da, eta era berean, horren arabera joko da instrumentua bitartekarizat edota erraztaileztat.

Euskaraz, esango genuke instrumentuak ez duela gaitasunik subjektu gisa gauzatzeko, instrumentua zentzu hertsian hartuta, bederen. Gogoratu, halere, 1.2.6.2 *Instrumentuaren ezaugarri arruntaren alternantzia*-n ikusi dugunez, objekturik gabeko testuinguruetan lekurik izan dezakeela subjektu gisa, baina testuinguru oso jakinetan eta tresnaren baliagarritasuna delarik hanpatzen dena. Beraz, alternantzia honek, hemen azaltzen den egituran, lekurik ez duela esango dugu. Hala ere, goian esan dugun bezala, agentearen, naturazko indarraren eta instrumentuaren arteko muga lausoa da.

3.4 Kausa abstraktuzko subjektuaren alternantzia (*Abstract Cause Subject Alternation*)

Adib.

Ing. He established his innocence with the letter / The letter established his innocence

Eusk. Bere errugabetasuna gutunaren bidez frogatu zuen / Gutunak bere errugabetasuna frogatu zuen

Alternantzia honetako subjektu oblikua *kausabstraktu*-tzat jo izan da. Levinek dioenez, nozio honek goiko instrumentuarekin bat egin dezake, horiek bezala, *with* bidezko preposizio-sintagmaz gauzaten delako aldaera batean, eta, hala, bestean subjektu instrumentu bitartekari gisa jokatzeko du. Hala ere, izenak erakusten duen bezala kausa abstraktua adierazten duten sintagmak IS abstraktuak izan ohi dira, konkretuak baino.

Euskaraz ere ageri zaigu alternantzia hau, baina hemengo instrumentuaren adiera zehatza *-ren bidez/bitartez* kasu konposatuarekin sozietiboarekin baino egokiago adierazten dela dirudi; halere, ez du esan nahi sozietiboa okerra denik. Nolanahi ere, eta Levinek dioenarekin bat kausa abstraktua eta instrumentuaren bereiztea zail gertatzen da; areago, guk esango genuke baita bi horien eta naturazko indarraren artean ere.

3.5 Locatum subjektuaren alternantzia (*Locatum Subject Alternation*)

Adib.

Ing. I filled the pail with water / Water filled the pail

Eusk. Ontzia urez bete nuen / Urak ontzia bete zuen

Alternantzia lokatiboan esandakoa gogoratu, *Locatum* terminoa Clark & Clark-engandik (1979) hartua da. Autore hauek termino hau erabiltzen dute leku batean kokatzen den entitateari erreferentzia egiteko. Alternantzia hau ere beharbada instrumentuen artean koka genezake, baina Levin & Rappaport-ek (1988) diotenaren arabera, badira arrazoiak halakoxetzat ez hartzeko.

Euskaraz, bigarren aldaera arrunta den ez dago oso argi. Dena den, gure ustez, kasu honetan ere, eta Levinek berak aipatzen duen bezala, instrumentutzat har genezake. Edota

kausa edo naturazko indar gisa ere. Kontzeptu horien definizioak eta beraz mugak ez ditugunez garbi ikusten, aparteko alternantziatzat ez hartzea erabaki dugu, kausa naturalaren alternantziaren barruko aukera gisa joz. Izatez, egitura aldetik guztiek fenomeno bera agertzen dute.

3.6 Lekuzko subjektuaren alternantzia (*Location Subject Alternation*)

Adib.

Ing. We sleep five people in each room / Each room sleeps five people

Eusk. Gela bakoitzean bost pertsonak lo egiten dugu/ *Gela bakoitzak bost pertsona lo egiten ditu

Alternantzia honetan lekua da subjektu oblikua, eta aditzak adierazten duen ekintzan ageri den lekuak zein edukiera duen adierazten du.

Euskaraz ez zaigu alternantzia hau ageri.

3.7 Edukierazko subjektuaren alternantzia (*Container Subject Alternation*)

Adib.

Ing. I incorporated the new results into the paper / The paper incorporated the new results

Eusk. Paperean emaitza berriak erantsi nituen/ (lit.) *Paperak emaitza berriak eransten zituen/(libr.) Paperak emaitza berriak zekartzan

Alternantzia hau erakusten duten aditzek, osotasun baten eta osotasun horren parte den osagai baten arteko harremana erakusten dute, lehenengoa subjektu gisa nahiz preposizio sintagma batez gauza daitekeelarik eta bigarrena objektu zuzen gisa.

Euskaraz ez zaigu ageri alternantzia gisa, baina edukierazko subjektudun egitura zilegi da. *Ekarri* eta *eraman* aditzetan, esaterako, egitura hauze topa dezakegu:

Egunkariak atzo ekarri zuen berria

Elastikoak bere izena zeraman

Aditz irangaitzetan, aldiz, objektuarentzako lekuri ez dagoenez, edukierazko osagaia, ohi den moduan, lekuzko kasuarekin ageri da: *Egunkarian zetorren berria*; baina noski, osagai hori beharrezkoa da aditzaren adiera jakin horretan; alegia, ez du zerikusirik *etorri*-k irangaitzean erakusten duen beste erabilerarekin: *ahizpa etorri da*, eta honenbestez bereizi beharra dago.

3.8 Material gordinezko subjektuaren alternantzia (*Row Material Subject Alternation*)

Adib.

Ing. She baked wonderful bread from that whole wheat flour / The whole wheal flour bakes wonderful bread

Eusk. *Hark oso ogi ona erretzen du garizko irin horretatik guztitik / *Garizko irin horrek guztiak oso ogi ona erretzen du

Kreaziozko aditz batzuek material gordina adierazten duen argumentua subjektu gisa gauza dezakete produktua objektu zuzen gisa gauzatzen denean. Alternantzia honek, aditzak adierazten duen ekintzan subjektuak duen gaitasuna azpimarratzen du.

Euskaraz ez dagoela esan genezake.

3.9 Diru-kopuruzko subjektuaren alternantzia (*Sum of Money Subject Alternation*)

Adib.

Ing. I bought (you) a ticket for \$ 5/ \$ 5 will buy (you) a ticket

Eusk. Txartel bat erosi d(iz)ut 5 dolarren truke / * 5 dolarrek txartel bat erosiko dute

Alternantzia hau *Lortze* aditzek erakusten dute, lortze horretan diruzko transferentzia bat dagoenean. Hala gertatzen denean, suposatzen da jarritako kopuru hori nahikoa dela transakzioa bideratzeko.

Euskaraz ez zaigu ageri alternantzia hau.

3.10 Iturrizko subjektuaren alternantzia (*Source Subject Alternation*)

Adib.

Ing. The middle class will benefit from the new tax laws / The new tax laws will benefit the middle class

Eusk. Klase ertainak onura jasoko du zergen arau berrietatik / Zergen arau berriek klase ertainari onura ekarriko diote

Onuraren iturria da subjektu oblikuo gisa gauzatzen dena hemen. Alternantzia hau oso aditz gutxirekin ageri omen da.

Hemen ezin dugu esan euskaraz alternantziarik dagoenik, bi aldaeretan agertzen den aditza desberdina delako.

4 Diatesi erreflexiboen alternantziak (*Reflexive Diathesis Alternations*)

Atal honetako alternantziek, izenordain erreflexiboak objektu zuzen gisa jokatzeko duenenean aditz batzuek jasaten dituzten aldaketa erregularrak deskribatzen dituzte. Zenbait kasutan, argumentuen ezaugarrietan ere aldaketak gertatzen dira.

4.1 Erreflexibo birtualaren alternantzia (*Virtual Reflexive Alternation*)

Adib.

Ing. The butcher cuts the meat / This meat cuts itself

Eusk. Harakinak haragia mozten du / *Haragi hau bera mozten da

Alternantzia honetan egitura erreflexiboko subjektuak egitura iragankorreko objektuaren erlazio semantiko bera du aditzarekiko. Halere, ezaugarri hau duten alternantziek ez bezala, honetan ez dago aldaketarik iragankortasunean, izenordain bat ageri baitzaigu objektu funtzioan; ordea, iragankorreko subjektu kanonikoa ez da inon ageri. Esan ohi da *Middle* alternantziaren oso antzekoa dela, baina alternantzia hau onartzen duten aditzak desberdinak dira. Zein talde semantikoko aditzek onartzen duten esatea, halere, ez da erraza.

Euskaraz ez dagoela dirudi; agian, *Haragi hau berez mozten da* zuzena litzateke, baina honakoan bai *middle*-aren antzekoa dirudi.

4.2 Agerpenezko erreflexiboaren alternantzia (*Reflexive of Appearance Alternation*)

Adib.

Ing. I presented a solution to the problem yesterday / A solution to the problem presented itself yesterday

Eusk. Atzo arazoarentzako irtenbide bat aurkeztu nuen / * Arazoarentzako irtenbidea bera aurkeztu zen atzo

Hemen aurreko alternantzia erreflexiboan topatu dugun fenomeno bera dugu: egitura erreflexiboko subjektuak egitura iragankorreko objektuaren erlazio semantiko bera du aditzarekiko, eta iragankorreko subjektu kanonikoa ez da inon ageri. Egitura erreflexibo hau, deskribatzen den egoeran zerbaitez berez agertu dela adierazteko erabiltzen da.

Euskaraz ez dela ageri esango dugu. Nolanahi ere, hau ere *middle*-aren parekoa iruditzen zaigu; eta izenordainik gabe, inkoatiboaren parekoa.

5 Pasiboa (*Passive*)

5.1 Aditzen pasiboak (*Verbal Passive*)

Adib.

Ing. The cook sliced the mushrooms / The mushrooms were sliced by the cook

Eusk. Sukaldariak txanpiñoiak zerratan moztu zituen / *? Txanpiñoiak zerratan moztuak izan ziren sukaldariaren eskutik

Ing. Columbus believed the earth to be round / The earth was believed to be round

Eusk. Columbus-ek lurra borobila zela uste zuen / *Lurra borobila zela sinetsia zen (hemen dagokion zentzuan)

Ing. Columbus believed the earth was round / It was believed that the earth was round

Eusk. Columbus-ek lurra borobila zela uste zuen / ?Lurra borobila zela sinesten zen

Ing. The police kept tabs on the suspect / Tabs were kept on the suspect

Eusk. Poliziak susmagarria zelatan izan zuen / ?

Ing. The employees took advantage of the lax supervision / The lax supervision was taken advantage of

Eusk. Langileek ikuskapen laxoa aprobe txatu zuten / ?

5.2 Pasibo preposizionalak (*Prepositional Passive*)

Adibideak:

Ing. George Washington slept in this bed (aditz ez-ergatiboak) / This bed was slept in by George Washington

Eusk. George Washington-ek ohe honetan lo egin zuen / *Ohe hau George Washington-ek lo egin izan zen

Ing. George Washington slept on Tuesday (aditz ez-ergatiboak gehi adjuntua) / *Tuesday was slept on by George Washington

Eusk. George Washington-ek asteartean lo egin zuen / *Asteartea Washington-ek lo egin izan zen

Ing. A pirate ship appeared on the horizon (aditz ez-akusatiboa) / *The horizon was appeared on by a pirate ship

Eusk. Piraten itsasontzi bat agertu zen zeruertzean / *Zeruertza piraten itsasontzi batek agertua izan zen

Ingelesez, adibideetan emandako aditzen pasibo guztiak onartzen dira; pasibo preposizionalak onartzeko beharrezkoa den irizpidea, ordea, ez da erabat garbia. Aditzak gehien bat iragangaitzak izan ohi dira eta pasibo preposizionala onartzea ala ez onartzea aditzaren baitan eta sintagma preposizionalaren baitan dagoela dirudi. Couper-Kuhlen-ek

(1979) dio, pasibo preposizionala onartzen duten aditzen argumentuen rol tematikoei erreparatuta, subjektu biziduna izatea dela murriztapena bat. Bestalde, Permutter eta Postal-ek (1984) diote bakarrik aditz ez-ergatiboek onartzen dutela pasibo preposizionala, baina jakina da ez dela aditz ez-ergatibo guztiekin gertatzen hori. Beraz, murriztapenak ondo ikertu beharra dago. Azkenik, adjuntudun esaldiek ez dute pasibo preposizional aldaera onartzen.

Euskaraz baditugu pasiboari buruzko azterketak, eta autore guztiak ez dira beti guztiz bat etorri. Zenbaitzuek, euskaraz pasiborik ez dagoela diote; edota zehazkiago esanda, ez dugula hizkuntza erromanikoetan ageri zaigun egitura pasiborik, bestelako baliabide batzuk baizik. Hau hala izanik ere, Euskaltzaindiaren gramatiketan (*Euskal Gramatika laburra: perpaus bakuna* liburukiko *Egitura pasibo eta antipasiboak* puntuan zehazki), egiten zaio tartea hizkuntza erromanikoen kalko modura egindako pasiboari, gramatikaltasuna gorabehera, literatur tradizioan izan duen pisu handia azpimarratuz:

Alabaina, horrek ez du esan nahi euskarak egitura pasiborik ez duenik. Zein dira egitura hauek? Batzuk hizkuntza erromanikoetan ageri zaizkigun egituren kalkoa dira itxuraz. Aitortu behar da, hala ere, literatur tradizioan pisu handia dutela, eta ez bakarrik itzulpenetan, gramatikariek egitura hauek espreski gaitzetsi izan dituzten arren (Ithurry, lekuko):

(103) Jainkoa deabruaz tentatua izan da

Honekin batera jarri beharko litzateke idazleetan ageri den egitura pasibo zaharra:

(104) zu erredimitu zara

Edo Txirritaren bertsoetan ageri den hura ere:

(105) hurrengo laurogei urtean, ni ez naiz ahaztuko, Kantabriko partean

Eta horrek esan nahi duena da, hain zuzen ere, beste norbaitek erredimitu zaituela.

17. or.

Kalkoz egindako egitura hauen ondoan, berriz, euskaraz berezko ditugun egiturak ere azaltzen dituzte:

Baina badira beste batzuk ere beste itxura bat hartzen dutenak. Ikus ditzagun ondoko adibideok:

(106) Anttonek etxe hori egin du

(107) etxe hori, Anttonek egina da

Esan daiteke bigarren perpausa dela lehendabizikoaren aldaera pasiboa. Horrelako egiturak sortzeko erabiltzen den bidea, oro har eta debekuak alde batera utzirik, honako hau da: ordena kanonikotik (SOV, edo Subjektua, Objektua, Aditza) abiatuz, objektua mintzagia hanpatu bezala ageri da, subjektu bihurtua; aditzak izenondoaren itxura hartzen du eta subjektuaren kualitate bat predikatzen du eta, azkenik, komuntadura bakarrik subjektuarekin gertatzen da. Hasieran egin dugun sailkapena kontuan hartzen bada, predikazio perpaus bat atribuzio-perpaus bihurtu dugu, egitura honela geratzen zaigula:

(108) [etxe hori] [[Anttonek egina] da]

Parez pare erka daitekeena ondoko honekin:

(109) [etxe hori] [[handia] da]

5.3 Pasibo adjektibala (*Adjectival Passive*) (Aditz iragankorrak)

Adib.

Ing. The feathers remained stuffed in the pillow / The pillow remained stuffed with feathers

Eusk. Lumak pilatuta geratu ziren burukoan / *Burukoa lumekin pilatuta geratu zen

Zenbait partizipio pasibok adjektiboen ezaugarriak erakusten dituzte; hortik *pasibo adjektibalak* deitura (*adjectival passive*). Aditz pasiboekin gertatzen den bezala, pasibo adjektibalaren egitura onargarria izan dadin, aditzaren osagarri guztiak agertu behar dira. Eztabaida dago, halere, *aditzen pasiboak* eta *pasibo adjektibalak* bereizi beharra ote den ala ez.

Euskaraz, ikusten dugunez, hemen aurkezten den alternantzia bera ez dago, besterik gabe, abiapuntuko aldaera, egitura onargarria da euskaraz. Aditzen pasiboak egiteko modua, ikusi dugun bezala, desberdina da euskaraz; atribuziozko egitura batez, alegia. Zentzu horretan euskaraz ez dago konparatzerik.

5.4 Partizipio perfektu adjektibalak (*Adjectival Perfect Participles*) (aditz iragangaitzak)

Adib.

(Aditz ez-akusatiboak)

Ing. recently arrived guest, collapsed lung, curdled milk, drifted snow...

Eusk. gonbidatu iritsi berria, birika oztopatua, esne galdua, elur pilatua...

(Aditz ez-ergatiboak)

Ing. *walked man, *talked politician, *slept children, *flashed light, *beeped clock

Eusk. gizon ibilia, ?gizon hitz egina, ?haur lo eginak, *argi dirdiratua, *erloju joa

Atal honetan planteatzen den zalantza da ea harremanik baden partizipio perfektu adjektibalak sortzeko prozesuaren eta partizipio adjektibal pasiboak sortzekoaren artean. Beste auzi ireki bat da zein diren partizipio perfektu adjektibalak onartzen dituzten aditzen ezaugarriak. Zenbaitek diote aditz ez-akusatiboek bakarrik onartzen dituztela (eta, gainera, ez guztiek), edota behintzat aditz ez-ergatiboek ez dituztela onartzen. Ezadostasuna dago ere aditz iragangaitzetik *-ed* bidez partizipioak sortzea prozesu emankorra den.

Euskaraz, jakina den bezala, pasiboaren alboan, egitura antipasiboa dugu. Egitura honek arreta berezia jaso du ikertzaileen artean hinkuntza erromanikoetan ez delako agertzen. Ikus dezagun Euskaltzaindiak zer dioten bere gramatikan:

Egitura pasibo hauen ondoan ageri dira, hala ere, egitura antipasiboak. Bi perpaus hauen artean bigarrenak erakusten dizkigu egitura antipasiboak:

(110) nik gauza asko ikusi dut

(111) ni, gauza asko ikusia naiz

Egitura antipasiboetako predikatu osagarrian, pasiboetan ez bezala, izenondo bihurturiko aditza eta izenondo honen objektu zuzena agertzen zaizkigu. Konparatu bien egiturak:

(112) [etxe hori] [[nik egina] da]

(113) [ni] [[gauza asko ikusia]] naiz

Egitura pasiboetan objektua subjektu bihurtzen dugu, subjektua predikatu osagarrira pasatzen dugularik. Egitura antipasiboetan, berriz, ekintza baten subjektua predikatu osagarriaren subjektu bihurtzen dugu. Egitura antipasibo hauetan aditzondoa aurkitzen da sarritan izenondoaren ordeztan (*egon* aukeratzen dela orduan):

(114) Jone, bapo janda zegoen

(115) ni, gauza asko ikusirik nago

Halako egitura datiboarekin ere egin daitezke:

(116) Norbaitek abisatu zion (norbaitek abisatua zegoen)

Honek guztiak iruzkin pasuatuagoa merezi lukeen arren, esku liburu honetan azpimarragarrien diren puntuak aipatu besterik ez dugu nahi izan.

18-19. or.

Ikus dezakegun bezala, egitura antipasiboa eta pasiboak itxura sintaktiko bera dute, alegia, atributiboa. Aldea egitura predikatu horren subjektuan dago: pasiboan, egitura aktiboko objektua da eta antipasiboan egitura aktiboko subjektua. Euskaltzaindiak berak, arreta gehiago merezi duen kontua dela aipatzen du, izan ere, esandakoetan egitura sintaktikoei buruzko xehetasunak baino ez ditu ematen.

Euskaraz, ikusten dugunez, *gizon ibilia* modukoak zilegi dira, ingelesez ez bezala; aldiz, aditz ez-ergatibodunek ez dirudi onartzen dutenik. Hortaz, Levinek azaltzen duen uste horri dagokioenez, alegia, aditz ez-akusatiboek egitura hau onartzen dutela, eta aldiz, ez-ergatiboek ez, euskaraz ere halaxe dirudiela esan genezake.

6 Aditz osteko subjektuari dagozkion alternantziak (Alternations Involving Postverbal “Subjects”)

Alternantziaren izenak argitan jartzen digun bezala, atal honetan aztertuko ditugun bi alternantzietan, aditzaren subjektua aditzaren ostean ageri da. Alternantzia hau agertzen duten aditzak, aditz iragangaitzak eta iragankor pasiboak dira gehienbat; oso aditz iragankor gutxi agertu dira egiaztapenetan. Bada hirugarren mota bat subjektua aditzaren ostean ageri

duena, baina mendeko esaldiak daudenez tartean, Levinek ez du aztertu (“*I think that Wanda forgot to come*”, *said Mathilda*” modukoak)

6.1 *There*-sartzea (*There-Insertion*)

Adib.

Ing. A ship appeared on the horizon / There appeared a ship on the horizon

Eusk. Itsasontzi bat agertu zen zeruertzean / ?

Dirudienez, *there*-dun aldaeraren ezaugarrietako bat da *Zehaztugabetasunaren efektua* (*Definitness Effect*) deitzen dena; hau da, aditzaren ondorengo IS zehaztugabea izatea (nahiz eta kontzeptu hau zedarrizterakoan ezadostasunak egon). Beste ezaugarri bat alternantzia hau onartzen duten aditzen izaera da. Dirudienez, egitura hau onartzen duten aditz prototipikoak *Existitze* eta *Agertze* aditz iragangaitzak dira, eta arrunki ez direnak halakoxeak, egitura hau onartzen dutenean, *Existitze* edo *Agertze* zentzua hartzen dute. Hau horrela izanik, zenbait autorek *there*-egitura aditz inakusatiboen diagnostikoa dela esan dute (Burtzio (1986), Levin (1986, 1987), besteak beste). Bestalde, azterketa ugari izan dira *there*-egituran agertzen diren sintagma eta hauen ordena-murriztapenen inguruan, baina guk hemen ez ditugu aztertuko; izan ere, euskaraz ez dugu horrelako egiturarik.

6.2 Lokatiboaren leku-aldatzea (*LocativeInversion*)

Adib.

Ing. An old woman lives in the woods / In the woods lives an old woman

Eusk. Emakume heldu bat bizi da oihanean / Oihanean emakume heldu bat bizi da

Alternantzia hau ere zenbait aditz iragangaitz eta iragankor pasiboetan agertzen da. Alternantzia honetako bi aldaeretan sintagma preposizional lokatibo edo norabidezko bat agertzen da osagarri gisa.

Goiko *there*-egitura eta lokatiboaren leku-aldatzea onartzen duten aditzak berdinak izan ohi dira, eta beraz, goian aipatu ditugun sail semantiko bereko aditzak biltzen ditu: prototipikoak, *Existitze* eta *Agertze* aditz iragangaitzak direla dio, eta halakoxeak ez direnak, egitura hau onartzen dutenean, *existitze* edo *agertze* zentzua hartzen dutela. Halere, lokatiboaren leku-aldatzea onartzen dutenen artean *there*-egituran zerrendatzen ez diren aditz iragankorrak ere badira. Levinek diosku azterketa sakonagoak behar direla bi alternantziotan parte hartzen duten aditzak benetan bateragarriak diren ziurtatzeko.

Euskaraz, Alternantzia datiboan esan duguna errepikatuz, alternantzia honek ez du berezitasunik adierazten, sintagma baten posizio-aldaketa bat baino ez baita gertatzen. Guk,

hortaz, hau ez dugu alternantzia esanguratsu gisa hartuko, ikerketa hauek azpikategorizazioaz gaindiko beste plano bati baitagozkio.

7 Bestelako egiturak (*Other constructions*)

Atal honetan, aditzen argumentuen ezaugarriak aldarazten dituzten egiturak aztertzen dira. Zenbaitek mota jakin bateko osagarriak hartzeko joera erakutsiko dute, eta beste batzuek, argumentu jakin bat aukeratzearekin lotura duen interpretazio bat ekarriko dute.

7.1 Objektu *cognate*-dun egitura (*Cognate Object Construction*)

Adib.

Ing. Sarah smiled / Sara smiled a charming smile /?? Sarah smiled a smile

Eusk. Sarah-k barre egin zuen / * Sarah-k barre xarmagarri bat barre egin zuen / * Sarah-k barre bat barre egin zuen

Ing. Sarah sang /?? Sarah sang a ballad / Sarah sang a song

Eusk. Sarah-k abestu egin zuen / Sarah-k balada bat abestu zuen / ? Sarah-k abesti bat abestu zuen

Zenbait aditz iragangaitzek, aditz hori sortu deneko oinarriarekin –hain zuzen ere Levinek objektu *cognate*-tzat hartzen duenarekin– erlazionatuta dagoen elementu bat hartzen dute objektu bezala. Batzuetan, objektu *cognate* berori agertzen da objektu gisa, baina ez dirudi objektu honek esaldiaren esanahiari ekarpenik egiten dionik. Halere, arruntagoa da objektu *cognate*-a modifikatua agertzea, eta honek badu eransten esanahirik. Bestalde, objektu *cognate*-a duten aditzek ez dituzte objektu-mota asko onartzen. Gehienetan objekturik gabe edota objektu gisa *cognate*-a bera dutela azaltzen dira, baina zenbait aditzek objektu *cognate* horren hiponimoa ere onartzen dute. Aditz hauek normalean aditz eratorriak (edota jatorriz berez aditz ez direnak), eta jarduerazko aditzak izan ohi dira. Zwicky-k (1971a) dio *Hitz egiteko moduzko* aditzek ere onartzen dituztela, baina ez dago adostasunik horren inguruan.

Euskarari dagozkionak aipatu ditugu 1.2.1 Objektu inespezifikoaren alternantzian; hortaz, jo bedi horra zehaztasunetarako.

7.2 Sintagma preposizional *cognate*-aren egitura (*Cognate Prepositional Phrase Construction*)

Adib.

Ing. Kelly buttered the bread / *Kelly buttered the bread with butter / Kelly buttered the bread with unsalted butter

Eusk. Kelly-k ogia gurineztatu zuen / *Kelly-k ogia gurinaz gurineztatu zuen / ?Kelly-k ogia gurin gatzgabetuaz gurineztatu (igurtzi) zuen

Sintagma preposizional *cognate*-ak, izenetiko aditz eratorri batzuekin agertzen dira. Askotan preposizioa *with* izan ohi da, eta egitura hau onartzen duten aditzak bi motatakoak dira nagusiki: ‘X nonbait jarri’ (‘put X on/in something’) gisa parafraseatu daitezkeenak, eta ‘X-i lotu’ (‘attach with X’) gisa, non X aditzaren oinarrian dagoen izena den. *mine* eta *quarry* (biak ‘erauzi’ esanahikoak) aditzek, bestetik, iturritzko sintagma preposizionalak ere onartzen dituzkete.

Sintagma preposizionaleko ISren burua, aditzaren oinarrian dagoen izena izan behar da, edota bestela, izen horrekiko hiponimoa. Halere, oinarriko izen horri modifikatzailearen batek esanahia zehazten dionean, egitura onargarriagoa da.

Euskaraz, ez dago hain argi alternantzia honetako bigarren aldaera zuzena den; ez da behintzat, oso naturala. Zuzenagoa gertatzen da aditzaren barruan objektu *cognate*-rik ez duen egituran: *Ogia gurin gazgabetuz igurtzi nuen*.

Hala, esango dugu, objektuak leku zentzua duen kasu hauetan (“ogia gurineztatu” → “ogian gurina jarri”), leku horretan ezartzen dena aditzaren barruan dagoenean, ez dela Sintagma preposizional *cognate*-aren egitura onartzen.

7.3 Erreakziozko objektuaren egitura (*Reaction Object Construction*)

Adib.

Ing. Pauline smiled / Pauline smiled her thanks

Eusk. Pauline-k irribarre egin zuen / * Pauline-k bere eskerrak irribarre egin zituen

Zenbait aditz iragangaitzek –nagusiki *Hitz egiteko moduzkoek*, eta *Keinu* eta *Zeinuzkoek*–, erreakzio bat (emozio edo jarrera bat) adierazten duten azpikategorizatugabeko objektuak har ditzakete. Objektu posibleen artean hauexek ditugu: onarpena, gaitzespena, adostasuna, mirespena, atsekabea, bai, ez. Horrela parafrasea daitezke egiturok: ‘erreakzio bat espresatu, aditzak adierazten duena eginez’. Oro har emozioaren bat adierazten duten aditzek erakusten dute egitura hau, baina salbuespen dira “*Emisio* aditzak”, hauetako batzuek ere onartzen baitute egitura hau. Egitura honek ez du pareko pasiborik.

Euskaraz, ikusten denez, ez dago horrelakorik.

7.4 X’s way egitura (*X’s Way Construction*)

Adib.

Aditz ez-ergatiboak

Ing. He worked his way through the book

Eusk. *Bere bidea liburuan barna lan egin zuen

Aditz iragankorrek

Ing. The boy pushed his way through the crowd

Eusk. *Bere bidea jendetzan zehar jarri zuen

Zenbait aditzek *X's way* moduko objektuak hartzen dituzte esaldian lokaziozko edo emaitzazko sintagma preposizional bat dagoenean. Egitura honen azterketari arreta jarri zaio aditz ez-akusatiboaren diagnostikoa dela dirudielako, izan ere, bakarrik aditz ez-ergatibo eta iragankorrekin agertzen da. Segidan ikusiko dugun Egitura erretsultatiboaren antzekoa da bai banaketa sintagmatikoan, bai eta syntaxian ere. Horrexegatik, beharbada, harekin bat egitekoa da.

Euskaraz hau ere ez zaigu ageri.

7.5 Egitura erretsultatiboa (*Resultative Construction*)

Sintagma erretsultatibo bat da XS bat, aditzak adierazten duen ekintzako ISren erreferentearen egoera deskribatzen duena. Egitura hau mota askoko aditzek onartzen dute, eta beharbada azpimarratzekoena da ez aditz iragankorren subjektuek ez eta oblikuoek ez dutela halakorik onartzen. Aldiz, aditz pasiboaren subjektuek eta zenbait aditz iragangaitzen subjektuek bai. Zenbait ikertzailek fenomeno hau Inakusatibitatearen Hipotesian oinarrituz azaltzen dute, adieraziz sintagma erretsultatiboak ager daitezkeela sakoneko objektuari laguntzen, baina ez hauen subjektuari edota oblikuoiari.

Esan dugun bezala, aditz-mota ugari onartzen du egitura hau, baina badira murriztapen argiak: Aditz estatiboak (*Stative verbs*) eta Mugimendu zuzenekoak (*Directed motion verbs*) ez dute onartzen. Aditz inergatibo iragangaitzek egitura hau erakusten dutenean, derrigorrezkoa dute aditzaren osteko IS bat.

Adib.

Aditz iragankorren objektua

Ing. Jasmine pushed the door open

Eusk. *Jasminek atea irekita bultzatu zuen

Zehaztugabeko objektudun aditzen azpikategorizatugabeko objektua

Ing. The guest drank the teapot dry

Eusk. *Gonbidatuek te-ontzia edan zuten lehorra

Aditz iragangaitz ez-ergatiboaren objektu azpikategorizatugabea

Ing. Belinda walked the soles off her shoes

Eusk. *Belindak zolak zapatetik kanpo ibili zituen

Aditz iragangaitz ez-akusatiboaren objektua

Ing. The river froze solid

Eusk. * Ibaia solido izoztu zen

Aditz pasiboen subjektua

Ing. The metal was hammered flat

Eusk. * Metala zapal mailukatua izan zen

Aditz osteko zenbait IS-motako aditz ez-ergatibo eta inespezifikoaren objektua

Ing. Philippa cried herself to sleep

Eusk. * Philippak berau negar egin zuen lo egiteko

Ing. Philippa cried her eyes dry

Eusk. * Philippak bere begiak negar egin zituen lehor

Euskaraz, adibideotan ikus daitekeenez, ez dago egitura hori onartzen duen aditzik.

7.6 Objektuak nahigabeko interpretazioa duenean (*Unintentional Interpretation of Object*)

Objektu erreflexiboa edota gorputz-atala den objektua izan eta hauen ostean subjektua ageri duten zenbait aditzek, nahigabeko irakurketa izan ohi dute, (nahiz eta nahigabeko kontzeptua argitu beharra dagoen). Alegia, nahiz eta subjektu egile bat hartu normalki, egitura honetan subjektu honek ez du nahita egiten aditzak adierazten duen ekintza, eta esperimendatzailerik edota jasaitzat hartzen da gehiago.

7.6.1 Nahigabeko interpretazioa objektu erreflexiboarekin (Unintentional Interpretation with Reflexive Object)

Adib.

Ing. Pauline cut herself (on the sharp stone)

Eusk. ? Paulinek bere burua moztu zuen (harri zorrotzarekin)

Aditz gehienekin nahigabekotasuna argia da, baina beste zenbaitekin ez da hala gertatzen, Levinek bere laneko adibideetan zehazten duenaren arabera (jarri dugun adibidea kasu).

Euskarari dagokionez, *moztu* aditzarekin behintzat onargarria ez dela dirudi, moztu ezin baita osoki egin, baizik eta zatitxo bat. Beste aditz batzuetara jotzen badugu, berriz, *bota*, esaterako, planteatzen den egitura onargarria dela dirudi *bere burua bota zuen uretara* esan baitaiteke –eta esan behar baita balio erreflexiboa eman nahi izanez gero–. Eta kasu honetan intenzionalitatea argia dela dirudi. *mindu* aditza hartzen badugu, ordea, *bere burua mindu zuen / bere buruari min eman zion* esaterakoan, ez dirudi nahita egindako zerbait denik.

Hortaz, intenzionalitatea erabakitzea ez da hain kontu erraza eta askotan testuinguruaren araberakoa dela esango dugu.

Beraz, alternantzia honek lekurik ez duela esango dugu.

7.6.2 *Nahigabezko interpretazioa gorputz-atala den objektuarekin* (Unintentional Interpretation with Body-Part Object)

Adib.

Ing. Sylvia cut her finger (on the knife)

Eusk. Sylviak behatza moztu zuen (labanarekin)

Levinek dioenez, hemen dagokigun interpretazioan eta alternantzian, ingelesez gorputz-atala subjektuari dagokio (nahiz eta beste interpretazioa ere zilegi den). Nahiz eta interpretazio berezi hau aditz-mota jakinekin lotu, aditz-mota jakin horretako aditz guztiek ez dute interpretazio hori hartzen. Seguruenez, aditz guztiek gorputz-atalak hartu ezin dituztelako izango da.

Euskaraz, esaldi hau itzultzerakoan, arazoak daude, izenordainik gabe jarriz gero lortzen den interpretazioan gorputz-atala subjektuari dagokiola ulertzen baita; izenordaina erabilita, ordea, subjektua ez den bati dagokion gorputz-atala dela ulertzen da, edo asko jota, anbigua da. Bertan gorputz-atala subjektuarena den interpretazioa tratatzen denez, izenordainik gabekoa da egokiena; horrexegatik jarri dugu horixe. Nahigabezko interpretazioari dagokionez, berriz, goian esan dugun bera errepikatzen dugu hemen; aditzaren eta testuinguruaren baitan dago.

Halere, alternantzia honetan (alternantziatzat hartzerik baldin badago behintzat) euskaraz, bederen, ez dakigu zer den aztertu beharrekoa.

7.7 *Anafora ez-erreflexibo erreferentziakidea, objektu preposizional gisa* (*Bound Nonreflexive Anaphoras Prepositional Object*)

Adib.

Ing. This list_i include my name on it_i / *itself_i

Eusk. ? Zerrenda_i honek nire izena du bertan_i/bere baitan_i / *bere buruan

Ing. Amanda_i carried the package with her_i / *herself_i

Eusk. Amandak_i paketea ekarri zuen berarekin_i/*bere bururaekin_i

Ing. Tamara₁ poured the water over her₁ / herself₁

Eusk. Tamarak₁ ura bere₁ / bere buruaren₁ gainera isuri zuen

IS bat eta PS bat osagarri duten zenbait aditz iragankorretako esalditan PS horretan izenordain bat dagoenean, subjektuarekiko erreferentziakide gisa ulertzen da, edo ulertu beharra dago. GB teorian (Chomsky, 1981) aukera hau ezinezkoa da, posizio horretan erreferentziakide izateko izenordain erreflexiboa (*bere burua*) izan behar baita. Ordea, adibideotan ikus daitekeenez, zenbait aditzek ez dute onartzen izenordain erreflexiboa erreferentziakidetasuna adierazteko. *Contain* ('eduki') bezalako aditzek bakarrik erakusten dute jokaera hau, subjektua edukierazkoa denean.

Euskarari dagokionez, Levinek dioen modura, izenordaina erreflexiboa izan gabe erreferentziakide gisa ulertzen da edo, behintzat, uler daiteke, eta adibideetan ageri diren aditzekin halaxe behar du izan, hau da, izenordain ez erreflexiboa. Aditzen batek bi aukerak onartzen dituenean (alegia, erreflexiboa nahiz ez-erreflexiboa), ez dugu uste esanahia guztiz berdina denik (*bota*-ren kasua, esaterako). Edukierazko balioa duten aditzekin ere (*eduki*, *izan* kasu) ez dugu uste bikoiztasunik agertzen denik.

Alternantzia honetan horixe aztertzen denez (hau da, aditz berak izenordain erreflexiboarekin nahiz izenordain arruntarekin, subjektuaren erreferentziakide izanik, esanahi bera izatea), euskaraz horrelakorik ez dugula esango dugu.

7.8 Norabidezko sintagma, norabide jakinik ez duen mugimenduzko aditzekin **(Directional Phrase with Nondirected Motion Verbs)**

Adib.

Ing. Audrey tiptoed / Audrey tiptoed to the door

Eusk. Audrey hanka-puntetan joan zen / Audrey puntetan joan zen aterantz

Ing. Audrey run / Audrey run to the door

Eusk. Audrey-k korritu/korri egin zuen / ??Audrey-k aterantz korritu zuen

Berez norabide jakin bateranzko desplazamendua adierazten ez duten zenbait aditzek, horixe bera adieraz dezakete, norabide jakineko edo helburuzko sintagma preposizional bat hartzen dutenean. Hala gertatzen denean, aditzak adiera hedatu bat hartzen du, 'aditzak adierazten duena eginez joatea' alegia. Sintagma hori gabe, aditzok jarduerazkoak dira, Vendler-en (1957) zentzuan; alegia, sintagma horren presentziarekin "gauzapen" (*accomplishment*) bihurtzen dira. Honelako kontuak *aktionsart* edo semantika aspektualaren ikuspegitik aztertu izan dira (batez ere *run* ('korri egin') eta *push/pull* ('bultzatu/tiratu') aditzak kontuan hartuz), izan ere sintagma hau eransteak telizitatea delakoa aldarazten du, aditz atelikoak (amaiera jakinik gabekoak) teliko (amaieradunak) bihurtuz. Talmy-k (1975) ere aztertu zituen lexikalizazio-egiturei buruz egindako lanean, eta beste hizkuntzetan egiaztatu beharra dagoela azpimarratu zuen. Egun, Inakusatibitatearen Hipotesia aztertzen dutenen arreta jaso du, batez ere *run* ('korri egin') motako aditzak aztergai dituztela. Hauen

ustez, sintagma hau gehitzeak aditz ez-ergatiboak ez-akusatibo bihurtzea ekarriko luke. Levinek diosku fenomeno hau agertzen duten aditz-mota gehiago egongo direla seguruenez.

Euskaraz kontu irristakorra da Levinek hemen planteatzen duena. Izan ere, *ibili*, *korri egin* eta honelako aditzek, preposizio-sintagma bat hartzen dutenean, bestelako egituretara jo ohi dugu: *Mendirantz joan zen korrika*, *Mendiraino joan zen ibiltzen*; alegia, desplazamenduzko aditzen bidez naturalago egiten dugula dirudi⁷. *Mendirantz korritu zuen* eta *Baserriraino ibili zen* modukoak gehiago dirudite erdarazkoen kalkoa euskararen beraren egiturak baino. Beraz, euskaraz egitura hau desplazamenduzko aditzekin bakarrik agertzen dela esaten badugu, Levinek planteatzen dituen auziek zentzua galtzen dute hein handi batean. Levinek, ingelesez alternantzia hau onartzen duten aditzen artean zerrendatzen dituenak, euskaraz *joan* gehi beste elementu adverbial batez parafraseatzen dira eta hortaz desplazamenduzkoak dira besterik gabe. Ondorioz, alternantzia hau ez dugu onartuko berak planteatutako moduan bederen.

8 Diatesi bereziak eskatzen dituzten aditzak (*Verbs Requiring Special Diathesis*)

8.1 Derrigorrezko pasiboa (*Obligatory Passive*)

Adib.

Ing. It is rumored that he left town / *They rumored that he left town

Eusk. Herritik alde egin duelako zurrumurrua dabil / *Herritik alde egin duela
*zurrumurratzen dute

Ataltxo honetako aditzek derrigorrez eskatzen dute egitura pasiboa.

Euskaraz, esan dugun bezala, pasiboak ez dirudi berezko egitura, beraz, horrelakorik ez dugu. Baina, beharbada, egitura inpersonala derrigor eskatzen duenik badela esan genezake baldin eta *segitu* aditzarentzat ‘ondorioztatu’ adiera onartzen dugun, esaterako: *Hortik segitzen da ez duela esandakoa bete*. *Segitu* aditzak adiera horretan duen erabilera bakarra da. Ez dugu, ordea, alternantziatzat hartuko, ez baitaude bi egitura zilegi jokoan.

⁷ Sarasolaren *Euskal Hiztegian* bada erabilera bat, Iparraldeko markarekin, norabidezko sintagmak hartzen dituenak, baina adiera ez dator bat gu hemen aztertzen ari garenekin (‘Norabait maiz joan’, *Elizara ibili*)

8.2 Derrigorrezko objektu erreflexiboa (*Obligatory Reflexive Object*)

Adib.

Ing. The politician perjured himself / * The politician perjured his aide

Eusk. Politikariak bere buruari kalte egin zion EDO Politikariak bere burua kaltetu zuen /
Politikariak bere laguntzaileari kalte egin zion EDO Politikariak bere laguntzailea
kaltetu zuen

Aditz hauek derrigorrez eskatzen dute izenordain erreflexibo bat objektu gisa. Zenbaitek erreflexiboa ez den izenordainik ere har dezakete, baina orduan adiera desberdina da. Zenbait aditzek, egitura pasiboan (pasibo adjektibalean, seguruenek) adiera bera hartzen dute.

Euskaraz ez dugu horrelakorik topatzen.

8.3 Objektu gisa gauzaten den gorputz-atala norberarena denean derrigorrez (*Inalienably Possessed Body-Part Object*)

Adib.

Ing. (a) Jennifer craned her /*his neck

(b) Jennifer craned her neck/ *arm

Eusk. (a) Jennifer-ek bere / lepoa hautsi zuen

(b) Jennifer-ek bere lepoa / hanka hautsi zuen

Gorputz-atala derrigorrez subjektuarena behar du izan aditz hauetan. Bi mota nagusi topatzen ditugu: batetik, keinu edo zeinuak adierazten dituztenak, eta bestetik, gorputz-atalen bati egiten zaion kaltea adierazten dutenak.

Euskaraz ere badugu horrelakorik; alegia, gorputz-atal bat izenordainik gabe ageri denean, subjektuaren ataltzat ulertu ohi da (*Jennifer-ek lepoa hautsi zuen* --> bere lepoa, baina *Jennifer-ek lepoa hautsi zion* --> beste norbaiti). Baina hemen Levinek planteatzen duena da, aditz jakin batzuekin gorputz-atal jakin batzuk baino ez direla ageri; alegia, *crane* aditzak bakarrik *neck* onartzen du, baina ez, aldiz, *arm*. Horiek, gure ustez, gehiago daude lexikalizazio maila handi bat jaso ostean HAUL bihurtzetik, aditz baten erabilera sintaktiko orokorrean aztertzetik baino. Jakin badakigu muga (egitura sintaktiko orokorra / unitate konplexu lexikalizatua) askotan ez dela garbia, baina horrelako fenomenoak (hitz batzuk bakarrik onartzea aditzak) HAULTzat hartzeko irizpideen artean aztertu ohi dira.

Beraz, euskaraz alternantzia sintaktiko orokor gisa ezin planteatzeaz gain, Levinek jartzen duen adibidean ez dugu horrelako HAULik topatzen.

8.4 *It* espletiboa objektu gisa (*Expletive It Object*)

Adib.

Ing. They've got it made

Eusk. Egina dute

Aditz askok har dezakete *it* espletiboa objektu gisa (beste aukera batzuen artean); baina badira batzuk *it* bakarrik onar dezaketenak.

Euskaraz ez dugu horrelakorik. Halere, esan behar dugu, aurrekoan bezalaxe, egitura honek gehiago dirudiela ingelesezko espresio berezi bat, hau da, lexikalizatzeko prozesu bat jasan ondoren, HAUL bihurtu dena, egitura sintaktiko arrunt bat baino.

8.5 Derrigorrezko adberbioa (*Obligatory Adverb*)

Adib.

Ing. The teacher meant well / *The teacher meant

Eusk. Irakasleak asmo onak ditu / ?

Dagokien interpretazioan beti eskatzen dute adberbio bat. Aditzen artean desberdintasuna dago, objektu zuzena hartzen dutenen eta hartzen ez dutenen artean.

Euskaraz, Levinek zerrendatzen dituen 10 aditzen artean, adberbioa eskatzen dutenak *jokatu*, *tratatu*, *egin* izango genituzke. Hemen ere, planteatzen den egiturak gehiago dirudi ingelesezko espresio berezi bat, lexikalizatzeko prozesu bat jasan ondoren, hitz anitzeko unitate bihurtu dena, egitura sintaktiko arrunt bat baino. Gainera, hemen ere ez dago alternantziarik, ez baitago egitura parerik. Izatez, 8.3, 8.4 eta 8.5 alternantziak, ingelesari begira, erabilera jakin batzuetan oinarritzko egitura definitzeko planteatzen direla dirudi, eta ez, berez, alternantzia orokor gisa.

8.6 Ezezko elementu bat hartzen dutenak derrigorrez (*Obligatory Negative Polarity Element*)

Adib.

Ing. The horse wouldn't budge / *The horse budged

Eusk. Zaldia ez da mugituko / Zaldia mugituko da

Ezezko elementuren bat eskatzen duten aditzak daude hemen. Ez dirudi aditzaren argumentuen ezaugarrien baldintzapean dagoenik; aditzaren esanahiari lotuago dagoela dirudi.

Euskaraz printzipioz ez dugu horrelakorik topatu.

Laburbilduz

Alt.-zk.	Alternantziaren izena	Adibidea ingelesez	Adibidea euskaraz	Bai/Ez euskaraz	Euskaraz ez onartzeko arrazoiak
1.1.1	“Middle” alternantzia	Janet broke the crystal / Crystal breaks at the slightest touch	Janetek izpilua puskatu zuen / Izpilua ukiturik leunenarekin hausten da	bai	
1.1.2.1	Alternantzia kausatibo/inkoatiboa	Janet broke the cup / The cup broke	Janetek katilua puskatu zuen / Katilua puskatu egin zen	bai	
1.1.2.2	Eragindako ekintzazko alternantzia	Sylvia jumped the horse over the fence/ The horse jumped over the fence	*Janetek zaldia hesirantz salto egin zuen / Zaldiak hesirantz salto egin zuen	ez	Euskaraz zentzu bera beste forma eta maila batean
1.1.2.3	Bestelako alternantzia kausatiboak	I burped the baby / The baby burped	*Haurra korroskada bota nuen / Haurrak korroskada bota zuen	ez	Euskaraz zentzu bera beste forma eta maila batean
1.1.3	Substantzia/Iturria alternantzia	Heat radiates from the sun / The sun radiates heat	Beroa eguzkitik irradiatzen da / Eguzkiak beroa irradiatzen du	bai	
1.2.1	Objektu inespezifikokoaren alternantzia	Mike ate the cake / Mike ate	Mikek opila jan zuen / Mikek jan zuen	bai	
1.2.2	Objektu ulertutzat gorputz-atala duen alternantzia	I flossed my teeth / I flossed	Hortzak setazko hariz garbitu nituen / Setazko hariz garbitu nituen	ez	Elipsia
1.2.3	Objektu ulertutzat izenordain erreflexiboa duen alternantzia	Jill dressed herself hurried / Jill dressed hurried	*Jillek bere burua azkar jantzi zuen / Jill azkar jantzi zen	ez	Aldaeretakoa bat egitura ez-arrunta
1.2.4	Objektu ulertutzat izenordain erreziprokoa duen alternantzia	Anne met Cathy / Anne and Cathy met	Annek Cathy topatu zuen/ Anne eta Cathy topatu ziren	bai	
1.2.5	PRO arbitrarioaren alternantzia	That movie always shocks people / That movie always shocks	Film horrek beti harritzen du jendea / Film horrek beti harritzen du	ez	Aldaeretakoa batek zentzu handiegirik ez
1.2.6.1	Agentearen ezaugarri arruntaren alternantzia	That dog bites people / That dog bites	Zakur horrek jendeari hozka egiten dio / Zakur horrek hozka egiten du	bai	
1.2.6.2	Instrumentuaren ezaugarri arruntaren alternantzia	This knife cuts the bread / This knife doesn't cut	?Labana honek ogia moztzen du / Labana honek ez du moztzen	bai	
1.2.7	Way-dun objektuaren alternantzia	They pushed their way through the crowd / They pushed through the crowd	*Haiek euren bidea jendearen artean bultzatu zuten / ?Haiek jendearen artean bultzatu zuten	ez	Aldaeren itzulpenek zentzurik ez

1.2.8	Instrukziozko inperatiboa	Bake the cake for 30 minutes / Bake for 30 minutes	Eduki opila labean 30 minutuz / Eduki labean 30 minutuz	ez	Elipsia
1.3	Alternantzia konatiboa	Paula hit at the fence / Paula hit the fence	Paulak hesian/-ren kontra jo zuen / Paulak hesia jo zuen	bai	
1.4.1	Preposizio lokatiboa galtzearen alternantzia	Martha climbed up the mountain / Martha climbed the mountain	Paula mendira igo zen / Paulak mendia igo zuen	bai	
1.4.2	<i>With</i> preposizioa galtzearen alternantzia	Jill met with Sarah / Jill met Sarah	Jill Sarahekin topatu zen / Jillek Sarah topatu zuen	bai	
2.1	Alternantzia datiboa	Bill sold a car to Tom / Bill sold Tom a car	Billek auto bat saldu zion Tomi / Billek Tomi auto bat saldu zion	ez	Esaldiko elementu berberen leku-aldatzea
2.2	Onuradunaren alternantzia	Martha carved a toy for the baby / Martha carved the baby a toy	Marthak jostailu bat zizelatu zuen haurarentzat / Marthak haurrari jostailu bat zizelatu zion	bai	
2.3.1	<i>Spray/load</i> alternantzia	Jack sprayed paint on the wall / Jack sprayed the wall of paint	*Jackek horman pintura ihinzatu zuen/ Jackek horma pinturaz ihinzatu zuen	bai	
2.3.2	<i>Clear</i> alternantzia (Iragankorra)	Henry cleared dishes from the table / Henry cleared the table of dishes	*Henryk platerak mahaitik garbitu/hustu zituen/ *Henryk mahaia plateraz garbitu/hustu zuen	ez	Aldaeren itzulpenek zentzurik ez
2.3.3	<i>Wipe</i> alternantzia	Helen wiped the fingerprints off the wall / Helen wiped the wall (*of fingerprints)	*Henryk hatz-arrastoak paretatik garbitu zituen/ Henryk paretatik garbitu zuen (*hatz-arrastoz)	ez	Aldaeren itzulpenek zentzurik ez
2.3.4	<i>Swarm</i> alternantzia	Bees are swarming in the garden / The garden is swarming with bees	?*Erleak lorategian betetzen ari dira / Lorategia erlez beterik dago.	ez	Aldaeretak baten itzulpenak zentzurik ez
2.3.5	<i>Clear</i> alternantzia (Iragangaintza)	Clouds cleared from the sky / The sky cleared (?of clouds)	?*Hodeiak zerutik garbitu ziren / Zeruak garbitu zuen (*hodeiez)	ez	Aldaeren itzulpenek zentzurik ez
2.4.1	Materiaia/produktua alternantzia (Iragankorra)	Martha carved a toy out of the piece of wood / Martha carved the piece of wood into a toy	*Marthak egurrezko piezatik jostailu bat landu zuen / *Marthak egurrezko pieza jostailu(an) landu zuen	ez	Aldaeretak baten itzulpenak zentzurik ez
2.4.2	Materiaia/produktua alternantzia (Iragangaitza)	That acorn will grow into an oak tree /An oak tree will grow from that acorn	*Ezkur hori haritz(ean) haziko da / ?Haritza ezkur horretatik haziko da	ez	Aldaeren itzulpenek zentzurik ez
2.4.3	Erabateko transformazioaren alternantzia (iragankorra)	The witch turned him into a frog / The witch turned him from prince into a frog	Sorginak bera igel bihurtu zuen / *Sorginak bera printzetik igel bihurtu zuen	ez	Aldaeretak baten egitura ez-arrunta
2.4.4	Erabateko transformazioaren alternantzia	He turned into a frog / He turned from a prince into a frog	Bera igel bihurtu zen / *Bera printzetik igel bihurtu zuen	ez	Aldaeretak baten egitura ez-arrunta
2.5.1	Alternantzia erreziproko simplea (Iragankorra)	I separated the yolk from the white / I separated the yolk and the white	Gorringoa zuringotik bereizi nuen / Gorringoa eta zuringoa bereizi nituen	bai	

2.5.2	<i>Together</i> bidezko alternantzia erreziprokoa	I creamed the sugar into the butter / I creamed the sugar and the butter together	? / ?Azukrea eta gurina elkarrekin krematan irabiatu nituen	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez eta beste egitura ez-arrunta
2.5.3	<i>Apart</i> bidezko alternantzia erreziprokoa (tragankorra)	I broke the twig off (of) the branch / I broke the twig and the branch apart	*Adarretik adaska hautsi nuen / *Adarra eta adaska bereiz hautsi nituen	ez	Aldaeren itzulpenek zentzurik ez
2.5.4	Alternantzia erreziproko simplea (Iragangaitza)	The oil separated from the vinegar / The oil and vinegar separated	Olioa ozipinetik banandu zen / Olioa eta ozipina banandu egin ziren	bai	
2.5.5	<i>Together</i> bidezko alternantzia erreziprokoa	The eggs mixed with the cream / The eggs and the cream mixed together	Artautzak kremarekin nahastu ziren / ?Artautzak eta krema nahastu ziren elkarrekin/elkarren artean	ez	Aldaeretako bat egitura ez-arrunta
2.5.6	<i>Apart</i> bidezko alternantzia erreziprokoa (Iragangaitza)	The twig broke off (of) the branch / The twig and the branch broke apart	*Adarretik adaska hautsi zen / *Adarra eta adaska bereiz hautsi ziren	ez	Aldaeren itzulpenek zentzurik ez
2.6	<i>Fulfilling</i> alternantzia	The judge presented a prize to the winner / The judge presented the winner with a prize	Epaimahaia irabazleari sari bat oparitu zion / *Epaimahaia irabazlea sari batekin oparitu zuen	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
2.7	Irudia inprimatze alternantzia	The jeweller inscribed the name on the ring / The jeweller inscribed the ring with the name	Bitxi-egileak izena inskribatu/grabatu zuen eraztunean / *Bitxi-egileak eraztuna izenarekin inskribatu/grabatu zuen	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
2.8	<i>With/against</i> alternantzia	Brian hit the stick against the fence / Brian hit the fence with the stick	*Brianek makila hesiaren kontra jo zuen / Brianek hesia makilaz jo zuen	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
2.9	<i>Through/with</i> alternantzia	Alice pierced the needle through the cloth / Alice pierced the cloth with the needle	?Alicek orratza indarka sartu zuen oihaletik/oihalean zehar / *Alicek oihala orratzaz sartu zuen indarka	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
2.10	<i>Blame</i> alternantzia	Mira blamed the accident on Terry / Mira blamed Terry for the accident	*Mirak istripua Terrygan errua egotzi zuen / *Mirak Terry errua egotzi zuen istripuagatik	ez	Aldaeren itzulpenek zentzurik ez
2.11	<i>Search</i> alternantziak	Ida hunted the woods for deer / Ida hunted for deer in the woods / Ida hunted deer in the woods	*Idak oihanak ehizatu zituen orein bila / *Idak oihanetan ehizatu zuen orein bila / Idak oreinak ehizatu zituen oihanetan	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
2.12	Jabetzako gorputz-atalaren igoera alternantzia	Selina touched the horse on the back / Selina touched the horse's back	(Lit.) Selinak zaldia ukitu zuen bizkarrean; (libr.) Selinak zaldia bizkarra ukitu zion / Selinak zaldiaren bizkarra ukitu zuen	bai	
2.13.1	Jabea objektu gisa	I admired his courage / I admired him for his courage	Bere kementa miresten nuen / Bere kementagatik miresten nuen	bai	
2.13.2	Atributua objektu gisa	I admired his honesty / I admired the honesty in him	Bere zintzotasuna miresten nuen / Beregan zintzotasuna miresten nuen	bai	
2.13.3	Jabearen eta atributuaren alternantzia	I admired him for his honesty / I admired the honesty in him	Bere zintzotasunagatik miresten nuen / Beregan zintzotasuna miresten nuen	bai	

2.13.4	Jabea subjektu gisa (Iragankorra)	The clown amused the children with his antics / The clown's antics amused the children	Pailazoak bere bihurrikierekin haurrak entretentitu zituen / Pailazoaren bihurrikieriek haurrak entretentitu zituzten	bai	
2.13.5	Jabea subjektu gisa (iragangaitza)	Meat fell in price / The price of meat fell	? Haragiak behera egin du prezioan / Haragiaren prezioak behera egin du	ez	Aldaera batek erderako egituraren kalko ixura
2.14	As alternantzia	The president appointed Smith press secretary / The president appointed Smith as press secretary	Lehendakariak Smith idazkari izendatu/hautatu zuen / *Lehendakariak Smith idazkaritzat izendatu/hautatu zuen	bai	
3.1	Denborazko subjektuaren alternantzia	The world saw the beginning of a new era in 1492 / 1492 saw the beginning of a new era	Munduak aro berri baten hasiera ikusi zuen 1492an / 1492k aro berri baten hasiera ikusi zuen	bai	
3.2	Naturazko indarreko subjektuaren alternantzia	I dried the clothes in the sun / The sun dried the clothes	?Arropa eguzkitan lehortu nuen / Eguzkiak arropa lehortu zuen	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
3.3	Instrumentuzko subjektuaren alternantzia	David broke the window with the hammer / The hammer broke the window	Davidek leihoa mailuaz hautsi zuen / ? Mailuak leihoa hautsi zuen	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
3.4	Kausa abstraktuzko subjektuaren alternantzia	He established his innocence with the letter / The letter established his innocence	Bere errugabetasuna gutunaren bidez frogatu zuen / Gutunak bere errugabetasuna frogatu zuen	bai	
3.5	Locatum subjektuaren alternantzia	I filled the pail with water / Water filled the pail	Ontzia urez bete nuen / Urak ontzia bete zuen	ez	Beste alternantzia batekiko desberdintasunik ez
3.6	Lekuzko subjektuaren alternantzia	We sleep five people in each room / Each room sleeps five people	Gela bakoitzean bost pertsonak lo egiten dugu/ *Gela bakoitzak bost pertsona lo egiten ditu	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
3.7	Edukierazko subjektuaren alternantzia	I incorporated the new results into the paper / The paper incorporated the new results	Paperean emaitza berriak erantsi nituen/ (lit.) *Paperak emaitza berriak eranstean zituen/ (libr.) Paperak emaitza berriak zekartzan	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
3.8	Material gordinezko subjektuaren alternantzia	She baked wonderful bread from that whole wheat flour / The whole wheat flour bakes wonderful bread	*Hark oso ogi ona erretzen du garizko irin horretatik guzitiik / *Garizko irin horrek guztiak oso ogi ona erretzen du	ez	Aldaeren itzulpenak zentzurik ez
3.9	Diru-kopuruzko subjektuaren alternantzia	I bought (you) a ticket for \$ 5 / \$ 5 will buy (you) a ticket	Txartel bat erosi d(iz)ut 5 dolarren truke / * 5 dolarrek txartel bat erosiko dute	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
3.10	Iturrizko subjektuaren alternantzia	The middle class will benefit from the new tax laws / The new tax laws will benefit the middle class	Klase ertainak onura jasoko du zergen arau berrietatik / Zergen arau berriek klase ertainari onura ekarriko diote	ez	Euskaraz bi aldaeretan adituz desberdinak

4.1	Erreflexibo birtualaren alternantzia	The butcher cuts the meat / This meat cuts itself	Harakinak haragia mozten du / *Haragi hau bera mozten da	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
4.2	Agerpenezko erreflexiboaren alternantzia	I presented a solution to the problem yesterday / A solution to the problem presented itself yesterday	Atzo arazoarentzako irtenbide bat aurkeztu nuen / *Arazoarentzako irtenbidea bera aurkeztu zen atzo	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
5.1	Aditzen pasiboak	The cook sliced the mushrooms / The mushrooms were sliced by the cook	Sukaldariak txanpiñoiak zerratan moztu zituen / ?* Txanpiñoiak zerratan moztuak izan zirenen sukaldariaren eskutik	ez	Aldaeretako bat egitura ez-arrunta eta beste hainbat erdarako egituren kalkoa
5.2	Pasibo preposizionalak	George Washington slept in this bed / This bed was slept in by George Washington	George Washington-ek ohe honetan lo egin zuen / *Ohe hau George Washington-ek lo egin izan zen	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
5.3	Pasibo adjektibala (Aditz iragankorrek)	The feathers remained stuffed in the pillow / The pillow remained stuffed with feathers	Lumak pilatuta geratu ziren burukoan / *Burukoa lumekin pilatuta geratu zen	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
5.4	Partizipio perfektu adjektibalak (Aditz iragangaitzak)	Recently arrived guest, collapsed lung, curdled milk, drifted snow	Gonbidatu iritsi berria, birika oziopaturia, esne galdua, elur pilatua	bai	
6.1	There sartzea	A ship appeared on the horizon / There appeared a ship on the horizon	Itsasontzi bat agertu zen zeruertzean / ?	ez	Aldaeretako bat ezin itzuli
6.2	Lokatiboaren leku-aldatzea	An old woman lives in the woods / In the woods lives an old woman	Emakume heldu bat bizi da oihanean / Oihanean emakume heldu bat bizi da	ez	Esaldiko elementu berberen leku-aldatzea
7.1	Objektu <i>cognate</i> -dun egitura	Sarah sang / Sarah sang a ballad / Sarah sang a song	Sarah-k abestu zuen / Sarah-k balada bat abestu zuen / Sarah-k abesti bat abestu zuen	bai	
7.2	Sintagma preposizional <i>cognate</i> -aren egitura	Kelly buttered the bread / *Kelly buttered the bread with butter / Kelly buttered the bread with unsalted butter	Kelly-k ogia gurimeziatu zuen / *Kelly-k ogia gurinaz gurimeziatu zuen / ?Kelly-k ogia gurin gatzgabetuaz gurimeziatu (igurtzi) zuen	ez	Aldaeretako bat egitura ez-arrunta
7.3	Erreakziozko objektuaren egitura	Pauline smiled / Pauline smiled her thanks	Pauline-k irribarre egin zuen / *Pauline-k bere eskerrak irribarre egin zituen	ez	Aldaeretako baten itzulpenak zentzurik ez
7.4	X's way egitura	He worked his way through the book	*Bere bidea liburuan barna lan egin zuen	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez
7.5	Egitura erretultatiboa	Jasmine pushed the door open	*Jasminek atea irekita bultzatu zuen	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez
7.6.1	Nahigabezko interpretazioa objektu erreflexiboarekin	Pauline cut herself (on the sharp stone)	?Paulinek bere burua moztu zuen (harri zorrotzarekin)	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez
7.6.2	Nahigabezko interpretazioa gorputz-atala den objektuarekin	Sylvia cut her finger (on the knife)	Sylvia behatza moztu zuen (labanarekin)	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez

7.7	Anafora ez-erreflexibo erreferentziakidea, objektu prepositional gisa	Amanda _(i) carried the package with her _(i) / *herself _(i)	Amandak _(i) paketea ekarri zuen berarekin _(i) / *bere buruarekin _(i)	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez
7.8	Norabidezko sintagma, norabide jakinik ez duen mugimenduzko aditzekin	Audrey tiptoed / Audrey tiptoed to the door	Audrey hanka-puntetan ibili zen / ?Audrey puntetan ibili zen aterantz	ez	Aldaeretakoko bat egitura ez-arrunta
8.1	Derrigorrezko pasiboa	It is rumored that he left town / *They rumored that he left town	Herritik alde egin duelako zurrumurrua dabil / *Herritik alde egin duela *zurrumurratzen dute	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez
8.2	Derrigorrezko objektu erreflexiboa	The politician perjured himself / * The politician perjured his aide	Politikariak bere burua kaltetu zuen / Politikariak bere laguntzailea kaltetu zuen	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez
8.3	Objektu gisa gauzaten den gorputz-atala norberarena denean derrigorrez	(a) Jennifer craned her / *his neck (b) Jennifer craned her neck/ *arm	(a) Jennifer-ek bere / lepoa hautsi zuen (b) Jennifer-ek bere lepoa / hanka hautsi zuen	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez
8.4	<i>It</i> espletiboa objektu gisa	They've got it made	Egina dute	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez
8.5	Derrigorrezko adberbioa	The teacher meant well / *The teacher meant	Irakasleak asmo onak ditu / ?	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez
8.6	Ezezko elementu bat hartzen dutenak derrigorrez	The horse wouldn't budge / *The horse budged	Zaldia ez da mugituko / Zaldia mugituko da	ez	Bi egitura zilegi harremanetan ez

Erreferentziak

- Burtzio L. (1986). *Italian Syntax: A Government-Binding Approach*. Reidel, Dordrecht.
- Clark E.V. & Clark H.H. (1979). "When Nouns Surface as Verbs". *Language* 55, 767-811.
- Couper-Kuhlen E. (1979). *The Prepositional Passive in English*. Niemeyer, Tübingen.
- Chomsky N. (1981). *Lectures on Government and Binding. The Pisa Lectures*. Berlin, New York: Mouton de Gruyter.
- Deane P. & Wheeler R.S. (1984). "On the Use of Syntactic evidence in the Analysis of Word Meaning". *Papers from the Parasession on Lexical Semantics*. Chicago Linguistics Society . Chicago, IL. 95-116..
- Dixon R.M.W. (1991). *A New Approach to English Grammar, On Semantic Principles*. Oxford University Press, Oxford.
- Dowty D. (1991). "Thematic protoroles and argument selection". *Language* 67: 547-619.
- Etxepare R. (2001). "Valency and Argument Structure in Basque Verb" Hualde J.I. & Ortiz de Urbina J., eds., *A grammar of Basque*. Argitaratu gabeko eskuizkribua.
- Euskaltzaindia (1993). *Euskal gramatika laburra. Perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fellbaum C. (1998). *WordNet: An Electronic Lexical Database*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Gruber J. (1965). *Studies in Lexical Relations*. Bloomington: Indiana University Linguistics Club.
- Jackendoff R.S. (1990). *Semantic Structures*. Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Jones D., Berwick R., Cho F., Khan Z., Kohl K., Nomura N, Radhakrishnan A., Sauerland U. & Ulicny B. (1994). *Verb Classes and Alternations in Bangla, German, English, and Korean*. Massachusetts Institute of Technology center for Biological and Computational Learning and the Artificial Intelligence Laboratory.
- Levin B. & Rappaport H. (1988). "Lexical subordination". *CLS* 24, Part 1, 275-289.
- Levin B. (1986). *Operations on Lexical Forms: Unaccusative Rules in Germanic Languages*, Doctoral dissertation, MIT, Cambridge, MA.
- Levin B. (1987). "Towards a Linking Theory of Relation Changing Rules in LFG". Report CSLI-87-115. Center for the Study of Language and Information. Standford University, Standford, CA.
- Levin B. (1993). *English Verb Classes and Alternations. A preliminary Investigation*. Chicago and London. The University of Chicago Press.

- Mitxelena K. (1987-). *Orotariko Euskal Hiztegia (I-XII liburukiak)*. Editorial Desclée de Brouwer. Ediciones Mensajero, Bilbo.
- Saint Dizier P. (1995). *A semantic classification of French verbs based on B. Levin's approach*. Research report. IRIT.
- Sarasola I. (1997). *Euskal Hiztegia*. Kutxa Fundazioa: Donostia.
- Smith C.S. (1970). "Jespersen's 'Move and Change' Class and Causative Verbs in English". Jazayery M.A. , Palome E.C. & Winter W., eds., *Linguistic and Literary Studies in Honor of Archibald A. Hill*. Vol. 2: Descriptive Linguistics. Mouton, The Hague. 101-139.
- Talmy L. (1985). "Lexicalization patterns: semantic structure in lexical forms". Shopen T., ed., *Language Typology and Syntactic Description*. Cambridge University Press. 57-149.
- Taulé, M. (1995). *Representación verbal en una Base de Conocimiento Léxico*. Ph.D.. Barcelona.
- Vázquez G., Fernández A. & Martí M.A. (2000). *Clasificación verbal. Alternancias de diátesis*. Quaderns de Sintagma 3. Edicions de la Universitat de Lleida.
- Vendler Z. (1967). *Linguistics in Philosophy*. Ithaca: Cornell University Press.
- Zwicky A.M, (1971a). "In a Manner of Speaking". *Linguistic Inquiry* 2, 223–232.